

GOBERNU KORPORATIBOAREN URTEKO TXOSTENA

JAULKITZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

ERREFERENTZIAKO EKITALDIAREN AMAIERA-DATA	2023/12/31
--	------------

IFK	A95653077
------------	-----------

SOZietatearen izena	KUTXABANK SA
----------------------------	--------------

EGOITZA SOZIALA	KALE NAGUSIA 30-32, (BILBO) BIZKAIA
------------------------	-------------------------------------

A. JABETZAREN EGITURA

A.1 Zehaztu ekitaldia ixtean zure erakundeak dituen akziodun edo partaide esanguratsuenak:

IFK	Akziodunaren edo partaidearen izena edo sozietatearen izena	Kapital sozialarekiko %
G48412720	BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA - BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU FUNDAZIOA	% 57
G20336251	FUNDACIÓN BANCARIA KUTXA – KUTXA BANKU FUNDAZIOA	% 32
G01104256	FUNDACIÓN BANCARIA VITAL – VITAL BANKU FUNDAZIOA	% 11

Oharrak

A.2 Adieraz itzazu, hala badagokio, akziodun edo partaide esanguratsuen artean dauden familia-, merkataritza-, kontratu- edo sozietate-izaerako harremanak, erakundeak ezagutzen dituenak, garrantzi txikikoak direnean edo ohiko merkataritza-igorpen edo -trafikitik eratortzen direnean izan ezik:

IFK	Zerrendatutako izenak edo sozietatearen izenak	Lotura mota	Deskribapen laburra

Oharrak

A.3 Adieraz itzazu, hala badagokio, akziodun edo partaide esanguratsuen eta erakundearen artean dauden merkataritza-, kontratu- edo sozietate-izaerako

harremanak, garrantzi txikikoak direnean edo ohiko merkataritza-igorpen edo -trafikitik eratortzen direnean izan ezik:

IFK	Zerrendatutako izenak edo sozietatearen izenak	Lotura mota	Deskribapen laburra
G48412720	BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA - BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU FUNDAZIOA	Kontratuzkoa	Zerbitzuak emateko kontratua Higiezinak alokatzeko kontratua
G20336251	FUNDACIÓN BANCARIA KUTXA – KUTXA BANKU FUNDAZIOA	Kontratuzkoa	Zerbitzuak emateko kontratua Higiezinak alokatzeko kontratua
G01104256	FUNDACIÓN BANCARIA VITAL – VITAL BANKU FUNDAZIOA	Kontratuzkoa	Zerbitzuak emateko kontratua

Oharrak

A.4 Adierazi inolako murrizketarik (estatutuetakoa, legegintzakoa edo edozein motatakoa) egin zaion baloreen eskualdagarritasunari eta/edo boto-eskubidea nolabait murriztu den. Zehazki, merkatuan dituen akzioak eskuratzearen bidez sozietatearen kontrola hartzea oztopa dezakeen edozein murrizketaren berri emango da, bai eta, konpainiaren finantza tresnak eskuratzeari edo eskualdatzeari dagokionez, sektoreko araudiagatik aplikagarri zaizkion aurretiko baimeneko edo komunikazioko araubideen berri ere:

BAI	
EZ	X

MURRIZKETEN DESKRIBAPENA

Ez dago murrizketarik baloreen eskualdagarritasunari eta/edo boto-eskubideari dagokienez. Hala ere, aurretiko baimeneko edo komunikazioko araubideari dagokionez, 10/2014 Legeak, ekainaren 26koak, kreditu-erakundeen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzkoak bere 17. artikuluan ezarritakoaren eta lege hori garatzen duen 84/2015 Errege Dekretuak, otsailaren 13koak, bere 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, Kutxabank SA sozietatearen (aurrerantzean, «**Kutxabank**», «**Sozietatea**», «**Erakundea**» edo «**Bankua**») partaidetza esanguratsuen edozein eskuratzailer potentzialek, baldin eta boto-eskubideen edo kapitalaren ehunekoa ehuneko 20, 30 edo 50etik gorakoa bada edo Kutxabank kontrolatzeko modukoa bada, aldeztu aurretik jakinarazi beharko dio bere asmoa Espainiako Bankuari, eta erakunde ikuskatzaile horrek erabaki-proposamen bat egingo dio Europako Banku Zentralari, hark aurka egin ez diezaion edo aurka egin ez dezan. Era berean, zuzenean edo zeharka Kutxabanken

Orrialdea:

partaidetza bat eskuratu duenak, haren boto-eskubideen edo kapital-eskubideen ehunekoa % 5ekoa edo handiagoa bada, berehala eta idatziz jakinaraziko dio Espainiako Bankuari eta Kutxabanki berari.

B. BATZORDE OROKORRA EDO ORGANO BALIOKIDEA

B.1 Zerrendatu batzorde orokorra edo organo baliokidea eratzeko estatutuetan ezarritako quorumak. Deskribatu zertan bereizten den Kapital Sozietateei buruzko Legean edo aplikatu beharreko araudian aurreikusitako gutxienekoen araubidetik.

Estatutu sozialen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, Akziodunen Batzorde Orokorra, ohikoa edo ezohikoa, balioz eratuta geratuko da lehen deialdian, bertaratutako edo ordezkaturako akziodunek boto-eskubidearekin harpidetutako kapital sozialaren gutxienez ehuneko hogeita bost (% 25) dutenean. Bigarren deialdian, aldiz, Batzar Orokorra balio osoz eratuko da horretan bildutako kapitalaren ehunekoa edozein izanda ere. Hori guztia, aplikatu beharreko legeriak edo sozietatearen estatutuek unean-unean ezartzen dituzten quorum baldintza bereziak alde batera utzi gabe, zorrotzagoak badira.

B.2 Azaldu erabaki sozialak hartzeko araubidea. Deskribatu zertan bereizten den Kapital Sozietateei buruzko Legean edo aplikatzekoa den araudian aurreikusitako araubidetik.

Sozietatearen estatutuen 20.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, erabakiak, oro har, Batzordean dauden edo ordezkaturata dauden akziodunen botoen gehiengo arruntez hartuko dira. Hala ere, bertaratutako akziodunen edo ordezkaturaten aldeko botoa beharko da, baldin eta gutxienez boto-eskubidearekin harpidetutako kapitalaren ehuneko berrogeita hemeretzi (% 59) badute, Batzorde Nagusiak baliozko erabaki hauek hartu ahal izan ditzan:

- (i) Kapital soziala handitzea, lehentasun-eskubidea osorik edo zati batean kenduz eta kapital soziala murriztuz. Salbuetsi egiten dira aplikatu beharreko araudia betetzeko beharrezkoak diren edo ikuskapeneko agintariek eskatzen dituzten kapital-gehikuntzak eta, betiere, lehentasun-eskubidea aitortzen da, aplikatu beharreko legearen arabera.
- (ii) Obligazio bihurtgarriak, aukerak, *warrant* direlakoak edo akzioak eskuratzeko edo harpidetzeko eskubidea ematen duen beste edozein balore jaulkitzea.
- (iii) Aktibo eta pasiboen eraldaketa, bat-egitea, zatiketa, desegitea edo lagapen globala.
- (iv) Kontseilari kopurua zehaztea, estatutu sozialen 25. artikuluan ezarritako gutxieneko eta gehieneko kopuruen barruan.
- (v) Sozietatearen estatutuak aldatzea.

Hori guztia, ezertan eragotzi gabe aplikatu beharreko legeriak gehiengoari buruz unean-unean ezartzen dituzten baldintza bereziak, zorrotzagoak badira.

Aipatutako gehiengoak, zorrotzagoak direlako, ez datoz bat Kapital Sozietateei buruzko Legearen 201. artikuluan jasotakoekin; izan ere, artikulua horren arabera, aurreko puntuetan adierazitako erabakiak gehiengo osoz hartuko dira, baldin eta kapitala % 50etik gorakoa bada eta, bigarren deialdian boto-eskubidearekin harpidetutako kapital sozialaren % 25 edo gehiago ordezkaturak duten akziodunak aurkezten badira, bertan edo ordezkaturata dagoen kapitalaren bi herenen aldeko botoarekin, % 50era iritsi gabe (IV puntua izan ezik, arauz gehiengo txikiago bati lotuta baitago).

B.3 Adierazi labur-labur txosten honetan aipatzen den ekitaldian batzorde nagusietan edo organo baliokideetan hartutako erabakiak eta botoen zer ehunekorekin hartu diren erabakiok.

- * 2023ko ekainaren 30ean Akziodunen Ohiko Batzar Orokor Unibertsala egin zen eta, besteak beste, erabaki hauek hartu ziren aho batez:
 - Sozietatearen urteko kontu indibidual eta bateratuak onartzea, emaitza aplikatzea eta 2022eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko kudeaketa soziala onartzea.
 - 2022ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko informazio ez-finantzarioaren egoera onartzea.
 - 2023ko ekitaldirako kontu-auditorearen berritzea onartzea.
 - Administrazio Kontseiluaren araudian egindako aldaketak arrazoitzea, Administrazio Kontseiluaren Batzorde delegatu berri bat eratzeko, Estrategia, Teknologia eta Berrikuntza Batzordea izenekoa, zeina barneko organo iraunkorra izango baita, informazio- eta kontsulta-izaerakoa, eta eginkizun betearazlerik gabea.
 - Marco Pineda Gómez jauna eta Eduardo Ruiz de Gordejuela Palacio jauna Kutxabaneko Administrazio Kontseiluko kide izendatzea, estatutuetan aurreikusitako eperako.
 - Kutxabanken Administrazio Kontseiluaren Ordainsarien Politikaren bertsio berriaren edukia onartzea, Kutxabank Taldearen Ordainsarien Politikaren Esparru Korporatiboaren barruan, bai eta horretan aurreikusitako urteko ordainsariaren gehieneko zenbatekoa ere.
 - Erakundearen arrisku-profilean eragin nabarmena duten pertsona jakin batzuen ordainsari osoaren osagai finko eta aldakorren arteko gehieneko ratioa onartzea.
- * 2023ko abenduaren 21ean Akziodunen Ezohiko Batzar Orokor Unibertsala egin zen eta, besteak beste, erabaki hauek hartu ziren aho batez:
 - María Eugenia Fernández-Villarán Ara andrea izendatzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, estatutuetan aurreikusitako eperako, Kutxabaneko Administrazio Kontseiluko kide gisa, María Victoria Mendia Lasa andrearen ordeiz, zeinak egun horretatik aurrera utzi baitzion Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kide izateari (eta, ondorioz, kontseilari koordinatzaile, Arriskua Kontrolatzeko Batzordeko kide, Auditoretza eta Betetze Batzordeko kide, Ordainsari Batzordeko kide eta Batzorde horretako presidente izateari).
 - 2023ko ekitaldiko konturako dibidendu bat banatzea, berrehun eta hogeita hamaika milioi ehun eta hogeita zazpi mila eurokoa (231.127.000 €).

B.4 Adieraz ezazu ekitaldian egindako batzorde orokorrean edo organo baliokideetan akziodunek onartu ez duten gai-zerrendako punturen bat egon den.

Akziodunek gai-zerrendako puntu guztiak onartu dituzte.

B.5 Adieraz ezazu gobernu korporatiboaren edukira eta webgunera sartzeko helbidea eta modua.

Helbide honetan, gobernu korporatiboaren inguruko informazioa aurki daiteke:

https://www.kutxabank.com/cs/Satellite/kutxabank/es/gobierno_corporativo_y_brpolitica_de_remuneraciones

Horrez gain, Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenak (2020ko ekitaldiari buruzkora arte) web-helbide honetan argitaratu dira:

https://www.kutxabank.com/cs/Satellite/kutxabank/es/informacion_para_brinversores/informacion_financiera_0/informe_anual_gobierno_corporativo

Ordutik aurrera, Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena Urteko Kontuei erantsitako Kudeaketa Txostenaren zati gisa argitaratu da, URL helbide honetan:

https://www.kutxabank.com/cs/Satellite/kutxabank/es/informacion_para_brinversores/informacion_financiera_0/informes_financieros_0

B.6 Adieraz ezazu erakundeak jaulkitako baloreen edukitzailen sindikatuek, halakorik balego, bilerarik egin duten, txosten honek aipatzen duen ekitaldian egindako bileren xedea zein izan den eta zer erabaki nagusi hartu diren.

Obligaziodunen sindikatuek eta antzekoek ez dute bilerarik egin 2023ko ekitaldian.

C. ERAKUNDEAREN ADMINISTRAZIO-EGITURA

C.1 ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA EDO ORGANOA

C.1.1 Zehaztu estatutuetan aurreikusitako administrazio-organoko kideen gehieneko eta gutxieneko kopurua:

GEHIENEZKO KONTSEILARI-KOPURUA	20
GUTXIENEO KONTSEILARI-KOPURUA	10
BATZORDEAK FINKATUTAKO KONTSEILARI-KOPURUA	16

Oharrak

C.1.2 Osatu administrazio-kontseiluko edo -organoko kideei eta haien izaerari buruzko taula hau:

ADMINISTRAZIO-KONTSEILUKO KONTSEILARIAK/KIDEAK

ADMINISTRAZIO-KONTSEILUKO KONTSEILARIAREN/KIDE	HALA BADAGOKIO, SOZIETATEAREN IZENA	IZENDAPENAREN AZKEN EGUNA	KATEGORIA
--	-------------------------------------	---------------------------	-----------

AREN IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA	DUEN PERTSONA FISIKOAREN ORDEZKARIA		
Anton Joseba Arriola Boneta jauna	e/a	2022/11/30	Betearazlea
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	e/a	2020/06/25	Jabarizkoa
Alexander Bidetxea Lartategi jauna	e/a	2020/06/25	Jabarizkoa
Josu de Ortuondo Larrea jauna	e/a	2020/06/25	Jabarizkoa
And. María Victoria Mendia Lasa andrea (*)	e/a	2020/06/25	Independentea
José Miguel Martín Herrera jauna	e/a	2021/10/01	Jabarizkoa
Eduardo Ruíz de Gordejuela Palacio jauna	e/a	2023/06/30	Betearazlea
María Manuela Escribano Riego andrea	e/a	2020/06/25	Independentea
Roxana Meda Inoriza andrea	e/a	2020/06/25	Independentea
Antonio Villar Vitores jauna	e/a	2020/06/25	Independentea
Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna	e/a	2021/10/01	Jabarizkoa
Rosa María Fátima Leal Sarasti andrea	e/a	2020/04/30	Jabarizkoa
Ricardo del Corte Elduayen jauna	e/a	2020/06/25	Jabarizkoa

Hipólito Suárez Gutiérrez jauna	e/a	2021/04/12	Independentea
Iñigo Calvo Sotomayor jauna	e/a	2022/11/30	Jabarizkoa
Marco Pineda Gómez jauna	e/a	2023/06/30	Independentea

Oharrak
<p>(*) Taulak 2023ko abenduaren 31n indarreko kargua zuten kontseilariak identifikatzen ditu.</p> <p>2023ko ekainaren 30ean, estatutuetan ezarritako epeaz, (i) Eduardo Ruiz de Gordejuela Palacio jauna Kutxabankeko Administrazio Kontseiluko kide eta kontseilari delegatu izendatu zen, García Lurueña jaunaren ordezkari, eta (ii) Marco Pineda Gómez jauna, berriz, Kutxabankeko Administrazio Kontseiluko kide.</p> <p>Txosten honen onarpen egunean, Maria Victoria Mendia Lasa andrearen ordezkari, María Eugenia Fernández-Villarán Ara andrea izendatu da Kutxabankeko Administrazio Kontseiluko kide, zeina 2023ko abenduaren 21eko Akziodunen Ezohiko Batzar Orokorra izendatu baitzuen, estatutuetan aurreikusitako eperako, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.</p>

C.1.3 Identifika itzazu, hala badagokio, erakundearen taldearen barruko beste erakunde batzuetan administratzaileak, administratzaileen ordezkariak edo zuzendariak diren administrazio-kontseiluko edo -organoko kideak:

ADMINISTRAZIO-KONTSEILUKO KIDEAREN IZENA EDO SOZIJETATEAREN IZENA	TALDEKO ERAKUNDEAREN SOZIJETATEAREN IZENA	TALDEKO ENTITATEAREN IFK	KARGUA
Anton Joseba Arriola Boneta jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS S AU	A95414207	BATZORDEAREN PRESIDENTEA
Anton Joseba Arriola Boneta jauna	KARTERA 1 SL	B48563506	BATZORDEAREN PRESIDENTEA
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS S AU	A95414207	KONTSEILARIA
Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	KARTERA 1 SL	B48563506	KONTSEILARIA

José Miguel Martín Herrera jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS S AU	A95414207	KONTSEILARIA
José Miguel Martín Herrera jauna	KARTERA 1 SL	B48563506	KONTSEILARIA
Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna	KARTERA 1 SL	B48563506	KONTSEILARIA
Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS S AU	A95414207	KONTSEILARIA
Rosa María Fátima Leal Sarasti andrea	KARTERA 1 SL	B48563506	KONTSEILARIA
Rosa María Fátima Leal Sarasti andrea	KUTXABANK EMPRÉSTITOS S AU	A95414207	KONTSEILARIA
Hipólito Suárez Gutiérrez jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS S AU	A95414207	KONTSEILARIA
Hipólito Suárez Gutiérrez jauna	KARTERA 1 SL	B48563506	KONTSEILARIA
Alexander Bidetxea Lartategi jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS S AU	A95414207	KONTSEILARIA
Alexander Bidetxea Lartategi jauna	KARTERA 1 SL	B48563506	KONTSEILARIA
Eduardo Ruíz de Gordejuela Palacio jauna	FINECO SOCIEDAD DE VALORES SA	A48149702	BATZORDEAREN PRESIDENTEA
Eduardo Ruíz de Gordejuela Palacio jauna	KUTXABANK EMPRÉSTITOS S AU	A95414207	KONTSEILARIA
Eduardo Ruíz de Gordejuela Palacio jauna	KARTERA 1 SL	B48563506	KONTSEILARIA
Eduardo Ruíz de Gordejuela Palacio jauna	CAJASUR BANCO SAU	A95622841	KONTSEILARIA

Oharrak

Taulak 2023ko abenduaren 31n indarreko kargua zuten kontseilariak identifikatzen ditu.

Javier García Lurueña jauna kontseilari delegatua izan zen 2023ko ekainaren 30era arte, eta Taldeko erakunde hauen Administrazio Kontseiluko kide:

- KARTERA 1 SL
- KUTXABANK EMPRÉSTITOS SAU
- CAJASUR BANCO SAU

C.1.4 Osatu taula hau Administrazio Kontseilua eta haren batzordeak osatzen dituzten kontseilarien kopuruari eta azken lau ekitaldietako bilakaerari buruzko informazioarekin:

Administrazio Kontseiluko kontseilarien kopurua

T EKITALDIA		T-1 EKITALDIA		T-2 EKITALDIA		T-3 EKITALDIA	
ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%
4	25	4	26,6	4	26,6	4	26,6

(T-1, T-2 eta T-3 ekitaldiak 15 kontseilariaren gainean kalkulatu dira, hiru ekitaldien amaieran Administrazio Kontseiluan lanpostu huts bat zegoelako).

Auditoretza eta Betetze Batzordea

T EKITALDIA		T-1 EKITALDIA		T-2 EKITALDIA		T-3 EKITALDIA	
ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%
4	80	4	100	4	80	3	75

(T-1 ekitaldia eta T-3 ekitaldia 4 kideren gainean kalkulatu dira, T-1 eta T-3 ekitaldien itxieran plaza huts bat zegoelako).

Izendapenen Batzordea

T EKITALDIA		T-1 EKITALDIA		T-2 EKITALDIA		T-3 EKITALDIA	
ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%
1	25	1	25	1	25	1	33,33

(T-3 ekitaldia 3 kideren gainean kalkulatu da, T-3 ekitaldiaren itxieran lanpostu huts bat zegoelako)

Batzorde Betearazlea

T EKITALDIA		T-1 EKITALDIA		T-2 EKITALDIA		T-3 EKITALDIA	
ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%
1	12,5	1	12,5	1	14,28	1	14,28

(T eta T-1 ekitaldiak 8 kideren gainean kalkulatu dira, eta T-2 eta T-3 ekitaldiak, berriz, 7 kideren gainean; izan ere, T-2 eta T-3 ekitaldien amaieran lanpostu huts bat zegoen).

Ordainsarien Batzordea

T EKITALDIA		T-1 EKITALDIA		T-2 EKITALDIA		T-3 EKITALDIA	
ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%
2	40	2	40	2	40	1	25

(T, T1 eta T-2 ekitaldiak 5 kideren gainean kalkulatu dira, T-3 ekitaldia 4 kideren gainean, hori baitzen egun horietan Batzordeak zuen kide kopurua).

Arriskuen Kontrolerako Batzordea

T EKITALDIA		T-1 EKITALDIA		T-2 EKITALDIA		T-3 EKITALDIA	
ZENBAKI	%	ZENBAKI	%	ZENBAKI	%	ZENBAKI	%
A		A		A		A	
3	42,8	3	42,8	3	37,5	1	14,2
	6		6				8

(T-1 eta T-2 ekitaldietan, 9 kidek osatzen zuten Batzordea. Hala ere, ehunekoak 7 eta 8 kideren gainean kalkulaturik daude, hurrenez hurren, T-1 ekitaldia ixteko datan bi lanpostu huts zeudelako eta T-2 ekitaldia ixteko datan lanpostu huts bat zegoelako. T eta T-3 ekitaldietan, ehunekoa 7 kideren gainean kalkulatu da, hori baitzen egun horietan Batzordeko kide zen kopurua).

Estrategia, Teknologia eta Berrikuntzako Batzordea

T EKITALDIA		T-1 EKITALDIA		T-2 EKITALDIA		T-3 EKITALDIA	
ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%	ZENBAKIA	%
0	0	E/A	E/A	E/A	E/A	E/A	E/A

Oharrak

Estrategia, Teknologia eta Berrikuntza Batzordea 2023ko otsailaren 23an eratu zen eta, horregatik, T ekitaldiari dagozkion datuen berri baino ez da ematen.

C.1.5 Adieraz ezazu sozietateak dibertsitate-politikak dituen enpresaren administrazio, zuzendaritza eta ikuskapen-organoei dagokienez, esaterako, gai hauen inguruan: adina, generoa, desgaitasuna, prestakuntza eta esperientzia profesionalak. Erakunde txiki eta ertainek, Kontu Auditoretzaren Legean jasotako definizioaren arabera, genero-dibertsitateari buruz ezarrita duten politikaren berri eman beharko dute, gutxienez.

BAI	EZ	POLITIKA PARTZIALAK
		X

Erantzuna baiezkua bada, deskribatu dibertsitate-politika hori, helburuak, neurriak, aplikatzeko modua eta ekitaldian izandako emaitzak. Administrazio organoak eta izendapenen eta ordainketen batzordeak kontseilari edo administratzaileen presentzia orekatua eta askotarikoa lortzeko hartutako neurri zehatzak ere adierazi beharko dira.

Sozietateak dibertsitate-politika bat aplikatzen ez badu, azaldu zergatik ez duen aplikatzen.

Administrazio Kontseiluak, 2015eko otsailaren 26ko bilkuran, Izendapenen Batzordeak aldeko txostena eman ondoren, Kutxabaneko Administrazio Kontseiluan ordezkari txikiena duen sexuarentzako ordezkari-helburuari buruzko politika onartu zuen. Horren bidez, Kutxabanek Administrazio Kontseiluaren osan dibertsitateak duen balioa aitortzen du, bai eta hainbat ikuspuntu, ikuspegi, gaitasun, esperientzia eta ibilbide profesional emateko gai diren kontseilariak izatearen garrantzia ere, bai Kontseiluaren barruko eztabaidetan, bai erabakiak hartzeko prozesuetan. Horrek, azken batean, Administrazio Kontseiluaren funtzionamendua

eta hari dagozkion jarduerak eta erabakiak hobetzea dakar. Politika hori 2022ko martxoaren 31n eguneratu zen.

Politika hasieran onartu zenetik, Kutxabankek helburu hau ezarri zuen epe ertain/luzean, Administrazio Kontseiluaren bilakaeraren eta lanpostu hutsen existentziaren arabera: gizonen eta emakumeen artean oreka handiagoa lortzea Administrazio Kontseiluan, hau da, une bakoitzean eta inguruabarren arabera Administrazio Kontseiluan ordezkari txikiena duen sexuaren ehuneko handitzea. Helburu hori, aplikatu beharreko lege-aurreikuspenak betetzeaz gain, bat zetorren Entitatearen Administrazio Kontseiluak bere baitan dibertsitatea sustatzeko hartutako konpromisoarekin.

Aipatutako politikaren bertsio berriak konpromiso hori zehazten du, eta Kutxabanken helburu gisa ezartzen du ordezkari txikiena duen sexua gutxienez Kontseiluko kideen % 31,25era iristea 2030ean.

Ordezkaritza-helburu hori lortzeko, Izendapenen Batzordeak orientabide hauek hartuko ditu kontuan lanpostu huts berriak betetzeko:

- Kutxabankek nahita bilatuko du, eta hautagai izan daitezkeen artean sartuko ditu, bilatutako profil profesionala betetzen duten ordezkari gutxieneko sexuko pertsonak, hautagaien artean ordezkari txikiena duten sexuko pertsonak sartzeko neurriak hartu ondoren hori ezinezkoa izan dela egiaztatu denean izan ezik; halakoetan, hori eragotzi duten arrazoiak azaldu beharko dira.
- Jabarizko hautagaiak aukeratzean, formalki gogoraraziko zaizkie akziodunei Erakundeak dibertsitatearen arloan hartutako konpromisoak eta, zehazki, politikan jasotako helburuak.
- Egokitasuna ebaluatzeko prozedura garatzean, «Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari nagusien edo parekoen, barne kontroleko eginkizunen arduradunen, finantza zuzendaritzako arduradunaren eta Kutxabankeko beste funtsezko postu batzuen egokitasuna ebaluatzeko politikaren» aurreikuspenekin bat etorritik (aurrerantzean, «Egokitasuna Ebaluatzeko Politika»), Batzordeak ziurtatuko du, orain arte egina izan duen bezala, ez duela ordezkari txikiena duen sexuko hautagaien hautaketa oztopatuko duen joera inpliziturik.
- Ebaluazio profesionaleko berdintasun-egoera baten aurrean, hau da, aintzat hartuta zintzotasun, ezagutza eta esperientzia irizpideak eta gobernu ona, sexu desberdineko bi hautagaien artean lehentasuna emango zaio ordezkari txikiena duen sexuko hautagaiari, oreka handiagoa lortzeko helburua lortu arte.
- Izendapenen Batzordeak Administrazio Kontseiluaren inguruan urtero egiten duen berrikuspenaren esparruan, ezarritako xedeak eta helburuak betetzeko aurrerapenaren berri emango da.
- Kutxabankek Sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiari jakinaraziko dio politika hori, dagozkion ondorioetarako.

Era berean, oro har ezartzen da Izendapen Batzordeak Administrazio Kontseiluari informazioa eman behar diola bere eskumeneko gaien barruan Kutxabanki eragin diezaioketen genero-dibertsitateko gaien buruz.

2023ko ekitaldian, Izendapenen Batzordeak kontuan hartu ditu hutsik dauden lanpostuak betetzeko politikaren bertsio berriari jasotako orientabideak; nolahi ere,

neurri horiek ez dute ekarri, oraingoz, Administrazio Kontseiluan emakumezko kontseilarien ehunekoa handitzerik.

Horrez gain, Izendapenen Batzordeak urtero ebaluatzen du Administrazio Kontseilu osoaren ezagutzen, gaitasunaren, dibertsitatearen (generoa eta adina) eta esperientziaren oreka, 10/2014 Legeak, ekainaren 26koak, kreditu-entitateen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoak bere 24.1 artikuluan, lege hori garatzen duen 84/2015 Errege Dekretuak, otsailaren 13koak, bere 38.1.b) artikuluan, eta Administrazio Kontseiluaren araudiaren 17.4.j) artikuluan eta Izendapenen Batzordearen araudiaren 3.j) artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, kontseilari izateko proposatutako hautagaiak izendatzeak Kutxabankeko Administrazio Kontseiluaren ezagutzen, gaitasunen, dibertsitatearen (generoa, adina, prestakuntza, nazioarteko esperientzia, taldeen kudeaketako esperientzia etab.) eta esperientziaren orekan sor dezakeen inpaktua ebaluatzen du.

Zehazki, 2023ko ekitaldian, Izendapenen Batzordeak, 2023ko urtarrilaren 25ean egindako bileran, Administrazio Kontseilu osoaren urteko ebaluazioa egin zuen (2022ko ekitaldiari buruzkoa), eta aho batez ondorioztatu zuen Kutxabankeko Administrazio Kontseilu osoaren ezagutzen, gaitasunen, dibertsitatearen eta esperientziaren oreka egokia zela.

Izendapenen Batzordeak, 2024ko urtarrilaren 24an egindako bileran, Administrazio Kontseilu osoaren urteko ebaluazioa egin zuen (2023ko ekitaldiari buruzkoa), eta aho batez ondorioztatu zuen Kutxabankeko Administrazio Kontseilu osoaren ezagutzen, gaitasunen, dibertsitatearen eta esperientziaren oreka egokia zela.

Enplegatuen taldeari dagokionez, Zuzendaritza barne, adierazi behar da Kutxabankek hautaketa, sustapen eta garapen profesionalerako eta ordainsarietarako politiketan barne hartzen dituela dibertsitatea errespetatzea, aukera-berdintasuna, genero, arraza, adin edo beste inguruabar batzuentzako diskriminaziorik eza, eta enplegatuen artean ordainsari-berdintasuna egotea lan beragatik edo balio bereko lanagatik. Era berean, Kutxabankek Berdintasun Plan bat du, bere langileen ibilbide profesionalaren garapenari dagokionez genero-berdintasuna bermatzeko estrategia- eta jarduera-ildo nagusiak jasotzen dituena, eta, besteak beste, berdintasun-egoeraren diagnostikoek adierazten dutenaren arabera emakumeen ordezkari txikiagoa atzematen den maila profesionali dagokienez, desoreka hori ezabatzeko aukera ematen duten neurriak hartzea sustatzen du, ahal dela, ordezkari txikiena duen kolektiboa erantzukizun handiagoko lanpostuetan sartzea sustatuz, beharrezkoak diren trebetasunak eta gaitasunak garatuz, besteak beste.

C.1.6 Bete ezazu administrazio organoko kontseilari edo kidei ekitaldian zehar sortutako ordainsari agregatuari buruzko taula hau:

ORDAINSARIAREN KONTZEPTUA	BANAKAKOA (MILAKA EUROTAN)	TALDEKOA (MILAKA EUROTAN)
ORDAINSARI FINKOA	1.215	
ERRENTA ALDAKORRA	177	
DIETAK	984	
BESTE ORDAINSARI BATZUK	0	
GUZTIRA	2.376	

Oharrak
Administrazio Kontseiluko kideen 2023ko ordainsariei buruzko informazioak barne hartzen du, urte anitzeko ordainsari aldakor gisa, sortzapen-epea amaitu ondoren sor litekeen eta ekitaldi horri egotz dakioken gehieneko kopurua, 2022-2024 Plan Estrategikoari lotutako helburu guztiak ahalik eta hobekien betetzen badira.

C.1.7 Identifika itzazu administrazio organoko kontseilari edo kide exekutiboak ez diren goi-zuzendaritzako kideak, eta adieraz ezazu ekitaldian zehar haien alde sortutako ordainsari osoa:

Izena edo sozietatearen izena	kargua
Fernando Martínez-Jorcano Eguiluz jauna	Komunikabideetako zuzendari nagusi korporatiboa
Fernando María Irigoyen Zuazola jauna	Arriskuen zuzendari nagusi korporatiboa
Aitor Aranburu Olabarria jauna	Txikizkako Negozioko zuzendari nagusia
Fernando del Hoyo Gil jauna	Handizkako Negozioko zuzendari nagusia
José Antonio de Leniz Aspiazua jauna	Estrategiako zuzendari nagusia
Joseba Barrena Llorente jauna	Zuzendari nagusia
Iker Arteagabeitia Perea jauna	Zuzendari finantzarioa
Ignacio Martín-Muñío Sáinz jauna	Merkatuen eta Diruzaintzaren zuzendaria
Ander Ezkurra Garai jauna	Langileen zuzendaria
Jose Luis Bastarrica Escala jauna	Partaidetuen zuzendaria
Ainhoa Arruabarrena Elorza andrea	Bezeroaren Esperientziako zuzendaria
M. Amaya Ayastuy Umerez andrea	Digitalizazioko zuzendaria
Sabin J. Izagirre Urkiola jauna	CEOaren kabineteko zuzendaria

Goi-zuzendaritzako ordainsariak guztira (milaka eurotan)	4.301
--	-------

Oharrak
Txosten hau egiteko, eta urteko kontuen txostenean aurkeztutako xehetasunekin bezalaxe, atal honetan 2023ko itxieran goi-zuzendaritzatzat hartutako pertsonen taldea jasotzen da.
Goi Zuzendaritzako aipatutako langileen 2023ko ordainsariei buruzko informazioak barne hartzen du, urte anitzeko ordainsari aldakor gisa, sortzapen-epea amaitu ondoren

ekitaldi horri egotz dakioken gehieneko zenbatekoa, baldin eta 2022-2024 Plan Estrategikoarekin lotutako helburu guztiak ahalik eta hobekien betetzen badira.

C.1.8 Adieraz ezazu kontseiluaren estatutuetan edo araudian administrazio organoko kontseilarientzat edo kideentzat agintaldi mugatua ezartzen den:

BAI	EZ
X	

Sozietatearen estatutuen 26. artikulua ezartzen duenez, kontseilariak lau (4) urterako beteko dute beren kargua, eta Batzar Orokorrak berriro aukeratu ahal izango ditu iraupen bereko aldiatarako, komenigarritzat jotzen duen guztietan.

Agintaldi bakoitzeko gehieneko urte-kopurua	4
---	---

Oharrak

C.1.9 Adierazi administrazio kontseiluari edo organoari formulatzeko aurkezten zaizkion urteko kontu indibidual eta bateratuak aldeztu aurretik ziurtatuta dauden:

BAI	EZ
	x

Identifikatu, hala badagokio, erakundearen urteko kontu indibidual eta bateratuak egiaztatu dituzten pertsonak, administrazio-kontseiluak edo -organoak formulatzeko:

IFZ	Izena edo sozietatearen izena	kargua

Oharrak
Auditoretza eta Betetze Batzordearen eginkizunen artean dago araututako finantza informazioa egiteko eta aurkezteko prozesua ikuskatzea eta Administrazio Kontseiluari aldeztu aurretik informazioa ematea, besteak beste, Kutxabankek aldira argitaratu behar duen finantza informazioari buruz.

C.1.10 Adierazi, halakorik balego, administrazio kontseiluak edo organoak zer mekanismo ezarri dituen, hark formulatutako kontu indibidual eta bateratuak batzorde orokorrean edo organo baliokidean auditoretza txostenean salbuespenekin aurkez ez daitezkeen.

Finantza Zuzendaritzak eta Barne Auditoretzako Zuzendaritzak etengabeko harremana dute auditoreekin, kontabilitate-araudia zorrotz aplikatzeko; era berean, Auditoretza eta Betetze Batzordeak, bere eginkizunen artean, araututako finantza-informazioa egiteko

eta aurkezteko prozesua ikuskatu eta kanpo-auditorearekin harreman egokiak ezartzeko betebeharra du, kontu-auditoretza egiteko prozesuarekin lotutako gaiei buruzko informazioa jasotze aldera.

C.1.11 Administrazio Kontseiluko idazkaria kontseilaria al da?

BAI	EZ
	X

Idazkaria kontseilari ez bada, osatu taula hau:

Idazkariaren izena edo sozietatearen izena	Ordezkarria
Irantzu Irastorza Martínez andrea	

Oharrak

C.1.12 Adieraz itzazu, halakorik balego, auditorearen, finantza analisten, inbertsio bankuen eta kalifikazio agentzien independentzia babesteko ezarritako mekanismoak, legezko aurreikuspenak praktikan nola ezarri diren barne.

Indarrean dagoen araudian jasotakoaren arabera (22/2015 Legea, uztailaren 20koa, Kontu Auditoretzarena, eta Parlamentuaren eta Kontseiluaren 537/2014 Erregelamendua, 2014ko apirilaren 16koa, interes publikoko erakundeen legezko auditoretzarako berariazko betekizunei buruzkoa), Auditoretza eta Betetze Batzordeak Taldeko kontu-auditorearen independentzia zaintzen du. Horretarako, Batzorde horren eskumenetako bat kanpo-auditoreekin harremanak izatea da, haien independentzia arriskuan jar dezaketen gaiei eta kontu-auditoretzaren garapen-prozesuarekin lotutako beste edozein gairi buruzko informazioa jaso eta Batzordeak aztertzeke.

Nolanahi ere, kontu-auditoreak urtero bidaltzen dio idatziz batzorde horri Erakundearekiko eta harekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden sozietateekiko duen independentziaren baieztapena. Era berean, aipatutako sozietateei emandako edozein motatako zerbitzu gehigarrien eta aipatutako kanpo-auditoreak edo hari lotutako pertsonak edo erakundeek jasotako zerbitzu-sarien inguruko informazioa jasotzen du, kontu-auditoretzari buruzko legerian eta auditoretzako arau teknikoetan xedatutakoaren arabera.

Kontu-auditoretzaren txostena egin aurretik, Auditoretza eta Betetze Batzordeak txosten bat bidaltzen dio urtero Administrazio Kontseiluari, kontu-auditoreen independentziari buruz duen iritzia adierazteko, eta kontu-auditoretzaz gain emandako zerbitzuek haren independentzian izan dezaketen eraginari buruzko iritzia emateko.

Ildo horretan, 2023ko ekitaldian, Auditoretza eta Betetze Batzordeak, Auditoretza eta Betetze Batzordearen araudiaren 3.6 artikuluan xedatutakoa betez, zeinaren arabera Batzordearen betebeharra baita «urtero, kontu-auditoretzaren txostena egin aurretik, txosten bat egitea, kontu-auditoreen edo auditoretza-sozietateen independentzia arriskuan dagoen ala ez adierazteko», aho batez erabaki zuen, 2023ko otsailaren 21eko bileran, 2022ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiari dagozkion Kutxabanken urteko kontuak formulatu aurretik, Kutxabanken kontu-auditorearen independentziari buruzko txostena egitea, eta, besteak beste, honako alderdi hauek adieraztea:

- (i) Dagozkion harremanak ezarri dira kontu-auditorearekin, haien independentzia arriskuan jar dezaketen gaiei buruzko informazioa jasotzeko, Auditoretza eta Betetze Batzordeak azter ditzan, bai eta kontu-auditoretza egiteko prozesuarekin

Orrialdea:

lotutako beste edozein gairi buruz ere, eta kontu-auditoretzaren legerian eta auditoretzako arau teknikoetan aurreikusitako beste komunikazio guztiak ere egin dira.

- (ii) Kontu-auditorearekin kontratatutako zerbitzuek araudi aplikagarrian jasotako independentzia-baldintzak betetzen dituzte.
- (iii) Kontu-auditoretzak idatziz ziurtatu du Kutxabankekiko independentea dela, Kontu Auditoretzaren Legeak arlo horretan ezarritako eskakizunen arabera. Batzordearen iritziz, ez dago kanpo-auditorearen independentzia zalantzan jartzen duen arrazoi objektiborik.

Araudiak ezartzen duenez, Auditoretza Batzordeak baimendu behar ditu auditoreak (edo auditoretza-enpresak) auditoretzatik kanpo eman ditzakeen zerbitzuak, kontu-auditorearen nahitaezko independentziari kalterik egiten ez diotela ziurtatzeko. Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Institutuari (ICAC) egindako 1. kontsultaren arabera, zeina BOICACen argitaratu baitzen, 109. zk. gisa, eman beharreko zerbitzu bakoitzerako, kontrolatzen dituen eta auditore horrek ikuskatu dituen Interes Publikoko Erakundearen auditoretza-batzorde guztien baimena behar da. Gure kasuan, Auditoretza eta Betetze Batzordeak Kutxabanki edo haren Taldeko beste edozein sozietateri kontu-auditoretzaz gain emandako beste zerbitzuak aztertu eta baimentzen ditu. Zehazki, araudiak bi muga ezartzen ditu: lehenik eta behin, 537/2014 EB Erregelamenduan debekatzen diren zerbitzuen zerrendan ez dauden zerbitzuak izan behar dute. Horrez gain, Batzordeak independentziaren aurka egon daitezkeen mehatxuak ebaluatu behar ditu, bai eta, hala badagokio, ezarritako babes-neurriak ere. Bigarrenik, muga kuantitatibo bat ezartzen zaio sozietate auditoreak (ez haren sareko gainerako kideek) auditatutako erakundeari, jatorrizko enpresari edo kontrolatzen dituen enpresei emandako auditoriaz bestelako zerbitzuen kostuari. Kostu horrek ezin du gainditu Taldearen auditoretza-ordainsarien % 70 (azken 3 ekitaldietako batez bestekoaren arabera kalkulatuta). Muga horiek betetzen direla ziurtatzeko, Auditoretza eta Betetze Batzordeak zerbitzuak kontratatuzko prozedura bat du Taldeko kontu-auditorearekin; gainera, ekitaldian Taldeko kontu-auditoretzako enpresei Kutxabank Taldearentzat egindako auditoretza- eta aholkularitza-lan profesionalengatik egindako ordainketen eta aurreikusitako gastuen jarraipena egiten du.

Kutxabankekiko Auditoretza eta Betetze Batzordeak txosten hau berrikusi duen egunean, eta Administrazio Kontseiluak onartu aurretik, Batzorde horrek txosten bat egin du Kutxabankekiko kontu-auditorearen independentziari buruz, 2023ko urteko kontuei dagokienez, eta adierazi du ez dagoela arrazoi objektiborik kontu-auditorearen independentzia zalantzan jartzeko.

C.2 ADMINISTRAZIO KONTSEILU EDO ORGANOAREN BATZORDEAK

C.2.1 Zerrendatu administrazio organoak:

Organoaren izena	Kide-kopurua
Administrazio Kontseilua	16
Batzorde Betearazlea	8

Arriskuen Kontrolerako Batzordea	7 (*)
Izendapenen Batzordea	4
Ordainsarien Batzordea	5
Auditoretza eta Betetze Batzordea	5
Estrategia, Teknologia eta Berrikuntzako Batzordea	6

Oharrak

(*) Administrazio Kontseiluak, 2023ko otsailaren 23an egindako bileran, data horretan Kutxabankeko Arriskua Kontrolatzeko Batzordean hutsik zeuden bi lanpostuak amortizatzea erabaki zuen; ondorioz, Batzordea zazpi kidek osatuko zuten.

C.2.2 Zehaztu administrazio kontseiluko edo organoko batzorde guztiak, bertako kideak eta kontseilari betearazle, jabarizko, independente eta kanpoko beste batzuen proportzioa (kapital-sozietatearen forma juridikoa ez duten erakundeek ez dute kontseilariaren kategoria beteko dagokion laukian, eta testu atalean kontseilari bakoitzaren kategoria azalduko dute, bakoitzaren araubide juridikoaren arabera, eta horiek Auditoretza eta Betetze Batzordea eta Izendapenen eta Ordainsarien Batzordea osatzeko baldintzak nola betetzen dituzten azalduko dute):

BATZORDE BETEARAZLEA

IFZ/IFK	Izena edo sozietatearen izena	Kargua	Kategoria
30585685-D	Anton Joseba Arriola Boneta jauna	PRESIDENTEA	KONTSEILARI BETEARAZLEA
14599779-T	Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	KIDEA	JABARIZKO KONTSEILARIA
15864407-L	José Miguel Martín Herrera jauna	KIDEA	JABARIZKO KONTSEILARIA
14576670-Y	Eduardo Ruíz de Gordejuela Palacio jauna	KIDEA	KONTSEILARI BETEARAZLEA
18602688-N	Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna	KIDEA	JABARIZKO KONTSEILARIA

15906309-S	Rosa María Fátima Leal Sarasti andrea	KIDEA	JABARIZKO KONTSEILARIA
30693259-N	Alexander Bidetxea Lartategi jauna	KIDEA	JABARIZKO KONTSEILARIA
30609854-M	Hipólito Suárez Gutiérrez jauna	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA

Kontseilari betearazleen %	% 25
Jabarizko kontseilarien %	% 62,50
Kontseilari independenteen %	% 12,50
Kanpoko beste batzuen %	% 0
Bileren kopurua	43

Oharrak
2023ko ekainaren 30ean, estatutuetan ezarritako epeaz, Eduardo Ruiz de Gordejuela Palacio jauna Administrazio Kontseiluko kide eta Erakundeko kontseilari delegatu izendatu zen (eta, ondorioz, Batzorde Betearazleko berezko kide), García Lurueña jaunaren ordeaz.

Azaldu Batzorde honek dituen eginkizunak, eta deskribatu Batzordearen antolaketaren eta funtzionamenduaren prozedurak eta arauak. Funtzio horietako bakoitzerako, adierazi zein diren ekitaldian zehar egindako jardura garrantzitsuenak, eta adierazi nola bete dituen praktikan legearen, estatutuen edo sozietatearen beste akordio batzuen arabera dagozkion eginkizunak.

<p>Administrazio Kontseiluaren araudiaren arabera, Batzorde Betearazlea gutxienez bost (5) eta gehienez hamar (10) kontseilarik osatuko dute.</p> <p>Sozietatearen estatutuetan eta Administrazio Kontseiluaren erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera, Batzorde Betearazlea arduratuko da Administrazio Kontseiluak eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak egiteaz edo gauzatzeaz.</p> <p>Behin eta berriz, (i) Batzorde Betearazleak Kutxabanken zuzendaritzari eskuordetutako eskuduntzen esparrua gainditzen duten finantzaketa-eragiketak onesten dituzte; (ii) zuzendaritzari Kutxabanken merkatuen bilakaerari eta diruzaintza egoerari buruzko informazioa ematen zaio eta, hala badagokio, dagozkion erabakiak hartzen dira likideziaren kudeaketari buruz; (iii) higiezinaren gainean onartutako eragiketei buruzko informazioa ematen zaio, eta onespena eskatzen zaio Kutxabanken zuzendaritzari eskuordetutako eskuduntzen esparrua gainditzen duten higiezinaren salmenta- edo errenta-eragiketei dagokienez; (iv) partaidetuen arloak aurkeztutako eragiketei buruzko informazioa ematen da eta onespena eskatzen da (partaidetzako sozietateetako edo beste bide batzuetako inbertsioak edo desinbertsioak egitea, gobernu-organoetako administratzaileak/ordezkaririk izendatzea/kargutik kentzea, batzar nagusietara edo erabaki-organo baliokideetara</p>
--

joateko eskuordetzea, eta partaidetzako sozietateetan arrisku-estaldurak kontratatzea), eta (v) haren arrazoibidearen mende jartzen da eta, hala badagokio, dagozkion argibideak ematen dira egin diren eta Kutxabanken jarduerarako interes berezia izan dezaketen arauketa-berrikuntzei buruz.

Hori guztia, eskuordetutako eginkizunak betetzean Batzordeari aurkezten zaizkion galdera osagarriak alde batera utzita.

IKUSKARITZA ETA BETETZE BATZORDEA

IFZ/IFK	Izena edo sozietatearen izena	Kargua	Kategoria
14955722-H	Roxana Meda Inoriza andrea	PRESIDENTEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
15906309-S	Rosa María Fátima Leal Sarasti andrea	IDAZKARIA	JABARIZKO KONTSEILARIA
14935664-Q	María Victoria Mendia Lasa andrea (*)	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
22714905-J	María Manuela Escribano Riego andrea	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
78894888-N	Iñigo Calvo Sotomayor jauna	KIDEA	JABARIZKO KONTSEILARIA

Kontseilari betearazleen %	% 0
Jabarizko kontseilarien %	% 40
Kontseilari independenteen %	% 60
Kanpoko beste batzuen %	% 0
Bileren kopurua	12

Oharrak

(*) Taulak 2023ko abenduaren 31n indarreko kargua zuten kontseilariak identifikatzen ditu.

2023ko otsailaren 23an, Iñigo Calvo Sotomayor jauna Kutxabankeko Auditoretza eta Betetze Batzordeko kide izendatu zuten, Zatón jaunak 2022ko azaroaren 30ean Kutxabankeko kontseilari izateari utzi ondoren Batzordean hutsik zegoen lanpostua betetzeko.

Bestalde, Administrazio Kontseiluak, 2023ko azaroaren 30eko bilkuran, María Victoria Mendia Lasa andrea ordezkatzera erabaki zuen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta haren ordezkariak María Eguenia Fernández-Villarán Ara jartzea, Kutxabanken Auditoretza eta Betetze Batzordeko kide gisa. Erabaki hori lortzeko, 2023ko abendurako aurreikusitako Akziodunen Batzar Nagusiak Fernández-Villarán

Orrialdea: _____

andrea izendatu zuen Kutxabankeko Administrazio Kontseiluko kide, Mendia andrearen ordez (kontseilari independente izateari utzi ziolako, indarrean dagoen araudian aurreikusitako 12 urteko epea igaro ondoren).

2023ko abenduaren 21ean, Akziodunen Ezohiko Batzar Nagusiak María Eugenia Fernández-Villarán andrea izendatu zuen Erakundeko kontseilari, estatutuetan aurreikusitako epeaz, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Beraz, txosten honen onarpen egunean, María Victoria Mendia Lasa andrearen ordez, María Eugenia Fernández-Villarán Ara andrea ezarri dute Kutxabankeko Auditoretza eta Betetze Batzordeko kide gisa.

Azaldu Batzorde honek dituen eginkizunak, barne hartuta, hala badagokio, legez jasotako gehigarriak, eta deskribatu Batzordearen antolaketaren eta funtzionamenduaren prozedurak eta arauak. Funtzio horietako bakoitzerako, adierazi zein diren ekitaldian zehar egindako jarduera garrantzitsuenak, eta adierazi nola bete diren praktikan bai legean, bai estatutuetan edo bestelako akordio sozialetan esleitutako eginkizun guztiak.

Sozietatearen estatutuen eta Administrazio Kontseiluaren erregelamenduaren arabera, Administrazio Kontseiluak Auditoretza eta Betetze Batzorde bat izendatuko du bere baitan, eta gutxienez hiru eta gehienez bost kidez osatuta egongo da.

Auditoretza eta Betetze Batzordeak, aplikatu beharreko legerian jasotako funtzioez eta, hala badagokio, Gobernu Onaren Kodearen gomendioetan ezarritakoez gain, hauek ditu esleitura: (i) arauak betetzeko funtzioaren independentzia eta eraginkortasuna zaintzea, bai eta funtzio horrek bere lana egiteko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak dituela ere; (ii) arauak betetzeko funtzioaren estatutua eta arauak betetzeko eremuak arautzen dituzten politikak aztertu, berrikusi eta, hala badagokio, alda daitezzen proposatzea; eta (iii) araudia betetzeko arloaren urteko jarduera-plana onartzea.

Zehazki, Auditoretza eta Betetze Batzordeak 2023ko ekitaldian jorratutako gaiak dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira, besteak beste: (i) finantza informazioaren eta informazio ez-finantzarioaren esparruan eta barne kontrolari lotutako mekanismoetan: Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena, Informazio Finantzarioaren eta ez-Finantzararioaren Barne Kontroleko Sistemen ikuskapen-txostenak, Bankuen Gardentasunari buruzko Kontrol Txostenak, Mifid, publizitate-jarduera, kontsumitzailearen babesa, Kanpora Ateratzeko Politika, Jokabide Korporatiboaren Unitatea, etab., Kudeaketa Txostena eta Urteko Kontuak (banakakoak eta bateratuak) eta Kutxabank Taldearen Bitarteko Egoera Orri Finantzario Laburtuen Txostena (Kontsolidatuak), Informazio Ez Finantzarioaren Egoeraren (EINF) prestakuntzaren egoera; (ii) lotutako alderdiekin egindako eragiketen analisia; (iii) arriskuen kudeaketa eta kontrola (nahiz eta funtzio hori funtsean Arriskua Kontrolatzeko Batzordean dagoen, Auditoretza eta Betetze Batzordeak gai horrekin lotutako zenbait gairi buruz arrazoitu edo aldeko txostena eman zuen, esaterako, IFRS9 ereduak egokitzeari buruz); (iv) barne-auditoretzaren eremuan: auditoretza- eta aholkularitza-lanei buruzko hiru hilean behingo txostenak, kapitala eta likidezia ebaluatzeko prozesu-txostenak, *Recovery Plan*, Taldearen IPAC bezeroen aktiboak babesteari buruzko txostenak, Barne Ikuskaritzako Funtzioaren reportinga, IRB ereduaren auditoretza-txostenen sei hilean behingo laburpenaren azterketa, Taldearen laugarren Kalitatearen Barne Ebaluazioaren (EIC) ondorioak, txikizkako bulegoen auditoretza-lanaren ondorioen txosten berezia, Kutxabank Taldeko Barne Ikuskaritzako arduradunen aurkezpenak, Zuhurtziazko Garrantzia duen Informazioaren dokumentuaren bertsio berriaren berrikuspenari buruzko txostena; (v) kanpo-auditoreari dagokionez: kontu-auditorearen independentziari buruzko aldeko iritzia, Taldeko sozietate jakin batzuetako auditoreak izendatzeko

proposamena, 2022ko ekitaldiko urteko kontuen auditoretza-txostenaren txosten osagarriak eta kanpo-auditorearekin beste zerbitzu bat (auditoretzatik kanpoko) kontratatzeko baimena; (vi) araudia betetzearen arloan: kapital-zuriketari aurrea hartzearen eta terrorismoa finantzatzaren arloko (KZ/TFP) txostenak, sei hilean behingo arauzko jarraipenari buruzko txostenak, Taldeko sozietate finantzarioetan araudia betetzearen arloan egindako jardueren jarraipena, Araudia Betetzearen eremuan Taldeko sozietateen koordinazioaren emaitzen analisisa, Betetzearen eta Talde Kontrolaren arduraduna izendatzea salaketa-kanalaren sistemaren arduradun gisa; JBAREN sei hilean behingo ikuskapen-txostena, Araudia Betetzearen eta Kontrolaren arloko gomendioen sei hilean behingo jarraipena, Kutxabankeko Finantza zuzendaria ekarpen-prozesuaren eskualdatzaile edo arduradun izendatzeko proposamena, Araudia Betetzearen eta Kontrolaren eremuko zerbitzu eta funtzioak kanporatzearen jarraipenari buruzko txostena, Araudia Betetzearen arloak (KZ/TFPren arloko Barne-kontrolako Organoa eta Datuen Babeserako Batzordea) koordinatutako Batzordeek egindako jardueren jarraipena; (vii) Barne Ikuskaritzako Urteko Planaren eta Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Urteko Planaren onarpena eta jarraipena; (viii) Barne Auditoretzako Funtzioaren arduradunaren eta Araudia Betetzeko Funtzioaren arduradunaren banakako jardunaren ebaluazioa; eta (ix) ikuskatzaileek egindako eskakizunen jarraipena.

Hori guztia egindako gainerako jarduketei kalterik egin gabe, zeinen artean kanpo auditorearekiko harremana nabarmentzen baita, (i) barne kontrolako sistemaren balizko ahuleziak eztabaidatzeko eta, bestalde, (ii) auditore horren independentzia arriskuan jar dezaketen gaiei buruzko informazioa jasotzeko.

Identifika itzazu Auditoretza eta Betetze Batzordeko zein kontseilari izendatu diren, aintzat hartuta kontabilitatearen eta auditoretzaren arloan edo bi arloetan dituzten ezagutzak eta esperientzia, eta jakinarazi noiz izendatu den batzorde horretako presidentea bere kargurako.

Esperientziadun kontseilarien izenak	María Victoria Mendia Lasa andrea
	Roxana Meda Inoriza andrea (presidentea)
Karguko presidentea izendatu zen eguna	2022ko martxoak 31

Oharrak

Txosten honen onarpen-egunean, Maria Victoria Mendia Lasa andrearen ordez, María Eugenia Fernández-Villarán Ara andrea izendatu zuten Kutxabankeko Auditoretza eta Betetze Batzordeko kide; hain zuzen, Fernández-Villarán Ara andrea kontabilitatearen eta auditoretzaren arloan dituen ezagutzak eta esperientzia kontuan hartuta izendatu dute.

IZENDAPENEN BATZORDEA

IFZ/IFK	Izena edo sozietatearen izena	Kargua	Kategoria
---------	-------------------------------	--------	-----------

Orrialdea:

22714905-J	María Manuela Escribano Riego andrea	PRESIDENTEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
30693259-N	Alexander Bidetxea Lartategi jauna	IDAZKARIA	JABARIZKO KONTSEILARIA
14860149-X	Josu de Ortuondo Larrea jauna	KIDEA	JABARIZKO KONTSEILARIA
30609854-M	Hipólito Suárez Gutiérrez jauna	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA

Kontseilari betearazleen %	% 0
Jabarizko kontseilarien %	% 50
Kontseilari independenteen %	% 50
Kanpoko beste batzuen %	% 0
Bileren kopurua	10

Oharrak

Azaldu Batzorde honek dituen eginkizunak, barne hartuta, hala badagokio, legez jasotako gehigarriak, eta deskribatu Batzordearen antolaketaren eta funtzionamenduaren prozedurak eta arauak. Funtzio horietako bakoitzerako, adierazi zein diren ekitaldian zehar egindako jarduera garrantzitsuenak, eta adierazi nola bete diren praktikan bai legean, bai estatutuetan edo bestelako akordio sozialetan esleitutako eginkizun guztiak.

Sozietatearen estatutuen eta Administrazio Kontseiluaren araudiaren arabera, Izendapenen Batzordea gutxienez hiru (3) eta gehienez bost (5) kontseilarik osatuko dute, eta guztiak kanpokoak edo ez-exekutiboak izango dira.

Izendapenen Batzordeak, aplikatu beharreko legerian aurreikusitako eginkizunaz eta, hala badagokio, Gobernu Onaren Kodearen gomendioetan ezarritakoez gain, hauek ditu esleituta: (i) Kontseiluari Egokitasuna Ebaluatzeko Politika proposatzea; (ii) Kontseiluari politika horrekin lotutako ebaluazio-sistemak proposatzea; (iii) aipatutako politika behar bezala aplikatzen dela ikuskatzea; (iv) politika horrekin lotutako kolektiboen egokitasuna ebaluatzea; eta (v) politika horrekin lotutako kolektiboen prestakuntza-planak proposatzea Kontseiluari.

Era berean, presidentearen, kontseilari delegatuaren eta Kutxabankeko Administrazio Kontseiluko gainerako kideen Ondorengotza Planean ezartzen da Izendapen Batzordeari dagokiola, (vi) urtean behin berrikustea Ondorengotza Planaren edukia, berrikuspen horren berri ematea Administrazio Kontseiluari eta, hala badagokio, dagozkion aldaketak proposatzea; eta (vii) aldian-aldian aztertzea ea aurreikus daitekeen hurrengo ekitaldian Administrazio Kontseiluko kideren batek bere kargua betetzeari utziko dion, karguan izandako antzinatasunari edo beste edozein arrazoiri lotuta, bai eta aldi bereko epemugak egon daitezkeen ere.

Zehazki, Izendapenen Batzordeak 2023ko ekitaldian jorratutako gaiak dagokienez, hauek nabarmendu behar dira, besteak beste: (i) proposamenak egitea kontseilariak eta kontseilari koordinatzailearen eta kontseilari delegatuaren karguak eta Batzorde Delegatuak kide eta kargu berriak izendatzeko; (ii) kargua indarrean duten kontseilarien egokitasuna aldizka ebaluatzea eta Administrazio Kontseiluko eta/edo batzorde delegatuak kide berrietarako hautagaien egokitasuna ebaluatzea; (iii) zuzendari jakin batzuk izendatzeko proposamenak berrestea; (iv) Kutxabaneko funtsezko lanpostu jakin batzuen egokitasunaren aldizkako ebaluazioa eta zuzendari nagusiaren eta parekoaren karguak betetzeko proposatutako hautagaien egokitasunaren ebaluazioa egitea; (v) Administrazio Kontseiluko kide berri bat izendatzea Ebazpena Planifikatzeko barne-lanaren arduradun gisa eta haren egokitasuna ebaluatzea; (vi) Zuzendaritza Nagusien erantzukizun-arloak aldatzea eta Sistemen zuzendaria Erakundeko zuzendariorde nagusi izendatzea; (vii) Erakundearen Egokitasuna Ebaluatzeko Politikaren mendeko langileen funtzio-aldaketak arrazoitzea; (viii) Administrazio Kontseiluko kide eta zuzendari nagusi edo pareko izateko hautagaien egokitasuna ebaluatzeko prozesuari buruz ikuskatzaileak hartutako erabakiak arrazoitzea; (ix) Administrazio Kontseiluaren ezagutzen, gaitasunaren, dibertsitatearen eta esperientziaren orekaren urteko ebaluazioa eta hautagai berriak sartzearen ondoriozko baterako ebaluazioak egitea; (x) ekintza-plan bat eta funtsezko jarduketak proposatzea 2024an aurreikusitako kontseilari-karguen (jabarizkoak eta independenteak) epemugei eta Kontseiluaren osaerari buruz ikuskatzailearekin 2025eko ekainaren 30erako hartutako konpromisoei dagokienez, eta horien ondorengo jarraipena egitea; (xi) Administrazio Kontseiluaren presidentzia-eredu ez-betearazle bateranzko erabateko trantsizio posible baten urteko balorazioa egitea; (xii) 2022ko ekitaldiko kontseilariak prestatzeko plana ebaluatzea, eta kontseilarien 2023ko ekitaldirako prestakuntza-planaren proposamena formulatzea; (xiii) presidentearen, kontseilari delegatuaren eta Administrazio Kontseiluko gainerako kideen Ondorengotza Planaren eta Administrazio Kontseiluko kideak hartu eta prestatzeko Programaren urteko berrikuspena egitea; (xiv) Kontseiluan hurrengo ekitaldirako aurreikusitako epemugen jarraipena egitea, eta Kontseiluan epemugen aldebereotasun materialeko egoera gertatzeko aukera aztertzea; (xv) Kutxabank Taldeko funtsezko langileentzako Egokitasuna Ebaluatzeko Politika eta haren ondoriozko ebaluazio-sistemak eta Ondorengotza Plana aldatzeko proposamena egitea; (xvi) 2022ko ekitaldian kontseilari eta zuzendari nagusiei edo parekoei egindako izendapen- eta ebaluazio-jardueren txostena arrazoitzea; eta (xvii) 2022ko ekitaldiko jarduera-txostena arrazoitzea, Kutxabank Taldeko Funtsezko Langileen Ondorengotza Planarekin lotuta.

ORDAINSARIEN BATZORDEA

IFZ/IFK	Izena edo sozietatearen izena	Kargua	Kategoria
14935664-Q	María Victoria Mendi Lasa andrea (*)	PRESIDENTEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
14860149-X	Josu de Ortuondo Larrea jauna	IDAZKARIA	JABARIZKO KONTSEILARIA
16506530-M	Antonio Villar Vitores jauna	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
30693259-N	Alexander Bidetxea Lartategi jauna	KIDEA	JABARIZKO KONTSEILARIA

14955722-H	Roxana Meda Inoriza andrea	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
------------	----------------------------	-------	---------------------------

Kontseilari betearazleen %	% 0
Jabarizko kontseilarien %	% 40
Kontseilari independenteen %	% 60
Kanpoko beste batzuen %	% 0
Bileren kopurua	5

Oharrak
<p>(*) Taulak 2023ko abenduaren 31n indarreko kargua zuten kontseilariak identifikatzen ditu.</p> <p>Administrazio Kontseiluak, 2023ko azaroaren 30ean, María Victoria Mendia Lasa andrea ordezkatzera erabaki zuen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta haren ordezkariak Hipólito Suárez Gutiérrez jauna jartzea, Kutxabanken Ordainsarien Batzordeko kide gisa. Erabaki hori lortzeko, 2023ko abendurako aurreikusitako Akziodunen Batzar Nagusiak Fernández-Villarán andrea izendatu zuen Kutxabankeko Administrazio Kontseiluko kide, Mendia andrearen ordezkari.</p> <p>2023ko abenduaren 21ean, Akziodunen Ezohiko Batzar Nagusiak María Eugenia Fernández-Villarán andrea izendatu zuen Erakundeko kontseilari, estatutuaren aurreikusitako epeaz, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.</p> <p>Beraz, txosten honen onarpen-egunean, María Victoria Mendia Lasa andrearen ordezkari, Hipólito Suárez Gutiérrez jauna ezarri dute Kutxabankeko Ordainsari Batzordeko kide gisa. Bestalde, Suárez jauna Ordainsarien Batzordeko presidentea da, Batzordeak 2024ko urtarrilaren 24ko bileran hartutako erabakiaren arabera.</p>

Azaldu Batzorde honek dituen eginkizunak, barne hartuta, hala badagokio, legez jasotakoan gehigarriak, eta deskribatu Batzordearen antolaketaren eta funtzionamenduaren prozedurak eta arauak. Funtzio horietako bakoitzerako, adierazi zein diren ekitaldian zehar egindako jarduerak garrantzitsuenak, eta adierazi nola bete diren praktikan bai legean, bai estatutuaren edo bestelako akordio sozialetan esleitutako eginkizun guztiak.

<p>Sozietatearen estatutuen eta Administrazio Kontseiluaren araudiaren arabera, Ordainsarien Batzordea gutxienez hiru (3) eta gehienez bost (5) kontseilari osatuko dute, eta guztiak kanpokoak edo ez-exekutiboak izango dira.</p> <p>Ordainsarien Batzordeak ez du legeria aplikagarrian jasotakoak eta, hala badagokio, Gobernu Onaren Kodean dagozkion gomendioetan ezarritakoak bestelako eginkizunik.</p> <p>Zehazki, Ordainsarien Batzordeak 2023ko ekitaldian jorrotutako gaiak dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira, besteak beste: (i) 2022ko ordainsari aldakorraren emaitza eta zuzendaritza-taldearen 2023ko ordainsari-proposamena; (ii) kontseilari delegatuaren ordainsari finkoa aldatzeko proposamena; (iii) kontseilari</p>
--

delegatuaren likidazio-akordioa egiteko proposamena; (iv) kontseilari delegatu berriarekin eta zuzendari nagusi berriekin formalizatu beharreko kontratuetan sartu beharreko ordainsari-planteamenduen proposamenak; (v) zuzendaritza-taldearen ordainsari aldakor geroratuaren proposamena, *expost* ebaluazioa eta likidazioa, hala badagokio; (vi) identifikatutako kolektiboko kideen, beste zuzendari batzuen eta kontseilari ez-betearazleen ordainsariak eta Ordainsari Politikaren Esparru Korporatiboa eguneratzeko proposamenak; (vii) Kutxabanken arrisku-profilean eragin handia duela identifikatutako kolektiboa berrikusteko lana, zuhurtziazko arau-esparruaren arabera; (viii) Kutxabanken ordainsari-politika arau-esparrura zenbateraino egokitzen den ebaluatzeko lana, Araudia Betetzeko eta Taldearen Kontrolerako arloak egina; eta (ix) Kutxabanken identifikatutako kolektiboko kideen ordainsariak eguneratzeko proposamenak.

ARRISKUAREN KONTROLERAKO BATZORDEA

IFZ/IFK	Izena edo sozietatearen izena	Kargua	Kategoria
16506530-M	Antonio Villar Vitores jauna	PRESIDENTEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
18602688-N	Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna	IDAZKARIA	KONTSEILARIA JABARIZKOA
14935664-Q	María Victoria Mendi Lasa andrea (*)	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
14599779-T	José Miguel Martín Herrera jauna	KIDEA	KONTSEILARIA JABARIZKOA
14599779-T	Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	KIDEA	KONTSEILARIA JABARIZKOA
22714905-J	María Manuela Escribano Riego andrea	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA
14955722-H	Roxana Meda Inoriza andrea	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA

Kontseilari betearazleen %	% 0
Jabarizko kontseilarien %	% 42,86
Kontseilari independenteen %	% 57,14
Kanpoko beste batzuen %	% 0
Bileren kopurua	15

Orrialdea:

Oharrak

(*) Taulak 2023ko abenduaren 31n indarreko kargua zuten kontseilariak identifikatzen ditu.

Administrazio Kontseiluak, 2023ko azaroaren 30ean, María Victoria Mendia Lasa andrea ordezkatzea erabaki zuen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta haren ordezkari María Eugenia Fernández-Villarán Ara jartzea, Kutxabanken Arriskua Kontrolatzeko Batzordeko kide gisa. Erabaki hori lortzeko, 2023ko abendurako aurreikusitako Akziodunen Batzar Nagusiak Fernández-Villarán andrea izendatu zuen Kutxabankeko Administrazio Kontseiluko kide, Mendia andrearen ordezkari.

2023ko abenduaren 21ean, Akziodunen Ezohiko Batzar Nagusiak María Eugenia Fernández-Villarán andrea izendatu zuen Erakundeko kontseilari, estatutuetan aurreikusitako epeaz, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Beraz, txosten honen onarpen-egunean, María Victoria Mendia Lasa andrearen ordezkari, María Eugenia Fernández-Villarán Ara andrea ezarri dute Kutxabankeko Kontrol Batzordeko kide gisa.

Azaldu Batzorde honek dituen eginkizunak, eta deskribatu Batzordearen antolaketaren eta funtzionamenduaren prozedurak eta arauak. Funtzio horietako bakoitzerako, adierazi zein diren ekitaldian zehar egindako jarduera garrantzitsuenak, eta adierazi nola bete diren praktikan bai legean, bai estatutuetan edo bestelako akordio sozialetan esleitutako eginkizun guztiak.

Sozietatearen estatutuen eta Administrazio Kontseiluaren araudiaren arabera, Arriskuaren Kontrolerako Batzordea gutxienez hiru (3) eta gehienez bederatzi (9) kontseilarik osatuko dute.

Arriskua Kontrolatzeko Batzordeak, aplikatu beharreko legerian eta, hala badagokio, Gobernu Onaren Kodearen gomendioetan aurreikusitako funtzioez gain, Taldearen ebazpena planifikatzeko eta ebazteko gaitasuna hobetzeko lanak ikuskatzeko eginkizuna du, bai eta Administrazio Kontseiluari gai horiekin lotutako printzipioak eta politikak ezartzeari buruzko aholkuak ematekoa ere.

Zehazki, Arriskuaren Kontrolerako Batzordeak 2023ko ekitaldian jorrotutako gaien artean, hauek nabarmendu behar dira: (i) arriskuaren kudeaketaren arloan Kutxabank Taldearen jarraibide estrategikoak ezartzearen eremuan, Arrisku Gosearen Esparrua, Arriskuaren Mapa Korporatiboa, datuaren kudeaketaren barneko Gobernu Esparrua, kapital ekonomikoa zenbatesteko prozesuaren Esparru Metodologikoa, negozioaren jarraitutasuneko Politika, Aktibo Ez-produktiboak Murrizteko Plan Estrategikoa eta arrisku esanguratsuenen kudeaketako politiken gidaliburuak eguneratzeko proposamena egitea; (ii) Kutxabank Taldearen arrisku profil globalaren monitorizazioari dagokionez, hiru hilean behin arriskuaren aginte-koadro korporatiboa berrikustea, Arrisku Gosearen Esparruaren jarraipena egitea, kaudimenaren bilakaeraren jarraipena egitea, arriskuari egokitutako bezeroen marjina aztertzea, IRB *roll out* plana eguneratzea, Kutxabank Taldearen negozio-eredua aztertzea, EBaren gardentasun-eraketaren emaitzak aztertzea, IRB eredu eta parametroen aldizkako jarraipena egitea, eta Arriskuak Kudeatzeko Funtzioak emandako *ex ante* iritzien jarraipena egitea; (iii) Taldearen kudeaketako azpiegitura eta arrisku-mota nagusiekiko duen esposizio-maila aztertzea eta, horretarako, Kutxabank Taldeak arrisku-mota nagusiekiko duen esposizio-mailaren bilakaerari buruzko informazio monografikoaren jarraipena egitea; Kutxabank Taldeak zehaztutako aktibo-prezioak kudeatzeko prozeduraren jarraipena egitea; hipoteka-bermeak berriz tasatzeko

prozesuaren emaitzak aztertzea; egoitzen hipoteka-zorroaren eta enpresen eta autonomoen kreditu-zorroaren egoeraren jarraipena egitea; eta ospe-arriskuaren neurketarekin lotutako emaitzak aztertzea; (iv) finantza- eta kapital-plangintzari buruzko jardueri dagokienez, *recovery* motako egoeren proposamenak egitea, agertoki horren pean egindako proiektzioak aztertzea, Taldearen kapital ekonomikoa zenbatesteko prozesuan lortutako emaitzak aztertzea, arau-ereduak aplikatuta lortutako kapitalaren maila nahikoari buruzko barne-balidazioaren iritzia arrazoitzea (I. zutabea), kapitalaren autoebaluazio-txostena eta likideziaren autoebaluazio-txostena egiteko eta formalizatzeko prozesuan parte hartzea, eta Kutxabank Taldearen 2023-2025 aldirako finantza- eta kapital-plangintzaren emaitza nagusien jarraipena egitea; (v) gobernantzari buruzko gaiei dagokienez, ICAAPen Gobernantza Esparrua eta Ebazpenaren Plangintzako Gobernantza Esparrua eguneratzeko proposamena egitea, zuzendaritza-taldearen ordainsari aldakorrekotako sistema kalkulatzeko prozedura-proposamena berrikustea, eta EBA Stress Testing delakoaren aurrerapen-mailaren eta emaitzen jarraipena egitea; (vi) ereduak eguneratu, baliozkotu eta jarraitzea; (viii) Recovery Plana egiteko eta formalizatzeko prozesuan parte hartzea; (ix) zentzuzko garrantzia duen informazioa berrikustea eta horri buruzko txostena egitea; (x) ikuskapeneko agintariak egindako zentzuzko ikuskapen-prozesuaren mugari nagusien jarraipena egitea; (xi) ESG arriskuei buruzko jardueri dagokienez, Barneko Estres Klimatikoaren testaren eta Europako Banku Zentralaren klima-arriskuei eta ingurumen-arriskuei buruzko Gidara egokitzeko ibilbide-orriaren aurrerapen-mailaren jarraipena egitea, eta Kutxabankeko Batzorde Betearazleak onartutako finantzaketa-zorroaren bitarteko deskarbonizazio-helburuak eta ingurumen- eta gizarte-arloko sektorekako politikak aztertzea, bai eta Taldearen *Task Force on Climate-related Financial Disclosures* delakoaren bigarren edizioa ere; (xii) Ukrainako gerraren ondoriozko krisiak eta banku-krisiak Kutxabank Taldean izan ditzakeen inpaktuak aztertzea; eta (xiii) arau-aldaketa nagusiek eta ikuskapen-agintarien gomendioek Kutxabank Taldean izan dezaketen inpaktua aztertzea.

ESTRATEGIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO BATZORDEA

IFZ/IFK	Izena edo sozietatearen izena	Kargua	Kategoria
30585685-D	Anton Joseba Arriola Boneta jauna	PRESIDENTEA	KONTSEILARI BETEARAZLEA
14599779-T	Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna	IDAZKARIA	JABARIZKO KONTSEILARIA
18602688-N	Jorge Hugo Sánchez Moreno jauna	KIDEA	JABARIZKO KONTSEILARIA
30.593.164-J	Ricardo del Corte Elduayen jauna	KIDEA	JABARIZKO KONTSEILARIA
14576670-Y	Eduardo Ruíz de Gordejuela Palacio jauna	KIDEA	KONTSEILARI BETEARAZLEA
30666663-C	Marco Pineda Gómez jauna	KIDEA	KONTSEILARI INDEPENDENTEA

Kontseilari betearazleen %	% 33,33
----------------------------	---------

Orrialdea:

Jabarizko kontseilarien %	% 50
Kontseilari independenteen %	% 16,67
Kanpoko beste batzuen %	% 0
Bileren kopurua	4

Oharrak	
<p>2023ko ekainaren 29an, Eduardo Ruiz de Gordejuela Palacio jauna izendatu zuten Estrategia, Teknologia eta Berrikuntza Batzordeko kide, Bankuko Akziodunen Batzar Nagusiak Ruiz de Gordejuela jauna Kutxabankeko Administrazio Kontseiluko kide izendatzearen baldintzapean, eta izendapen hori 2023ko ekainaren 30ean gertatu zen. Ordura arte, Javier García Lurueña jauna Batzordeko kide izan zen.</p> <p>Era berean, 2023ko azaroaren 30ean, Marco Pineda Gómez jauna Kutxabankeko Estrategia, Teknologia eta Berrikuntza Batzordeko kide izendatu zuten.</p>	

Azaldu Batzorde honek dituen eginkizunak, barne hartuta, hala badagokio, legez jasotako gehigarriak, eta deskribatu Batzordearen antolaketaren eta funtzionamenduaren prozedurak eta arauak. Funtzio horietako bakoitzerako, adierazi zein diren ekitaldian zehar egindako jarduera garrantzitsuenak, eta adierazi nola bete diren praktikan bai legean, bai estatutuetan edo bestelako akordio sozialetan esleitutako eginkizun guztiak.

<p>Administrazio Kontseiluaren estatutuen eta araudiaren arabera, Estrategia, Teknologia eta Berrikuntza Batzordea gutxienez bost (5) eta gehienez zortzi (8) kidek osatuko dute, eta Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu, bere kideen artetik, haien ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia eta Batzordearen eginkizunak kontuan hartuta.</p> <p>Administrazio Kontseiluaren estatutu sozialetan eta araudian aurreikusitakoaren arabera, Estrategia, Teknologia eta Berrikuntzako Batzordeak, besteak beste, eskumen orokorrak izango ditu Administrazio Kontseiluari garrantzi estrategikoa duten esparru eta jarduera guztietan eta teknologiaren eta berrikuntzaren eremuekin zerikusia duen guztian informazioa eta aholkuak emateko.</p> <p>Estrategia, Teknologia eta Berrikuntza Batzordearen araudiaren arabera, Batzordeak eginkizun hauek izango ditu, besteak beste: (i) Administrazio Kontseiluari informazioa eta aholkularitza ematea epe ertain eta luzerako estrategiaren arloan, bai eta plangintza estrategikoarekin lotuta hari dagozkion eginkizun guztietan ere; (ii) tokiko eta nazioarteko merkatuaren eta Erakundeak jarduten duen sektoreen joerak aztertzea eta horien aldizkako jarraipena egitea; (iii) Taldearen plan estrategikoei eragin diezaieketen joera teknologikoak eta Erakundearen strategiari eragin diezaieketen teknologia berriekin, aplikazioekin, plataformekin, prozesu operatiboekin diseinuarekin, informazio-sistemekin eta, oro har, jardunbide hobekin eta berrikuntzekin zerikusia duten gai guztiak aztertzea; (iv) Administrazio Kontseiluari aholkularitza ematea negozioaren jarraitutasun-planetan eragina duten teknologiari eta azpiegitura teknologikoei buruzko gaietan eta, hala badagokio, zibersegurtasunaren arloko gertakari garrantzitsuei buruz informatzea, ebaluatzea eta aholkatzea; (v) Administrazio Kontseiluari erraztasunak ematea negozio-eredu berriekin eta/edo bezeroekiko harremanen ereduarekin, arau-esparru berriekin, aliantza estrategikoekin, sartu berriekin, produktu, teknologia eta/edo garapen</p>
--

teknologiko berriein lotuta sor daitezkeen edo horien ondorioz ager daitezkeen aukerak, erronkak eta mehatxuak identifikatzeko, horien jarraipena egin eta aztertzeko; (vi) Administrazio Kontseiluari aholku ematea eragiketa korporatibo potentzialesi eta inbertsio edo desinbertsio estrategikorako aukerei buruz, eta hazteko, garatzeko, elkartzeko, lankidetzan aritzeko, dibertsifikatzeko edo eraldatzeko proposamen, ekimen edo estrategiei buruz; eta (vii) Administrazio Kontseiluaren araudian esleitu zaizkion edo haren erabakiz egotzi zaizkion beste batzuk.

Zehazki, Estrategia, Teknologia eta Berrikuntzako Batzordeak 2023ko ekitaldian jorratutako gaiei dagokienez, hauek nabarmendu behar dira, besteak beste: (i) Sistemen Plan Estrategikoaren aurrerapen-mailaren jarraipena; (ii) etorkizuneko teknologiaren eta berrikuntza teknologikoko proiektuen aurrerapen-mailaren urteko berrikuspena; (iii) ikuskariak Kutxabankerako atera dituen ondorioen azterketa, Erakundeak eraldaketa digitalari eta *fintech* delakoari buruz bidalitako galdetegiari dagokienez; (iv) Enpresen Hazkunde Planaren jarraipena; (v) Azelera Planaren (2022-2024 Sistemen Planeko proiektuak zabaltzea) eta Azelera + Planaren jarraipena (proiektu berriei estaldura ematen dien plan berria); (vi) Agenda Digitalaren egoeraren jarraipena; (vii) Erakundearen Eraldaketa Digitalerako Estrategiaren proposamena; eta (viii) Erakundearen 2022-2024 aldirako Plan Estrategikoaren jarraipena.

D LOTUTAKO ERAGIKETAK ETA TALDE BARRUKO ERAGIKETAK

D.1. Zehaztu zure taldeko erakundearen edo erakundeen eta akziodunen, partaide kooperatibisten, jabari-eskubideen titularren edo mota horretako erakundeko beste edozein subjekturen artean egindako eragiketak:

--

Akziodun/bazkide esanguratsuen izena edo izen soziala	Taldeko sozietatearen edo erakundearen izena edo izen soziala	Harremanaren izaera	Eragiketa mota	Zenbatekoa (milaka eurotan)

Oharrak
<p>Urteko egoera-orri finantzario laburtuetan eta bitarteko egoera-orri finantzario laburtuetan (Kutxabanken webgune korporatiboan daude jendearen eskura), lotutako alderdiekin egindako transakzioak banakatzen dira eta, bereziki, taldeko erakundearen edo erakundeen eta Kutxabankeko akziodunen artean egindakoak. Nolanahi ere, banatutako dibidenduez gain, akziodunekin egindako eragiketa garrantzitsuak izan dira haietako bakoitzarekin indarrean dauden zerbitzu-kontratuak, higiezin jakin batzuekin lotutako errentamendu-kontratuak, bai eta banku-produktuen kontratazioa ere, zeinak erakundeen ohiko trafikoaren parte baitira, helburuari eta baldintzei dagokienez, eta horien ondoriozko gastu eta diru-sarrera finantzarioak.</p> <p>Gainera, 2023ko ekitaldian, Taldeak zenbait aktibo ukigarri saldu dizkie akziodun esanguratsuei, 5.722 mila euroko salmenta-prezioan, eta, ondorioz, kontabilitateko balio garbiarekiko 771 mila euroko mozkin erregistratu da.</p>

D.2 Zehaztu zure taldeko erakundearen edo erakundeen eta administratzaileen edo administrazio organoko kideen edo erakunde zuzendarien artean egindako eragiketak:

Administratzaileen edo zuzendarien izena edo sozietatearen izena	Lotutako alderdiaren izena edo sozietatearen izena	Lotura	Eragiketaren izaera	Zenbatekoa (milaka eurotan)

Oharrak
<p>Urteko egoera-orri finantzario laburtuetan eta bitarteko egoera-orri finantzario laburtuetan (Kutxabanken webgune korporatiboan daude jendearen eskura), lotutako alderdiekin egindako transakzioak banakatzen dira eta, bereziki, administrazio organoko kideekin edo Kutxabankeko zuzendareekin egindakoak. Ez dago urteko kontuetan deskribatutakoez gain beste eragiketa esanguratsurik, eragiketak Erakundearen ohiko igorpen edo trafikoari dagozkio, merkatuko baldintza normaletan egiten dira eta garrantzi txikikoak dira haren ondarearen eta finantza egoeraren irudi fidela islatzeko.</p> <p>Gainera, 2023ko ekitaldian, Taldeak zenbait aktibo ukigarri saldu dizkie administratzaileekin lotutako zenbait erakunderi, 1.400 mila euroko salmenta-prezioan, eta, ondorioz, kontabilitateko balio garbiarekiko 718 mila euroko mozkin erregistratu da.</p>

D.3 Zehaztu talde barruko eragiketak:

Taldeko erakundearen edo sozietatearen izena	Eragiketaren deskribapen laburra	Zenbatekoa (milaka eurotan)

Oharrak
<p>Ez dago jakinarazi beharreko eragiketarik; izan ere, talde bateratu bereko sozietate edo erakundeen arteko eragiketak dira, egoera-orri finantzario bateratuak egiteko prozesuan ezabatu direnak eta sozietate edo erakundeen ohiko trafikoaren parte direnak, helburuari eta baldintzei dagokienez.</p>

D.4. Zehaztu erakundearen edo taldearen eta kontseilarien edo administrazio-organoko kideen edo zuzendarien artean egon daitezkeen interes-gatazkak detektatzeko, zehazteko eta konpontzeko ezarritako mekanismoak.

<p>Legerian aurreikusitakoak eta, bereziki, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 229. eta 230. artikuluetan aurreikusitako komunikazioak.</p> <p>Horri dagokionez, Administrazio Kontseiluak onartutako interes-gatazken politika orokor bat du Kutxabankek. Politika horren helburua da harremanetan, zerbitzuetan, jardueretan edo transakzioetan interes gatazkak identifikatu, kudeatu eta arintzeko esparrua ezartzea, parte hartzen duten alderdien arabera.</p> <p>Era berean, berriaz, kontseilarekin, akziodun esanguratsuekin eta goi-zuzendareekin eta talde barruko harremanekin lotutako eragiketei eta interes gatazkei buruzko araudi</p>
--

bat du, Administrazio Kontseiluak onartua. Araudi horren helburua da, aplikatzekoa den legeriaren eta Kutxabanken estatutu sozialen esparruan, kasu hauetan aplikatu beharreko prozedura zehaztea:

- (i) Kutxabanken edo Kutxabank Taldea osatzen duten sozietateetako edozeinen interesa gatazkan sartzen diren egoeretan, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako terminoetan ulertuta, bai eta haien administratzaileen (Kutxabankek proposatuta halakotzat izendatuak izan direnak) eta/edo Kutxabaneko kontseilarien edo interes-gatazken arauen mende dauden pertsonen (eta/edo haiei lotutako pertsonen) zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala gatazkan dauden egoeretan ere;
- (ii) Kutxabank Taldeko sozietateen artean zuzeneko edo zeharkako interes-gatazka daudenean;
- (iii) Kutxabank Taldeak Kutxabaneko kontseilariekin, interes-gatazken arauen mende dauden pertsonekin edo akziodun esanguratsuekin (eta/edo aurrekoetako edozeinekin lotutako pertsonekin) egiten dituen transakzioen kasuan; eta
- (iv) Kutxabank Taldeko sozietateen artean egiten diren transakzioei edo sinatzen diren akordioei dagokienez.

Erregelamendu horrek, halaber, Administrazio Kontseiluaren erregelamenduan xedatutakoa garatzen du (29-34 arteko artikulua), eta Baloreen Merkatuaren arloko Jokabidearen Barne Araudian aurreikusitakoaren osagarria da. Araudi horrek, zehazki, Administrazio Kontseiluko kideek eta Kutxabaneko beste zuzendari eta langile batzuek eremu horri dagokionez errespetatu behar dituzten jokabide-arauak arautzen ditu.

E. ARRISKUAK KONTROLATZEKO ETA KUDEATZEKO SISTEMAK

E.1 Azaldu Erakundearen Arriskuak Kontrolatzeko eta Kudeatzeko Sistemaren irismena.

Definizioz, Kutxabanken Arriskuak Kudeatzeko Sistema kreditu erakundearen zehazki perimetroko talde kontsolidagarri osoari aplikatu daiteke, bai eta tipologia korporatiboan identifikatutako arrisku mota guztiei ere.

Aipatutako sisteman Taldeko arrisku motaren eta sozietatearen konbinazio bakoitzerako ezarritako jarraibideen aplikazioaren intentsitatea kasu bakoitzerako identifikatutako garrantzi mailaren arabera da, proportzionaltasun printzipioa aplikatuz.

Kutxabanken Arriskua Kudeatzeko Esparrua hiru oinarri nagusiren bidez garatzen da:

- Taldearen arriskuak kudeatzeko estrategia osatzen duten ildo nagusiak Arrisku Gosearen Esparruan ezartzen dira. Esparru horren bidez, Kutxabaneko Administrazio Kontseiluak bere helburu estrategikoak formulatzen ditu Taldearen arrisku-profil globalari dagokionez (helburu orokorra, helburu kualitatiboak, helburu kuantitatiboak), bai eta arriskua kudeatzeko politika orokorrak ere.
- Bestalde, Taldeko arriskuaren barne-gobernantzarekin lotutako alderdi garrantzitsuenak Arriskuaren Kudeaketaren Barne Gobernu Esparruan finkatzen dira. Dokumentu honetan oinarritzko gaiak zehazten dira, hala nola arriskuen tipologia korporatiboa, arrisku mota bakoitzaren kudeaketari buruzko

erantzukizun orokorren esleipena, Arriskuaren Kudeaketaren Funtzioaren zeregina eta merkatuari informazioa emateko politika, besteak beste.

- Azkenik, arrisku mota garrantzitsuenei berariaz aplikatu dakizkiekeen kudeaketa-politikak dagozkien kudeaketa-politiken eskuliburuetan ezartzen dira.

E.2 Identifika itzazu Arriskuak Kontrolatzeko eta Kudeatzeko Sistema prestatu eta betetzeko ardura duten sozietatearen organoak.

Taldearen arrisku-profil globalaren kudeaketari buruzko azken erantzukizuna Kutxabankek Administrazio Kontseiluari dagokio.

Aipatutako erantzukizuna gauzatzeko, batez ere estrategiaren, gobernantzen eta politikaren eremuan, Administrazio Kontseiluak Arriskuaren Kontrolerako Batzordearen aholkularitza du, eta eragiketa zehatzak onartzeko, berriz, Batzorde Betearazleari ahalmen jakin batzuk eman zaizkio.

Kutxabankek Administrazio Kontseiluari Taldearen arrisku profil globalaren kudeaketaren esparruan esleitutako eginkizunak Bankuaren web-orri korporatiboan argitaratutako funtzionamendu araudian zehazten dira.

Arrisku moten kudeaketaren gaineko erantzukizun betearazleari dagokionez, bere eskala exekutiboko hainbat batzorderi esleituta dago, arriskuaren izaeraren arabera (Zuzendaritza Batzordea, Arrisku Batzordea, COAP, Eragiketa Arriskuen Batzordea...). Batzorde horiek kontrol-esparruei buruzko erabakiak hartzen dituzte beren ahalmenen barruan daudenean edo, bestela, Administrazio Kontseiluari eta/edo haren batzordeetako bati helarazten dizkiote.

Bestalde, Arriskuak Kudeatzeko Funtzioak aktiboki parte hartzen du Taldearen arrisku-profil globalerako garrantzitsuenak diren erabakiak hartzeko prozesuan, eta arrisku mota desberdinen kontrol esparruak Administrazio Kontseiluak emandako jarraibide orokorrekin bat datozen zaintzen du.

Arriskuaren Kudeaketaren Barne Gobernuaren Esparruak berariaz esleitzen die Bankuaren antolamendu arlo jakin batzuei arrisku moten kontrol-esparruen koordinazioari buruzko erantzukizuna, ezertan eragotzi gabe kontrol esparru bakoitzaren funtzio espezifikoak hainbat arloren artean banatuta egotea.

Azkenik, Barne Auditoretzaren Funtzioak arriskuen kudeaketako, barne kontroleko eta gobernuko prozesuen kalitateari eta eraginkortasunari buruzko segurtatze independentea ematen du.

E.3 Adieraz itzazu negozio-helburuak lortzeari eragin diezaizketen arrisku nagusiak.

Kutxabank Taldeak arriskuen tipologia korporatibo bat ezarri du, hogeita hiru kategoriakoa. Hona hemen kategoria garrantzitsuenak:

Kreditu arriskua: bere bezeroek (funtsean, partikularrek, enpresek, administrazio-publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek) ordainketa-betebeharrak ez betetzearen ondorioz balio ekonomikoa galtzeko aukera, hark merkatutatutako edozein banku produkturen ondorioz, tresna deribatuekin egindako eragiketak barne. Kategoria horretatik kanpo geratzen dira, berariaz, finantza-erakundeekin hartutako kreditu-arriskuak, bai eta zor subiranoko tresnetan sartutako kreditu-arriskuak ere.

Kontrako alderdiaren arriskua: banku tresnetan sartutako finantza-erakundeek ordainketa betebeharrak ez betetzearen ondorioz balio ekonomikoa galtzeko aukera, tresna deribatuetako eragiketak barne. Gainera, kudeaketa-eremu horrek berariaz jasotzen du likidazio-arriskua (trukaturako fluxuak guztiz aldi berekoak ez diren transakzioekin lotuta), eta berariaz baztertzen du jaulkipen-arriskua (titulu baten jaulkitzaile pribatuak ez ditu baliatzen hark dakartzan eskubideak).

Arrisku subiranoa: nazioz gaindiko erakundeek edo estatuak jaulkitako zorra ordezkatzan duten tituluetan sartutako zorrak ez ordaintzearen, geroratzearen edo birnegoziatzearen ondorioz balio ekonomikoa galtzeko aukera.

Interes-tasaren egiturazko arriskua: balio ekonomikoa galtzeko aukera, interes-tasek finantza marjinak lortzeko duten gaur egungo eta etorkizuneko gaitasunean dituzten mugimendu kaltegarrien ondorioz. Arrisku mota horren aplikazio eremutik kanpo geratzen dira *trading* jarduerari atxikitako posizioak.

Likidezia arriskua: balio ekonomikoa galtzeko aukera, bere posizio estrategikoan, finantzaketaren kostuan edo aktiboen eta pasiboen epemugen arteko denboradesfasearen ondoriozko ordainketa konpromisoei erantzuteko gaitasunean izandako inpaktuen ondorioz.

Merkatu arriskua: balio ekonomikoa galtzeko aukera, finantza-arriskuko faktore nagusien (interes-tasak, truke-tasak, kotizazioak, hegazkortasunak eta salgaien prezioak) mugimendu kaltegarriek beren balore zorro kotizatueta eta tresna eratorrietan (inbertsiokoak eta/edo negoziaziokoak) duten inpaktuaren ondorioz.

Eragiketen arriskua: balio ekonomikoa galtzeko aukera, prozesu, sistema edo langileen hutsegiteen, akatsen, gabezien edo desegokitasunen ondorioz, bai eta kanpoko gertaeren ondorioz ere. Berariaz geratzen da definizio horretatik kanpo arrisku estrategikoa.

Arrisku teknologikoa: balio ekonomikoa galtzeko aukera, prozesuen, sistemen, sareen eta langileen hutsegiteen, gabezien edo desegokitasunen ondorioz, edo Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiekin (IKT) lotutako kanpoko gertakarien ondorioz.

Ospe txarreko arriskua: balio ekonomikoa galtzeko aukera, Taldeko interes-talde nagusiek korporazio-ospeaz duten pertzepzioa okertzearen ondorioz.

Aseguru jardueraren arriskua: balio ekonomikoa galtzeko aukera, kontrola duten Taldeko kudeatzaileen aseguru filialek egindako jarduerarekin lotuta.

Higiezin jardueraren arriskua: balio ekonomikoa galtzeko aukera, Taldearen balantzean dauden aktibo higiezinekin lotutako balio eta/edo kostuak narriatzearen ondorioz, haien jatorria eta/edo helburua edozein izanda ere.

Partaidetzapeko sozietateetako arriskua: balio ekonomikoa galtzeko arriskua, Taldearen jarduerarekin zuzenean lotuta ez dauden sozietateetako akzio-partaidetzen balioa narriatzearen ondorioz, zeinetan haien presentzia ez baita arrazoi operatiboen edo *trading* jardueraren ondorio. Kudeaketa-eremu horrek kanpoan uzten ditu Taldeak kontrolatutako partaidetzei lotutako arriskuak, banku, aseguru eta/edo higiezin jardueretan dihardutenak.

Arrisku estrategikoa: balio ekonomikoa galtzeko aukera, bere jarduera gauzatzen duen merkatuetan posizio estrategikoa narriatzearen ondorioz.

Banku negozioaren arriskua: balio ekonomikoa galtzeko aukera, Taldearen posizio komertzialaren narriaduraren ondorioz, baldin eta horrek eragina badu bezeroekiko harreman-marjinak behin eta berriz lortzeko gaitasunean.

Kontzentrazio arriskua: balio ekonomikoa galtzeko aukera, zenbait jarduera sektoretan, eremu geografikotan edo talde ekonomikotan dituen inbertsioak (kredituak, finantzak edo beste edozein motatakoak) Bankuarekiko gehiegizko mendekotasuna eragiteagatik aipatutako elementuren baten bilakaerarekiko.

Horrez gain, eta Europako Banku Zentralak Klima eta Ingurumen Arriskuei buruzko Gidan ezarritakoarekin bat etorriz (2020ko azaroan argitaratua), Kutxabank Taldeak dauden arrisku kategorien azpiko (kreditu-arriskua, eragiketa-arriskua, merkatu-arriskua, segurtatze-jardueraren arriskua, ospe-arriskua, partaidetzapeko sozietateetako arriskua...) arrisku-faktore gisa (fisikoak edo trantsiziokoak) kudeatzen ditu klima eta ingurumen arriskuak.

E.4 Identifika ezazu erakundeak arriskuarekiko tolerantzia-mailarik duen.

Kutxabankeko Administrazio Kontseiluak Arrisku Gosearen Esparruaren bidez formulatzen ditu arriskuaren kudeaketari buruzko jarraibide estrategikoak. Dokumentu hori egiteko prozesua Arriskuaren Kontrol Globaleko Sailak koordinatzen du, eta eginkizun betearazlea (Zuzendaritza Batzordearen bidez) eta gobernu organoak (Arriskuaren Kontrolerako Batzordea, bereziki) hartzen ditu eraginpean.

Kutxabank Taldearen Arrisku Gosearen Esparruaren bidez, adierazten da Taldeak arrisku ertain-baxuko profil global bat aurkeztu nahi duela, zeinetan jarduerak irautea eta, beraz, sozietateari ekarpena egitea bermatzeko helburua nagusituko baita.

Arrisku ertain-baxuko profil hori lortzeko, Taldeak alderdi hauek hartuko ditu oinarri: arrisku motekiko esposizioak onartzeko politika zuhur bat; arriskuak kudeatzeko azpiegitura egoki bat, barne gobernantzari eta baliabide materialen eta giza baliabideen erabilgarritasunari dagokienez; eta txikizkako tokiko bankaren negozio-eredura egokitutako kapital eta likidezia oinarri bat.

Taldeak deklarazio orokor hori osatzeko orduan, zenbait helburu kualitatibo zein kuantitatibo nagusi zehatz hartu ditu bere gain.

Eremu kualitatiboan, Taldearen Arrisku Gosearen Esparruak hainbat jarraibide orokor ezartzen ditu, arrisku profil ertain-baxua duen erakunde baten ezaugarri izan behar dutenak, bai eta arriskuak kudeatzeko politika orokor batzuk ere.

Eremu kuantitatiboan, Taldeak bere Arrisku Adierazleen Bateria Zentrala osatzen duten 40 arrisku adierazleei esleitutako helburuen eta/edo atalaseen bidez zehazten du arrisku-gosea, baita Adierazle Osagarrien Multzoa osatzen duten 115 adierazleetarako zenbait kudeaketa-esparrutarako atalaseak ezartzearen bidez ere.

E.5 Adierazi ekitaldian zehar zer arrisku gertatu diren.

2023ko ekitaldian, zenbait gertaera geopolitiko eta ekonomiko-finantzario gertatu dira, eta Kutxabank Taldeak arreta berezia jarri die, gertaera horien ondorioz izan ditzakeen inpaktuak behar bezala kudeatzeko.

Urtean zehar, panorama geopolitikoaren ezegonkortasuna mantendu eta areagotu egin da (Ukrainako gerraren jarraipena, Palestinako gatazka, Ekialde Hurbileko nabigazioaren aurkako erasoak, etab.); ondorioz, zaildu egin da 2021ean eta 2022an izandako desoreka makroekonomikoak bideratzea. Hori dela eta, munduko ekonomia

nagusietako diru-agintariek interes-tasak igotzen jarraitu zuten, prezioen igoerari aurre egiteko.

Nahiz eta ekonomiaren eta finantzen eremuko ziurgabetasun-egoera horrek eragina izan duen ekonomiaren hazkunde-gaitasunean eta eragile ekonomikoen finantza-gaitasunean, 2023an, Espainiako ekonomia gai izan da esperotako espektatiben gainetik hazteko, Euroguneko batez bestekoa baino tasa handiagoetara, eta lan-merkatuaren bilakaera positiboa lagungarria izan da finantza-erakundeetako bezeroen ordainketa-ahalmena mantentzeko.

Testuinguru horretan, azpimarratu behar da, finantza-baldintzak gogortu diren arren, oraingoz ez dela Kutxabank Taldearen kreditu-zorroa osatzen duten bezeroen ordainketa-portaeren narriadura-zantzu aipagarririk erregistratu. Izan ere, aipatutako kreditu-zorroaren berankortasuna egonkor mantendu da 2023an, eta % 1,39koa izan da ekitaldia ixtean (2022ko itxierako % 1,37aren aldean).

Bestalde, euroaren interes-tasen igoeraren ondorioz, Taldearen finantza-marjina nabarmen handitu da 2023an eta, horri esker, kontabilitatea saneatzeko aparteko ahaleginak egin ahal izan dira haren kreditu- eta higiezin-zorroetan, esleitutako higiezin-aktiboei dagokienez, bereziki. Hori izan da, alde handiz, ekitaldian gertatutako arriskurik nabarmenena, Taldearen emaitza-kontuan izan duen inpaktua aintzat hartuta.

Bigarrenik, aipagarria da Espainiako finantza-erakundearen eta haien bezeroen arteko harremanek bereizgarri duten auzi-kopuru handiak eragindako galeren jarraitutasuna, aurrekaririk gabeko segurtasun-gabezia juridikoak markatutako agertoki batean. 2023an halako arrisku operazionalen agerpenak gora egin zuen, denboran gero eta urrunago zeuden gertaerekin lotuta, zeinak, kasu askotan, Kutxabank sortu aurretik gertatu baitziren.

Hirugarrenik, garrantziaren araberako hurrenkeran, arauzko arriskuko gertakariekin lotutako galerak jarri dira, bereziki nabarmenduta zergazkoa ez den ondare-prestazio publikoak (bankuaren ezohiko zerga gisa ezagunagoa) Taldearen emaitza-kontuan izan duen lehen inpaktua.

Finantza-arriskuek protagonismo berezia izan zuten 2023ko lehen hilabeteetan; hala, Europako eta Estatu Batuetako finantza-sektorean krisi puntual batzuk gertatu zirenean, Kutxabank Taldeak arrisku horiekiko esposizioa hertsiki monitorizatzen jarraitu zuen, eta ez da arrisku-agerpen aipagarrikerik erregistratu. Taldearen likidezioratioek araudiak eskatutako gutxienekoak baino balio askoz ere handiagoak izaten jarraitzen dute, haren zorroen balorazioek bilakaera positiboa izan dute, eta euroaren interes-tasen kurbaren bilakaerak handitu egin du haren balantze-partidei dagozkien finantza-fluxuen balio ekonomikoa.

Azken batean, Kutxabank Taldeak 2023an lortutako diru-sarrera handiagoei aise konpentsatu dituzte erregistratutako arriskuen agerpenak; horri esker, % 54,5 handitu da haren irabazi garbi bateratua, baita haren kaudimen-maila ere, ekitaldiaren amaieran % 18,0koa izan baita, CET1en terminoetan.

Taldearen urteko kontuek informazio zehatzagoa jasotzen dute emaitzetan eta/edo ondarean inpaktu esplizitua izan duten arriskuak gertatzeari buruz.

E.6 Azal itzazu erakundearen arrisku nagusietarako erantzun eta ikuskapen planak, bai eta administrazio kontseiluak agertutako erronka berriei erantzuten diela ziurtatzeko Erakundeak bete dituen prozedurak ere.

Kutxabankeko Administrazio Kontseiluak Taldearen arrisku profil globala monitorizatzeko sistema bat du, eta honako tresna hauek ditu:

- Arriskuen Mapa Korporatibo bat urtean behin egiten da, eta Taldearen arrisku mota nagusiak identifikatzen ditu. Haren garrantzi maila ebaluatzen du, eta esposizio nagusiei buruzko informazio zehatza ematen du, azpiarriskuari dagokionez.
- Arriskuen Aginte Mahai Korporatibo bat, zeinak hiru hilean behin arrisku adierazleen multzo zabal bati buruzko informazio eguneratua ematen baitu, adierazle horien kalkuluari buruzko euskarri txostenak eta haien bilakaerari buruzko serie historikoak barne.
- Arrisku mota garrantzitsuenei buruzko txosten monografikoak, zeinak Arriskuaren Kontrolerako Batzordeari bidali eta aurkezten baitzaizkio, bakoitzaren garrantziaren arabera maiztasunez.

Horrela eraturako monitorizazio-sistemari esker, Bankuaren Administrazio Kontseiluak ideia eguneratua izan dezake etengabe Taldearen arrisku profil globalaren bilakaerari buruz, bai eta kasu bakoitzean formulaturako jarraibide estrategikoekiko izandako desbideratzei buruz ere.

Arriskuen gauzatze-mailak maila desiragarriak gainditzen dituen kasuetarako aurreikusitako erantzun mekanismoei dagokienez, Taldeak, kudeaketa autonomo arruntaren esparruan, jarduera protokolo jakin batzuk aktibatzea bermatzen duen gobernantza bat du, arrisku-adierazle batzuek Arrisku Gosearen Esparruan ezarritako atalaseak urratzen dituzten kasuetarako. Protokolo horien helburua da, hala badagokio, gobernu organoei ohartaraztea adierazle batek edo batzuek erregistraturako narriadurari buruz, zer gertatu den azalduko duen analisi kausal bat egitea eta egoera bideratzeko plan bat ezartzea.

Arrisku adierazleen narriadura maila larriagoetara iristen bada, salbuespenezko kudeaketa autonomoaren esparruan izan arren, Europako finantza-erakundeek Bideragarritasun Plan bat dute (Recovery Plan), salbuespen-maila hori islatuko duen gobernantza aktibatzea aurreikusten duena, eta aurrez identifikaturako berreskuratze-neurrien sorta bat gauzatzean oinarrituko dena, Taldeak egoera bere kabuz bideratu dezan.

Era berean, Taldeak zenbait kontingentzia plan espezifiko ditu negozioaren jarraitutasuna bermatzeko, baliabide kritiko jakin batzuk (likidezia, sistemak eta komunikazioak, eraikinak eta pertsonak) eskuratzeko duen gaitasuna kaltetzen den kasurako.

F. ARRISKUAK KONTROLATZEKO ETA KUDEATZEKO BARNE-SISTEMAK, FINANTZA-INFORMAZIOA EMATEKO PROZESUARI DAGOKIOEZ (FIBKS)

Deskribatu arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistemak osatzen dituzten mekanismoak, zure erakundearen finantza-informazioa emateko prozesuari dagokionez (FIBKS).

F.1 Erakundearen kontrol ingurunea

Eman, gutxienez, alderdi hauen berri, eta aipatu haien ezaugarri nagusiak:

F.1.1. Zein organo eta/edo eginkizunen ardura dira honako hauek?: (i) FIBKS egoki eta eraginkor bat egotea eta mantentzea; (ii) hura ezartzea; eta (iii) hura ikuskatzea.

Kutxabankeko Administrazio Kontseiluak, erabaki organo gorena den aldetik (Batzar Orokorraren eskumenekoak diren gaitan izan ezik), Kutxabanken administrazioa eta ordezkaritza legez eta estatutu bidez esleituta ditu. Era berean, Bankuaren gaineko erantzukizun orokorra du, helburu estrategikoen ezarpena, arriskuen estrategia, gobernu korporatiboa eta balio korporatiboak onartzea eta ikuskatzea barne.

Administrazio Kontseiluaren erregelamenduak 5. artikuluan ezartzen duenez, Administrazio Kontseiluaren eginkizunen artean daude kontabilitate- eta finantza-informazioko sistemen osotasuna bermatzea, kontrol finantzarioa eta operatiboa barne, eta aplikatu beharreko legeria betetzea; informazioa zabaltzeko prozesua eta Bankuari buruzko komunikazioak ikuskatzea; arriskuak kontrolatu eta kudeatzeari dagokionez, Kutxabanken eta Kutxabank Taldearen jarduera-ildo nagusiak markatuko dituzten printzipio eta politikak ezartzea arriskuen kudeaketaren arloan, zeinak aldizka berrikusi eta eguneratuko baitira. Printzipio eta politika horiek, oro har, Taldearen arrisku profil globala kudeatzera bideratuta egongo dira, eta, espezifikoki, arrisku mota garrantzitsuenekin lotuta, eta kasu bakoitzean azpian dauden klima- eta ingurumen-arriskuen faktoreak hartuko dituzte kontuan. Halaber, komenigarritzat joz gero, arrisku mota garrantzitsuenetarako politika espezifikoak onartuko dira.

Administrazio Kontseiluak Auditoretza eta Betetze Batzordearen esku utziko du barne-kontrolleko sistemak ikuskatzeko eginkizuna. Administrazio Kontseiluaren Erregelamenduaren 16. artikulua Auditoretza eta Betetze Batzordea arautzen du, eta Batzorde horren Erregelamenduaren 1. artikulua adierazten duenez, «barne organo iraunkorra da, informatiboa eta kontsultakoa, eginkizun betearazlerik gabea, bere jardun-eremuaren barruan informazio-, aholkularitza- eta proposamen-eskumenak dituena, eta sozietatearen estatutuetan, Administrazio Kontseiluaren erregelamenduan, erregelamendu honetan eta aplikagarri den legerian jasotako arauen arabera arautuko da».

Administrazio Kontseiluaren araudiaren 16. artikulua ezartzen duenaren arabera, Auditoretza eta Betetze Batzordeak eginkizun hauek ditu, besteak beste:

- a) Akziodunen batzar nagusiari batzordearen eskumenekoak diren gaiekin lotuta planteatzen diren auzien berri ematea eta, bereziki, auditoretzaren emaitzari buruz, berariaz azalduta auditoretzak nola lagundu duen finantza-informazioaren osotasunean eta zein izan den batzordeak prozesu horretan izan duen eginkizuna.
- Sozietatearen barne-kontrolaren, barne-auditoretzaren eta arriskuak kudeatzeko sistemen eraginkortasuna ikuskatzea, eta kontu auditoreekin auditoretzetan hautemandako barneko kontrol-sistemaren ahultasun esanguratsuei buruz hitz egitea, haren independentzia urratu gabe. Horretarako, eta hala badagokio, gomendioak edo proposamenak aurkeztu ahalko dizkiote administrazio-organuari, eta haren jarraipena egiteko dagokion epea ezarri ahalko dute.
- Nahitaezko finantza informazioa landu eta aurkezteko prozesua ikuskatu eta Administrazio Organuari haren osotasuna babesteko gomendioak edo proposamenak aurkeztea.

Kutxabankeko Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Zuzendaritzak laguntza ematen dio Auditoretza eta Betetze Batzordeari, besteak beste, Informazio Finantzarioa eta Ez-finantzarioa Kontrolatzeko Unitateak egindako FIBKSaren ikuskapenari buruz informatzeko; horretarako, txosten bat egiten du, zeinak barne hartzen baititu lehen lerroak egindako kontrol-jardueren ebaluazioaren ondorioak, bigarren lerroaren ikuskapena, egindako arrisku-ebaluazioa, bai eta, hala badagokio,

identifikatu diren ahuleziak, proposatutako ekintza-planak eta egindako jarraipenak ere.

Barne Auditoretza da hirugarren defentsa lerroa, eta Finantza Informazioaren Barne Kontrolerako Sistemaren (FIBKS) gaineko segurtatze-lanak egiten ditu. Ildo horretan, esparru hori bere unibertso auditagarriaren barruan sartuta dago, eta aldizka auditoretza-lan espezifikoak programatu eta Urteko Auditoretza Planetan sartzen ditu. Haren berrikuspeneak barne hartzen dituzte, nagusiki, FIBKSaren politika eta hura garatzen duten prozedurak eta eskuliburuak (FIBKSaren ikuskatzeko barne-eskuliburua, FIBKSaren arriskuak identifikatzeko eta ebaluatzeko prozedura, kontrolak ziurtatzeko prozedura, etab.), bai eta Informazio Finantzarioaren eta Ez-finantzarioaren Kontrolerako Unitateak gauzatutako jarduerak eta kontrol-jarduera nagusien eraginkortasunaren ebaluazioa ere, zeinak FIBKSaren prozesuen arriskuen eta kontrolen matrizea hartzen baitu erreferentziatzat.

Erantzukizunen esleipen hori Administrazio Kontseiluak onartutako FIBKSaren Politikaren bidez zabaldu zaio erakundeari.

F.1.2. Elementu hauek badauden, bereziki finantza-informazioa egiteko prozesuari dagokionez:

Eginkizun hauetaz arduratzen diren sail eta/edo mekanismoak: (i) antolaketa-egituraren diseinua eta berrikuspena; (ii) erantzukizunaren eta agintaritzaren ildoak argi eta garbi zehaztea, zereginak eta funtzioak behar bezala banatuta; eta (iii) erakundearen behar bezala hedatzeko prozedura nahikoak egotea, bereziki finantza informazioa lantzeko prozesuari dagokionez.

BAI	EZ
X	

Kutxabanken antolaketa-egitura diseinatu eta berrikusteko eta erantzukizun- eta aginte-lerroak zehazteko Administrazio Kontseiluen jarraibideak bete behar dira.

Izendapenen Batzordeak eta Ordainsarien Batzordeak, Administrazio Kontseiluaren araudiaren 17. eta 18. artikuluetan hurrenez hurren ezarritakoaren arabera, eginkizun hauek dituzte, besteak beste: (i) goi-zuzendarien izendapenen eta kargu-uzteen berri ematea Kontseiluari (Izendapenen Batzordea) eta (ii) ordainsari-politika proposatzea eta betetzen dela zaintzea (Ordainsarien Batzordea).

Giza Baliabideen Zuzendaritza arduratzen da behar diren baliabideak esleitzeaz, funtzioetara eta lan-kargetara egokitutako profilararekin, betiere arloko zuzendaritza arduradunarekin adostuta, eta Administrazio Kontseilua arduratuko da erakunde korporatiboaren oinarriak finkatzeaz.

Finantza informazioa prestatzean, argi eta garbi zehaztuta daude aginte- eta erantzukizun-ildoak. Zehazki, Finantza Zuzendaritzaren Arloa arduratzen da merkatuei aurkeztutako finantza-informazioa lantzeaz (beharrezkoak diren onarpenak edo baliozkotzeak egin ondoren), eta bere organigrama funtzionala du, zeinetan bere erantzukizun-ildoak, zereginak eta funtzioak zehazten baitira.

Jokabide kodea, onarpen-organoa, hedapen- eta instrukzio-maila, sartutako printzipioak eta balioak (eragiketen erregistroari eta finantza-informazioa egiteari buruzko aipamen espezifikorik dagoen adierazita), ez-betetzeak aztertzeaz eta ekintza zuzentzaileak eta zehapenak proposatzeaz arduratzen den organoa.

BAI	EZ
X	

Kutxabankek Jokabide Kode bat du, zeinaren azken bertsioa Administrazio Kontseiluak onartu baitzuen 2023ko azaroaren 30eko bilkuran, eta langile guztiek eskura dute Erakundearen intranetean.

Jokabide Kodea nahitaez bete behar dute Administrazio Kontseiluko kideek, zuzendaritza taldeak eta langile guztiek, ezertan eragotzi gabe pertsona horietako batzuk, halaber, Balore Merkatuetako Jokabideen Barne Erregelamenduaren eta beren eginkizunei lotutako jardueraren beste jokabide kode espezifiko batzuen mende egotea.

Hedatze betebeharrak betetzeko eta kodea, haren printzipioak, salaketa-kanala, hura arautzen duten printzipioak eta funtzionamendu-prozedura ezagutarazteko, Erakundeak, aldian-aldian, kode horri, salaketa-kanalari eta haren funtzionamenduari buruzko prestakuntza-ikastaroak egitera gonbidatzen ditu bere langile guztiak.

Era berean, Kutxabankek Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Sailaren eskumenekoak diren gaiei buruzko derrigorrezko prestakuntza egiten du aldizka. Horretan, eguneroko jardueran jokabide etiko eta profesionala lortzera bideratutako jardunbide egokiak transmititzen eta helarazten dira.

Langile berrien kontratazioetan, berariazko onarpen-klausulak dituzten lan-kontratuak sinatzen direnean, Jokabide Kodearen testu osoa jakinarazten da.

Jokabide Kodeak, Erakundearen xedean, ikuspegian eta balioetan oinarrituta, erakundeak bere jarduera-eremu guztietan enpresa-etikaren printzipioekin eta gardentasunarekin duen konpromisoa biltzen du, eta Kutxabank osatzen duten pertsonak beren laneko jardunean jokabide etikoak eta arduratsuak bermatzeko printzipioak eta arauak zehazten ditu. Erakundearen printzipio eta balio horiek egituratzen dute Jokabide Kodea eta, beraz, Erakundearen arau, politika eta prozedura guztiak, zeinak, araudia betetzeaz gain, jarduerak etika profesionalaren eta gardentasunaren barruan gauzatzen direla bermatzen baitute, zuzentasunaren eta zintzotasunaren printzipioek bideratuta.

Finantza-informazioari dagokionez, Jokabide Kodeak arau hauek hartzen ditu bere baitan:

- Kutxabankek informazio fidagarria, zehatza, osoa eta egokia eman behar du bere egoera-orri finantzarioei buruz eta horietan eragin nabarmena izan dezaketen gertaerei buruz. Bereziki, urteko kontuei buruzko informazioak Erakundearen ekonomia-, finantza- eta ondare-errealitatea zehatz-mehatz islatuko du.
- Finantza-informazioa indarrean dauden balorazio printzipio eta arauen arabera egiten dela ziurtatzeko Kutxabankek ezarritako prozedurez gain, langile guztiek informazioa erregistratzeko eta tratatzeko zereginak arretaz bete behar dituzte, eta zeregin horiek dira Erakundearen finantza informazio publikoa egiteko prozesuaren oinarria.
- Kutxabankek langileek beren gain hartzen dute erabiltzen dituzten erregistro mota guztietan jasotzen dituzten datuen fidagarritasunaren, zehaztasunaren, osotasunaren eta eguneraketaren erantzukizuna, bai eta beren eginkizunak betetzean ematen duten informazioarena ere, alde batera utzita Erakundearen arlo jakin batzuei informazioaren osotasunaren eta eskuragarritasunaren arloan berariaz esleitutako erantzukizunak.

- Erantzukizun hori aplikatzea bereziki garrantzitsua da Kutxabanken egoerari finantzarioak prestatzeko beharrezkoak diren datu eta txostenei dagokienez, horiek behar bezala erregistratzea eta interpretatzea ezinbestekoa baita kontabilitate-saldo, transakzio edo kontingentzia bakoitzari dagozkion balorazio-irizpideak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzeko.

Arauek Betetzeko eta Taldearen Kontroleko arloaren eginkizuna da, Administrazio Kontseiluak hala ezarrita, Kutxabankek zintzotasunez jarduten duela askatasunez eta objektibotasunez bultzatu eta ikuskatzea. Bereziki arlo hauetan: kapitalak zuritzearen prebentzioan, bezeroekiko jokabidean, baloreen merkatuetako jokabidean, arrisku penalaren prebentzioan, datuen babesean eta Erakundearen izen onarentzat arriskutsuak izan daitezkeen beste arlo guztietan. Jokabidearen Kode honekin lotuta, Araudia Betetzeko Funtzioari dagokio kodea bera eta horrek barne hartzen dituen arauak hedatu, ezagutu eta betetzea, baita horiek interpretatzen eta salaketan kanal etikoa kudeatzen parte hartzea ere. Era berean, Araudia Betetzeko Funtzioari dagokio Jokabide Kodea behar bezala ezagutzeko prestakuntza prestatzea, bai eta horretan jasotako edozein gairi buruz sortzen diren zalantzak eta kontsultak interpretatu eta horiei erantzutea ere.

Barne Ikuskaritzak, dituen eginkizunen artean, aintzat hartuta jasotako salaketak, beste arlo batzuetako eskariak eta eskura dauden barne-alertak, Kodean ezarritako arauak eta prozedurak betetzen direla egiaztatzen du; horretarako, alegazioak ikertu, jaso eta ebaluatzen ditu, eta lortutako emaitzak (txostena) sail eskudunei helarazten dizkie.

Salaketan kanal bat izatea, zeinak aukera emango baitu Auditoretza Batzordeari finantza eta kontabilitate irregulartasunen berri emateko, bai eta erakundearen jokabide-kodea bete ez dela eta jarduera irregularrak egon direla jakinarazteko ere; hala badagokio, konfidentziala den adieraziko da.

BAI	EZ
X	

Ezinbestekoa da profesionalak ondorio negatiboen beldurrik gabe ematea egoeren eta kezken berri, Kutxabanken Jokabide Kodea behar bezala aplikatzeko. Horregatik, Kutxabankek badu komunikazioa arautzeko esparrua modu konfidentzial eta erraz batean ezartzen duen barneko informazio-sistema bat; beraz, gai da Jokabide Kodea ez betetzea eta/edo delitu penal bat egitea ekar dezaketen jarduera eta jokabide potentzialki irregularrak hautemateko.

Gainera, sistema horren bidez, konpromisoa hartzen du barneko langileek eta gainerako alderdi interesdunek hautemandako ez-betetze posibleei buruzko egoeren berri ondorio negatiboen beldurrik gabe eman dezatela sustatzeko.

Informazioko barne sisteman bermatzen da jakinarazitako informazioaren anonimotasuna eta konfidentzialtasuna, eta modu objektibo, inpartzial eta konfidentzian aztertuko da. Salaketa-kanala arautzen duen funtsezko printzipio bat da, salatzailearen aurkako errepresaliak debekatzea, salatzaileak Erakundeko langileak izanez gero. Era berean, modu horretan, bermatu egiten dira errugabetasun-presuntzioa eta defentsarako eskubidea, komunikazioen izapidetze eraginkorra, eta, aldi berean, jasotako salaketan ikerketa bakoitzean parte hartzen duten langile guztien independentzia, inpartzialtasuna eta interes-gatazkarik eza.

Azkenik, informazioaren barne-sistemak berriaz arautzen ditu salatzailearen babesari buruzko elementuak; hala, babesaren onuradun nor izan daitekeen,

horretarako zer baldintza bete behar diren, errepresalietatik babesteko zer neurri har daitezkeen eta eragindako pertsonak babesteko zer neurri dauden ezartzen du.

Informazio-sistema horretan, salatu daitezkeen gai gisa berariaz sartzen dira finantza- eta kontabilitate-informazioari buruzko alderdiak, eta adierazten da finantza- eta kontabilitate-arloko irregulartasunak gertatu direla dakien edo susmatzen duen edozein langilek salatu ahal izango duela.

Langileen barneko salaketa-kanal baten bidez eta hirugarrenei irekitako kanpo-kanal baten bidez jakinarazten dira gertakariak. Kanal horien xedea da erakundearen balioak aplikatu daitezkeen sustatzea eta hautemandako ez-betetzeei buruzko jakinarazpenetarako bitarteko izatea (finantza- eta kontabilitate-izaerako irregulartasunak barne). Era berean, informazio-iturri bat dira Erakundearentzat, kontrol berriak eta hobekuntza-ekintzak egin ahal izateko Kutxabankek salaketen kanal etikoaren funtzionamendu- eta kudeaketa-prozeduran arautzen dituen funtzionamendu-prozeduretan.

Administrazio Kontseiluak 2023ko azaroaren 30eko bilkuran onartu zuen salaketa-kanalaren araubidea arautzen duten dokumentuen azken bertsioa.

Salaketen kanal etikoaren funtzionamendu- eta kudeaketa-prozedurak zehatz deskribatzen ditu prozeduraren eta funtzionamenduaren xehetasunak: salaketak jasotzea, ikertzea, ebaztea eta komunikatzea.

Salaketen kanal etikoaren faseak eta erantzukizunak hauek dira:

Jasotzea eta kanala kudeatzea: Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Sailari dagokio.

Ikerketa: Barne Auditoretzari dagokio ikerketako eta barne-kontrolako bere eginkizunen zati gisa gauzatzea; era berean, Langileen Sailak, bere eragin-eremuan, Barne Auditoretzak aurkeztutako gertakariak aztertzen ditu egokia bada eta, hala badagokio, dagozkion diziplina-ekintzak proposatzen ditu.

Bestalde, mota guztietako jazarpenak prebenitu, tratatu eta ezabatzeari buruzko jakinarazpenak Langileen Sailera bidaliko dira, zeinak, sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena, laneko jazarpena eta jazarpen mota guztien aurkako Kutxabanken jardute-protokoloan ezarritakoa betez, Berdintasun eta Kontziliazio Batzordeari helaraziko baitizkio. Batzorde horrek, ikertzaile-taldearen bitartez, batzorde murriztu eta eskuordetu gisa, salaketak ikertuko ditu, Protokolo horretan ezarritakoaren arabera.

Ebazpena: Diziplina Batzordeari dagokio lan-arloko ez-betetzeak zehatzea, Hitzarmen Kolektiboan jasotako hutsegiteen kasuetan, beharrezkoa bada. Ustez delitu egitateak egin izanaren edo nahitaez bete beharreko beste edozein lege-arau urratu izanaren zantzuak daudela susmatzen bada, Gobernu Organoen Idazkaritza Teknikoari jakinarazten zaie, arlo horri baitagokio, Erakundearen barruan eta bere eskumenen esparruan, dagozkion ekintza penalak gauzatzea.

Araudia Betetzeko eta Talde Kontrolerako Sailak aldizkako txostenak egiten ditu salaketa-kanalaren funtzionamenduari, erabilerari eta planteatutako gaiei buruz, eta aldizka Auditoretza eta Betetze Batzordeari eta Administrazio Kontseiluari helarazten dizkie.

Barneko salaketa-kanala Erakundearen Intranet Korporatiboan dago eta kanpokoak, berriz, haren web-orri korporatiboan eta partikularren web-orrian. Toki guztietan, salagarriak diren gertaerak jakinarazi nahi dituzten pertsonen eskura jartzen dira komunikazio horretan laguntzeko inprimakiak.

Aldizkako prestakuntza- eta eguneratze-programak izatea, informazio finantzarioa prestatu, ebaluatu eta berrikusten eta FIBKSA ebaluatzen parte hartzen duten langileentzat, zeinak, gutxienez, kontabilitate-arauak, auditoretza, barne-kontrola eta arriskuen kudeaketa barne hartuko baitituzte.

BAI	EZ
X	

Finantza-informazioarekin eta FIBKSaren ebaluazioarekin lotutako prozesuetan parte hartzen duten Kutxabaneko langileek prestakuntza-ekintzak eta aldizkako ezagutza-eguneratzeak jasotzen dituzte, beren eginkizunak behar bezala gauzatzen laguntzeko berariaz diseinatuak.

2023ko ekitaldian, 14.163 prestakuntza-ordu eman zaizkie 351 langileri; besteak beste, kontabilitatearen, auditoretzaren, arriskuen kudeaketaren eta barne-kontrolaren arloko prestakuntza-ekintzak izan dira.

Kutxabanken ematen diren prestakuntza-saioak aurrez aurrekoak eta onlinekoak dira, eta barneko zein kanpoko prestatzaileek ematen dituzte.

Administrazio Kontseiluko kideek egindako prestakuntzari dagokionez, 2023an barneko eta/edo kanpoko hizlariak prestakuntza espezifikoak eman dute, gutxi gorabehera bi ordu eta erdiko saioetan, gai hauekin lotuta: araudia betetzea, klima-eta ingurumen-arriskuak arriskuen kudeaketan integratzea, digitalizazioa eta teknologia banku-negozioan, kapital-kontsumoak Europako finantza-erakundeetan, eta ingurune ekonomiko-finantzarioa eta banku-sistema.

Gainera, Erakundearen harrera-planean jasotako jarduerak egin dira, Administrazio Kontseiluko kide berri bati dagokionez. Horien bidez, Kutxabanken eta haren gobernu organoen funtzionamenduari, negozio-ereduari, arriskuaren kontrol globalari, likidezari, arau-alderdiei eta erregulazio-alderdiei buruzko informazioa eman zaio, besteak beste.

F.2 Finantza-informazioaren arriskuen ebaluazioa

Eman, gutxienez, alderdi hauei buruzko informazioa:

F.2.1. Zein dira arriskuak identifikatzeko prozesuaren ezaugarri nagusiak, erroreei eta iruzurrei dagozkienak barne, kasu hauetan:

Prozesua existitzen bada eta dokumentatuta badago

Kutxabankek prozesu dokumentatu bat du finantza-informazioaren arriskuak identifikatu eta ebaluatzeko, erroreei eta iruzurrei dagozkienak barne.

Arriskuak identifikatzeko prozesuak eragin handia izan dezake finantzetako egoera-orrietan, eta finantza-informazioa sortzearekin lotutako kudeaketa-prozesu kritikoak eta arrisku horiek agertu diren egoera-orri finantzarioen eremu edo epigrafeak identifikatzea du xede. Prozesuak eta arloak aztertzean, faktore kuantitatiboak (saldoa eta granularitatea) nahiz kualitatiboak (prozesuen automatizazio-maila, eragiketen estandarizazioa, kontabilitate-komplexutasunaren maila, aurreko ekitaldiarekiko aldaketak, identifikatutako kontrol-ahuleziak, etab.) hartu dira kontuan.

Prozesuak finantza-informazioaren helburu guztiak betetzen dituen (existentzia eta gertagarritasuna; osotasuna; balorazioa; aurkezpena, banakapena eta alderagarritasuna; eta eskubideak eta betebeharrak), eguneratzen den eta zer maiztasunez.

Arriskuak ebaluatzeko prozesu horrek finantza-informazioaren helburu guztiak estaltzen ditu: (i) existentzia eta gertagarritasuna; (ii) osotasuna; (iii) balorazioa; (iv) aurkezpena; (v) banakapena eta alderagarritasuna; eta (vi) eskubideak eta betebeharrak. Arriskuak identifikatzeko prozesuaren irismena urtero berrikusten da urteko lehen hiruhilekoan, aurreko ekitaldiko abenduaren 31ko egoera-orri publiko bateratuak oinarri hartuta, eta ekitaldi bakoitzeko sei hilekoa itxi ondoren berrikusten da.

Bateratze-perimetroa identifikatzeko prozesu bat dagoen, kontuan hartuta, besteak beste, sozietate-egitura konplexuak, erakunde instrumentalak edo helburu bereziko erakundeak egon daitezkeela.

Konsolidazio Sailak gutxienez hiru hilean behin eguneratzen du bateratze-perimetroa. Horretarako, aztertzen da zer nolako inpaktua izan dezaketen bateratze-perimetroan partaidetzako sozietateekin lotutako egitate ekonomikoek, arlo arduradunek jakinaraziak, eta, gainera, mugimendu horiek beste informazio-iturri batzuekin kontrastatzen dira (adibidez, titulu-zorroen inbentarioa, sozietate edukitzaileen balantzeak, etab.). Bestalde, bateratze-perimetroa behar bezala identifikatzearekin zerikusia izan dezaketen arriskuak Erakundearen GRC tresnaren «Bateratze-prozesua» delakoan daude identifikatuta. Horretan, finantza-informazioaren barne-kontrolerako sistema formalizatzen da. Prozesu hori Kutxabanken FIBKSaren zeharkakotzat hartzen da, eta gutxienez urtean behin berrikusten da.

Prozesuak kontuan hartzen dituen beste arrisku-tipologia batzuen ondorioak (operatiboak, teknologikoak, finantzarioak, legezkoak, ospeari buruzkoak, ingurumenekoak, etab.), egoera-orri finantzarioei eragiten badiete.

Arriskuak identifikatzeko prozesuak kontuan hartzen ditu bai ohiko transakzioak, bai hain ohikoak ez direnak eta potentzialki konplexuagoak direnak, bai eta beste arrisku-tipologia batzuen eragina ere (operatiboak, teknologikoak, finantzarioak, legezkoak, ospeari buruzkoak, ingurumenekoak, etab.), egoera-orri finantzarioei eragiten badiete.

Erakundeko zein gobernu organok ikuskatzen duen prozesua.

Auditoretza eta Betetze Batzordeari dagokio arriskuak identifikatzeko prozesua ikuskatzea, Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko funtzioei dagokion Informazio Finantzarioaren eta Ez-finantzarioaren Kontrol Unitatearen bidez.

F.3. Kontrol-jarduerak

Jakinarazi, ezaugarri nagusiak adierazita, honako hauek badituen, gutxienez:

F.3.1. Finantza-informazioa eta FIBKSaren deskribapena berrikusteko eta baimentzeko prozedurak, balore merkatuetan argitaratzekoak, arduradunak adierazita, bai eta egoera-orri finantzarioei modu materialean eragin diezaieketen transakzio moten jarduera fluxuen eta kontrolen dokumentazio deskribatzailea ere (iruzur-arriskuari buruzkoak barne), barne hartuta kontabilitate-itxierako prozedura eta judizio, zenbatespen eta proiektzio garrantzitsuen berrikuspen espezifikoak.

Merkatuetan argitaratzen den Kutxabanken finantza-informazioa berrikusteko eta baimentzeko prozedurak Finantza Zuzendaritzak berrikusten dituen hasten dira. Horrez gain, araututako finantza informazioa egiteko eta aurkezteko prozesua Auditoretza eta Betetze Batzordeak ikuskatzen du, bere araudiaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, indarrean dauden kontabilitate arauak behar bezala aplikatzen direla eta finantza informazioa fidagarria dela zaintzeko, eta Administrazio Kontseiluak formulatu aurretik. Administrazio Kontseiluaren araudiaren 5. artikuluan jasota dagoenez, organo horrek eskumen hauek ditu, besteak beste: urteko kontuak, kudeaketa txostena eta Kutxabanken emaitza aplikatzeko proposamena egitea; kontabilitate- eta finantza-informazioko sistemen osotasuna bermatzea, kontrol finantzarioa eta operatiboa barne, eta aplikatu beharreko legeria betetzea; eta Kutxabanki buruzko informazioa zabaltzeko prozesua eta komunikazioak ikuskatzea.

Egoera-orri finantzarioetan eragin materiala izan dezaketen transakzioekin zuzenean lotutako jarduerari eta kontrolei dagokienez, Kutxabankek arrisku matrizeak eta prozesuak ditu, bai eta finantza informazioa sortzeari, sortu eta prestatzeari eragiten dioten prozesu eta arlo esanguratsuen kontrolak ere.

Prozesuek barne hartzen dituzte tartean dauden funtzioak, sistemak eta prozesuaren deskribapena. Horrez gain, identifikatutako kontroletarako, besteak beste, eremu hauek zehazten dira:

- Lotutako arriskuaren deskribapena.
- Kontrol-jarduera.
- Kontrolaren sailkapena: funtsezkoa/estandarra.
- Kontrolaren kategoria: prebentiboa/detektiboa.
- Metodoa: eskuzkoa/mistoa/automatikoa.
- Kontrola jasaten duen sistema.
- Kontrolaren arduraduna.
- Kontrolaren maiztasuna.
- Kontrolaren ebidentzia.

Lehen aipatutako dokumentazio deskribatzaileak alderdi hauek jasotzen ditu:

- Prozesuarekin lotutako jardueren deskribapena, produktu edo eragiketa jakin batek izan ditzakeen berezitasunak adierazita.
- Kutxabanken egoera-orri finantzarioetan eragin materiala duten arrisku garrantzitsuen identifikazioa.
- Kontrolak identifikatzea eta deskribatzea, eta aurrez identifikatutako arriskuarekin lotzea.

Jarduerak eta kontrolak gertatutako transakzioen erregistro, balorazio, aurkezpen eta banakatze egokia bermatzeko diseinatzen dira.

FIBKSaren ebaluazioaren barruan, Kutxabankek identifikatutako kontrolen barne ziurtapena egiteko urtean behingo prozesu bat du, finantza-informazioaren fidagarritasuna bermatzeko. Horretarako, saileko zuzendaritzek eta zuzendaritza nagusiek egiaztatzen dute beren ardurapeko kontrolak modu eraginkorrean egin direla erreferentziatzeko aldian. Araudia Betetzeko eta Taldearen Kontrolako arloak ziurtapen prozesu honetan lortutako emaitza aurkezten die Auditoretza eta Betetze Batzordeari eta Administrazio Kontseiluari, jakinaren gainean egon daitezten.

Kutxabanken 2023ko ekitaldiko kontrolen barne ziurtapenaren prozesuaren ondorioz, ez da agerian geratu finantza informazioaren fidagarritasunari modu materialean eragin diezaiokeen gorabeherarik.

Bestalde, Barne Auditoretzak ikuskatze-lanak egiten ditu, ondorengo ataletan deskribatzen denaren arabera.

Kutxabankek GRC tresna informatikoa du, finantza-informazioaren barne-kontrolerako sistema formalizatzeko, eta FIBKSaren arriskuak eta kontrolak sartu dira horretan. Aplikazio horrek trazabilitatea eta koherentzia ematen ditu eremuan, eta aukera ematen du arriskuak eta kontrolak identifikatu, aldatu, ebaluatu eta ikuskatu edo monitorizatzeko lana automatizatzeko, baita horien berri emateko ere, barne-ziurtapeneko prozesuari euskarria emanez.

Irizpen eta zenbatespen garrantzitsuen berrikuspenari dagokionez, Kutxabankek bere urteko kontuetan jakinarazten ditu irizpen- edo zenbatespen-parametroak dauden arlo garrantzitsuenak, bai eta Kutxabankek horiei buruz jasotako funtsezko hipotesiak ere. Ildo horretan, egindako zenbatespen nagusiak gai hauei buruzkoak dira: aktibo finantzario eta ez-finantzario jakin batzuen nariaduragatiko galerak; aktiboak zerga geroratuen ondorioz berreskuratzeko aukeraren ebaluazioa; Taldeak errentari gisa jarduten duen eragiketetarako errentamendu-epea; enplegu osteko ordainsarien eta epe luzeko beste ordainsari batzuen ondoriozko pasiboak eta konpromisoak kalkulatzeko erabilitako hipotesi aktuarialak; aktibo ukigarrien eta aktibo ukiezinen elementuei aplikatutako biziak erabilgarria; merkataritza-funtsen balorazioa; kotizatu gabeko aktibo finantzario jakin batzuen arrazoizko balioa; berme higiezinaren arrazoizko balioa; aseguru-kontratuen ondoriozko aktibo eta pasiboen balorazioa eta horniduren eta pasibo kontingenteen esperotako kostua eta bilakaera.

Gainera, Kutxabankek politika orokor bat du judizioak eta zenbatespenak egiteko, zeinak kontuan hartu beharreko alderdiak eta horiek prestatu eta berrikusteko erantzukizunak jasotzen baititu.

F.3.2 Informazio sistemen gaineko barne-kontrolako politikak eta prozedurak (besteak beste, sarbide-segurtasunari, aldaketen kontrolari, horien erabilerari, jarraitutasun operatiboari eta funtzioen banaketari buruzkoak), finantza-informazioa lantzeari eta argitaratzeari dagokionez Erakundearen prozesu garrantzitsuen euskarri direnak.

Kutxabankek informazio sistemak erabiltzen ditu bere eragiketen erregistro eta kontrol egokia mantentzeko eta, beraz, haien funtzionamendu egokiaren oso mende dago. Sistema horiek barne-kontrolako politikak eta prozedurak bete behar dituzte, besteak beste:

- i. Informazioaren Segurtasunaren Kudeaketa Sistema: sistema honek informazioaren segurtasuna bermatzeko Erakundearen politikak, arauak eta prozedurak zehazten ditu. Besteak beste, informazio sistemetarako sarbideak kontrolatzeko politikak eta arauak sartzen dira, zeinak baimendutako erabiltzaileentzako sarbidea soilik bermatzen baitute, ezagutzeko beharrean

(need-to-know), erabiltzeko beharrean (need-to-use) eta gutxieneko pribilegioetan oinarrituta.

- ii. Aplikazioak IT prozesuen arabera diseinatu eta implementatzen dira. Prozesu horiek hainbat kontrol-puntu ezartzen dituen esparru metodologikoa zehazten dute, lortutako soluzioak erabiltzaileak eskatutako eskakizunak betetzen dituela eta kalitate mailak eskatutako fidagarritasun, efizientzia eta segurtasun estandarrak betetzen dituela ziurtatzeko.
- iii. Azpiegituren edo aplikazioen mailako edozein aldaketa IT prozesu horien bidez kudeatzen da. Prozesu horiek bizi-ziklo osoa biltzen dute, eta fluxu bat ezartzen dute aldaketak, inpaktua eta aurreko egoerara itzultzeko aukera onartzeko, edozein gorabehera hautemanetz gero.
- iv. Erakundeak informazio-sistemen eragiketaren etengabeko monitorizazioa egiten du, prozesuak behar bezala gauzatzen direla eta gerta daitezkeen gorabeherak eraginkortasunez kudeatzen direla bermatuz, eta informazioaren osotasuna ziurtatuz.
- v. Jarraitutasun operatiboa eta negoziakoa: Jarraipen Planak ispilu motako sostengatzeko zentroetan oinarritzen dira, eta Host eta Banatutako sistemetara hedatzen dira. Aldian behin, plan horien probak eta kontrolak egiten dira, eraginkorrak direla eta behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko.

Era berean, zerbitzuen hornitzaile nagusiek (azpiegiturak, telekomunikazioak, etab.) gaitasun handiko sistemak ezarri dituzte Kutxabanken, sektoreko jardunbide egokienetan oinarrituta. Kutxabankek aldizka berrikusten du *Services Level Agreements* (SLA) hitzarmenak betetzen direla.

Erakundeak Arrisku Teknologikoa kudeatzeko esparru bat ezarri du, zeinak bermatu egiten baitu egokiro kontrolatu eta gobernatzen direla informazio-sistema automatizatuen erabileraren arriskuak, prozesuen, sistemen, sareen edo langileen akats, errore edo desegokitasunak, bai eta informazioaren eta komunikazioen teknologiek lotutako kanpo gertakarien ondoriozkoak ere.

FIBKSaren esparruan, Kutxabankek kontrol orokor informatikoko prozesu bat du, dagokion arriskuen eta kontrolen matrizearekin, zeinetan sarbide segurtasunari, aldaketen kontrolari, horien eragiketari, jarraitutasun operatiboari eta funtzioen bereizketari buruzko arriskuak eta kontrolak zehazten baitira.

F.3.3 Hirugarrenei azpikontratutako jardueren kudeaketa ikuskatzeko barne-kontrolerako politikak eta prozedurak, bai eta aditu independenteei agindutako ebaluazio-, kalkulu- edo balorazio-alderdiak ere, egoera-orri finantzarioei modu materialean eragin diezaieketenak.

Zerbitzuak eta funtzioak kanpora ateratzeko politika bat du Kutxabankek, eta azken eguneratzea 2023ko azaroaren 30ean onartu zuen Administrazio Kontseiluak.

Politika horretan, zerbitzuak kontratatze prozesuaren fase guztietan nahitaez bete beharreko printzipioak, arauak, prozedurak eta kontrolak daude ezarrita.

Gainera, Kutxabankek zerbitzuak kontratatze prozedura bat du, Erosketak egiteko, hirugarrenekin zerbitzuak kontratatze eta funtzioak kanporatzeko araudia eta prozedura izenekoa. Horretan, zerbitzuak kontratatze eta funtzioak kanpora ateratzeko Erakundearen ezarritako prozedurak ezartzen dira, eta hirugarren batekin zerbitzu bat kontratatzea erabakitzen den aldi bakoitzean jarraitu beharreko prozedura garatzen da; hala, aplikagarria izango da funtzio eta zerbitzuak kanpora ateratzean, funtsezkoak, garrantzitsuak zein bestelakoak izan, eta hodeian hornitzaileek eman

edo ez. Zerbitzuen kontratazioaren gobernantza-esparru hori aplikagarria da, hala talde barruko kontratazioa bada nola hirugarren hornitzaile batekin egindako kontratazioa bada.

Araudia Betetzeko eta Taldearen Kontrolerako Sailaren ardura da funtzioak kanpora ateratzearen eraginpeko pertsonak eta arloek politika betetzen dutela egiaztatzea, bai eta aholkularitza ematea eta arauari buruz izan ditzaketen zalantzak argitzea ere. Kontrol-lanari dagokionez, politikaren xede diren kanporatzeen ondoriozko arriskuak kudeatu eta ikuskatzen ditu, eta horien dokumentazioa ikuskatzen du, zeina aldizka helarazten baitie gobernu organoei.

Barne Auditoretzako Sailari dagokio politika eta horretan ezartzen diren betebeharrak eta erantzukizunak aldizka berrikustea, bai eta kanpora ateratzeko akordioen jarraipena egitea ere.

Kutxabank Taldeak ez ditu kanpora atera finantza-arloko funtzioei eragiten dieten prozesuak; hala ere, behin eta berriz erabiltzen ditu egoera-orri finantzarioei modu materialean eragin diezaieketen eragiketei buruzko balorazioak jasotzen dituzten aditu independenteen txostenak.

2023ko ekitaldirako, aditu independenteen balorazio eta kalkuluekin lotuta hirugarrenei agindutako jarduerak honako hauekin izan dute zerikusia:

- Langileekin hartutako konpromisoen azterketa aktuarialak kalkulatzeko.
- Esleitutako higiezinak eta Kutxabanken kreditu-zorroko eragiketetan berme gisa jarduten duten higiezinak tasazioak.

Kutxabankek maila guztietan ditu ezarritako kontrolak, jardura horiekin lotutako arriskuak arintzeko. Eragiketaz arduratzen diren sailek gauzatzen dituzte, kontratatutako hornitzaileen gaitasuna, gaikuntza, egiaztapena edo independentzia egiaztatzeko, bai eta erabilitako datuen eta metodoen baliozkotasuna eta erabilitako hipotesien arrazoizkotasuna ziurtatzeko ere.

F.4. Informazioa eta Komunikazioa

Jakinarazi, ezaugarri nagusiak adierazita, honako hauek badituen, gutxienez:

F.4.1. Kontabilitate-politikak zehazteaz, eguneratuta mantentzeaz (kontabilitate-politiken arloa edo saila) eta horiek interpretatzearen ondoriozko zalantzak edo gatazkak ebazteaz arduratzen den funtzio espezifikoak, erakundeko eragiketa-arduradunekin komunikazio arina mantenduz, bai eta kontabilitate-politiken eskuliburu eguneratu bat izanik eta erakundearen unitateei jakinarazita ere.

Finantza Zuzendaritza arduratzen da, haren mendeko arloen laguntzarekin, Kutxabanki eta Taldearen sozietate filialetan eragiten dieten kontabilitate-politikak identifikatu, zehaztu eta jakinarazteaz, bai eta sozietate filialetan, negozio-unitateek eta Kutxabanken euskarri-unitateek egin ditzaketen kontabilitate-kontsultei erantzuteaz ere.

Kutxabank Taldeko sozietate filialetan kontabilitate-informazioa eta informazio osagarria ematen dute gutxienez hiru hilean behin, Taldea sendotzeko. Filialen eta Kontsolidazioaren Finantza Zuzendaritzak zaintzen du Taldeko sozietate filialetan Kutxabankek ezarritako kontabilitate-erregistroen eta kontabilitate-politiken jarraibideak betetzen dituztela. Arlo honetan, filialen eta partaidetutako kide elkartuen informazioa aztertu eta berrikusten da eta, beharrezkoa izanez gero, sozietateetako arduradunei jakinarazten zaizkie informazioa berrikustean identifikatutako

gorabeherak, zuzenean filialen kasuan, edo partaidetuen sailaren bidez, elkartuen kasuan.

Araudietan finantza informazioari eta egoera-orri finantzarioei eragin diezaieketen aldaketak gertatzen badira, Zuzendaritza Finantzarioen eta, bereziki, Kontabilitate eta Estatistika Arloaren erantzukizuna da eraginpeko arloetako langileei horren berri ematea.

Taldearen Kontabilitate politikak betetzen direla ziurtatzeko, Kutxabankek Kontabilitate politiken Eskuliburu eguneratu bat dauka, Kutxabankeko Zuzendaritza Finantzarioak eta Zuzendaritza Batzordeak onartua (Administrazio Kontseiluari aurkezten zaio, onartu dezan, Auditoretza eta Betetze Batzordeak txostena egin ondoren) eta araudian edozein aldaketa gertatuz gero, eguneratu egiten da.

Kutxabank Taldearentzako aplikatu beharreko kontabilitate politikak zehazten dituen kontabilitate-araudiaren esparruak, egoera-orri finantzarioek ondarearen irudi zintzoa eta finantza-egoera erakustea ahalbidetzen duenak, barne hartzen ditu (i) finantza informazioaren Nazioarteko Arauak, eta (ii) 4/2017 Zirkularra, azaroaren 27koa, Espainiako Bankuarena, eta ondorengo eguneraketak.

F.4.2. Finantza informazioa bildu eta prestatzeko mekanismoak, erakundeko edo taldeko unitate guztiek aplikatu eta erabili beharrekoak, egoera-orri finantzario nagusiak, oharrak eta FIBKSri buruz zehaztutako informazioa biltzekoak.

Kutxabank Taldeak kontsolidatutako finantza-informazioa sortzeko prozesua Finantza Zuzendaritzaren Arloan egiten da. Taldeko bankuen finantza eta kontabilitate informazioa sortzeko, gainerako aplikazioekin bateratutako kontabilitate-tresna bat du. Aplikazio horren bitartez sortzen dira automatikoki Taldeko bankuen egoera-orri finantzarioak, kontsolidazioko tresnan kargatzeko. Gainera, Taldeko sozietate filialek kontsolidazio-aplikazio bererako sarbidea dute, eta horren bidez finantza-informazioa kargatzen dute, halako moldez non Taldeko erakundeen saldo guztiak Kutxabank Taldearentzako kontu-plan homogeen batean iraultzen baitira.

Filialen finantza-informazioa ezarritako jarraibideen eta formatuen arabera ematen da, eta Kutxabank Taldearen egoera-orri finantzarioak prestatzeko prozesuaren sarrera-datuak dira. Horrez gain, sozietateek Filialen eta Baterakuntzaren Zuzendaritza Finantzarioari arloak behar duen informazio osagarri jakin bat helarazten diote, igorritako informazioa egiaztatzeko eta berresteko, eta kontabilitate-irizpideak harmonizatzen edo homogeneizatzen, edo Europako Banku Zentralarentzako edo Espainiako Bankuarentzako kontabilitate-egoerak prestatzeko.

Filialen eta Baterakuntzaren Zuzendaritza Finantzarioen arloa sozietate filialek Sailari hiru hilean behin helarazitako finantza-informazioa berrikustez arduratzen da, baita Higiezinaren Negozioak jasotako informazioa berrikustez ere, eta, hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren homogeneizazio-doikuntzak egiten ditu. Sozietateengandik jasotako finantza informazioaren fidagarritasuna eta tratamendu egokia ziurtatzeko zenbait prozedura eta kontrol daude, besteak beste: saldo, transakzio eta ekintza ekonomiko esanguratsuak eta haien bilakaeraren eta aurkezpenaren zentzua eta koherentzia aztertzea; inbentarioak lortu eta koadratzea; baterakuntza idazpenak berrikusi eta eguneratzea, etab. Era berean, bateratze prozesuaren emaitzak baliozkotzeko prozedurak eta kontrolak daude, besteak beste: aldien arteko baterakuntza-doikuntzen bilakaera aztertzea; inbentarioekin bateratutako saldoak egokitzea; aurrekontuei dagokienez lortutako emaitzen aldakuntzak aztertzea, eta Espainiako Bankuaren egoeren kontrolak egitea, zeinetan balantzearen hainbat partida eta emaitzen kontua elkarrekin lotzen baitira.

Sei hilean behingo eta urtean behingo egoera-orri finantzarioak eta horien azalpen-oharrak egiteari dagokionez, Kutxabank Taldeak prozesu bat zehaztu du, argitaratutako finantza informazioa Taldearen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta eta aplikatu beharreko araudiaren arabera prestatu dela kontrolatzeko, eta Kutxabank Taldearen finantza- eta ondare-egoeraren eta lortutako emaitzen irudi zintzo bat islatzen dutela ziurtatzeko. Aipatutako prozesuak Erakundearen zenbait Negozio Arloren parte-hartzea dakar berekin, eta Esku-hartze Orokorreko Zuzendaritzak koordinatzen eta ikuskatzen du. Horretarako, Kutxabank Taldeak berrikuspen-prozesu guztia dokumentatuta uzten duen tresna bat dauka.

Sei hilean behin, aipatutako xedez, Kutxabank Taldeko sozietateek baterakuntza-paketeak prestatzen dituzte, zeinak beharrezkoak baitira sei hilean behingo eta urtean behingo finantza-egoeren xehakapen batzuk egiteko. Kanpoko kontu-ikuskariak pakete horiek berrikusten dituzte sozietate partaide nagusientzat, sei hilean behingo berrikuspen mugatuaren eta Kutxabank Taldeak garatutako urteroko kontu-auditoretzaren baitan. Sozietate partaide nagusietako ikuskariei eskatzen zaizkien prozedurak, besteak beste, ezagutarazitako finantza-informazioan aplikatutako kontabilitate-irizpideen berrikuspena eta baterakuntza-paketeen xehakapen berrikuspena dira.

F.5. Sistemaren funtzionamendua ikuskatzea

Eman, gutxienez, alderdi hauen berri, eta aipatu haien ezaugarri nagusiak:

F.5.1. Auditoretza-batzordeak egindako FIBKSaren ikuskapen-jarduerak, eta erakundeak barne-auditoretzaren funtzio bat duen, bere eskumenen artean, barne-kontrolaren sistema ikuskatzeko zereginean Batzordea babestea duena, FIBKS barne. Halaber, ekitaldian egindako FIBKSaren ebaluazioak duen irismenaren eta arduradunak emaitzak komunikatzeko erabiliko duen prozeduraren berri emango da, eta jakinaraziko da ea erakundeak neurri zuzentzaileak zehazten dituen ekintza-plan bat duen eta horrek finantza-informazioan izandako inpaktua kontuan hartu den.

F.1.1 atalean adierazten denaren arabera, Auditoretza eta Betetze Batzordeak, besteak beste, Sozietatearen barne-kontrolaren, barne-auditoretzaren eta arriskuen kudeaketa-sistemen eraginkortasuna ikuskatzeko funtzioa dauka, baita auditoretzan hautemandako barne-kontrolako sistemaren ahultasun esanguratsuak kontu-ikuskariekin eztabaidatzekoa ere. Horrez gain, Auditoretza eta Betetze Batzordeari dagokio nahitaezko finantza-informazioa egiteko eta aurkezteko prozesua ikuskatzea eta Administrazio Organoari gomendioak edo proposamenak aurkeztea, haren osotasuna babeste aldera.

Auditoretza eta Betetze Batzordeak finantza-informazioaren barne-kontrolaren sistema ikuskatzeko lana Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrola sailari eta barne-auditoretzari agindu dio.

Kutxabanken, Informazio Finantzarioaren eta Ez-finantzarioaren Kontrol Unitatea Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrola sailaren funtzioetako bat da. Aipatutako sailak, besteak beste, Auditoretza eta Betetze Batzordeari FIBKSaren berri emateko eta horren ikuskapenean laguntzeko zeregina dauka, zehaztutako bigarren lerroko irismenarekin. FIBKSaren ebaluazio-plana eta ikuskapenaren emaitzak sei hilean behin eta urtean behin aurkezten zaizkie Auditoretza eta Betetze Batzordeari eta Administrazio Kontseiluari. Informazio Finantzarioa eta Ez-finantzarioa Kontrolatzeko Unitateak egindako txostenetan, egindako lanaren irismena, lortutako emaitzak, identifikatutako gorabeherak eta horietatik eratorritako ekintza-planak zehazten dira.

Informazio Finantzarioa eta Ez-finantzarioa Kontrolatzeko Unitateak 2023ko ekitaldirako egindako FIBKSaren ikuskapenean honako hauek hartu dira barne: FIBKSaren ebaluazio orokorra; lotutako berezko arriskuen eta hondar-arriskuen ebaluazioa; ekitaldirako planifikatutako negozio-prozeduren eta zeharkako prozeduren kontrolen monitorizazioa eta ikuskapena (ikuskapeneko barne-eskuliburuan zehaztutako irismenaz); gertakarien eta gomendioen identifikazioa; aurreko ekitaldietako ekintza-planen jarraipena, eta, hala badagokio, kanpoko eta barneko ikuskatzaileek proposatutako ekintza-planen jarraipena. Halaber, FIBKSaren kontrolen barneko ziurtapen prozesuaren emaitza kudeatzen eta monitorizatzen da eta Auditoretza eta Betetze Batzordeari helarazten zaio. Ekitaldia ikuskatzeko prozesuan, hobetzeko aukera batzuk identifikatu dira eta, ondorioz, dagozkion ekintza-planak egin dira.

Kutxabank Taldearen (Kutxabank eta Cajasur Banco SAU) Barne Auditoretzako Funtzioak Auditoretza eta Betetze Batzordeari laguntzen dio Erakunde finantzarioaren Barneko Kontrol Sistemaren ikuskaritza independentea egiten. Barne-auditoretzako Funtzioaren finantza-informazioa prestatzen duten Taldeko unitateetatik guztiz independentea da.

Barne-auditoretzako funtzioa Kutxabanken Administrazio Kontseiluak onartutako Estatutuan jasotako printzipioetan oinarritzen da. Jarduera independentea eta objektibo bat da, eta ikuspegi sistematiko bat ematen du arriskuen eta kontrolen kudeaketa-prozesuen ebaluazioan eta gobernu korporatiboari buruz.

Barne-auditoretzako Funtzioak talde espezializatuak ditu, zenbait arlotan antolatuta, besteak beste, Jasangarritasun, Gobernantza eta Koordinazio Auditoretzako arloa, zeina zuzenean arduratzen baita FIBKS arloan aseguramendua emateaz. Arlo horrek, aldizka, FIBKS hori berrikusteko programa espezifikoa garatzen du, zeina beste prozesuen ikuskaritzetan dauden kontrol-jarduerekin osatzen baita. Zentzu horretan, identifikatutako kontroleko aldi baterako ahuleziak metodologia komun baten bitartez ebaluatzen dira eta larritasun maila bat ematen zaie. Ahulezia horiek, baita horiek konpontzeko neurri zuzentzaileak (gomendioak) eta ekintza-planak ere, tresna korporatibo batean dokumentatu eta Auditoretza eta Betetze Batzordean aurkezten dira. Barne-auditoretzak gomendioen jarraipena egiten du aldizka, eta Batzordeari jakinarazten dio, ohiko komunikazio-prozesuaren esparruan.

F.5.2. Eztabaida-prozedurarik duen, zeinaren bidez kontu-ikuskariak (Auditoretzako Arau Teknikoetan ezarriarekin bat etorriz), barne-auditoretzako funtzioak eta beste aditu batzuek aukera izango baitute urteko kontuen berrikuspen-prozesuetan zehar edo agindu dieten bestelako prozesu batzuetan zehar identifikatutako barne-kontrolaren ahultasun esanguratsuen berri emateko goi-zuzendaritzari eta erakundeko Auditoretza-batzordeari edo administratzaileei. Halaber, ikusitako ahultasunak zuzentzen edo arintzen ahalegintzeko ekintza-planik duen jakinaraziko du.

Barne-auditoretzak auditoretza espezifikoa bat egiten badiu Finantza Informazioaren Barne-kontrolleko Sistemari (FIBKS), barne-auditoretzak jarduera horien ebaluazioa helaraziko dio goi-zuzendaritzari, dagokion txostenaren bidez. Hala badagokio, txostenean, garrantzitsutzat hartzen diren aurkikuntzak eta berrikuspenean aditzera emandako arriskuak arintzeko gomendioak identifikatuko lituzke. Txostenak hautemandako gertaeren arduradunak gertakizun horiek konpontzeko egindako ekintza-plan bat barne hartuko luke. Halaber, Barne Auditoretzaren arduradunak Auditoretza eta Betetze Batzordeari ezagutaraziko lioke aipatutako txostenaren edukia.

Bestalde, kanpo-auditoreak, kontu-auditoretza amaitzean, lortutako emaitzak eta ondorioak azaltzen ditu, barne hartuta, aplikatzekoa bada, identifikatutako barne-kontrolako ahuleziak, halako moldez non erakundeak ekintza-planak egin beharko baititu, hautemandako ahuleziak zuzendu edo arintzeko. Kontu-auditoretza amaitu ondoren, kanpo-auditoreak honako hauek aurkezten ditu Auditoretza eta Betetze Batzordean eta Administrazio Kontseiluan: ikuskatutako urteko kontuei buruzko ondorioak, finantza-informazioaren prozesua ebaluatzen duen Espainiako Bankuaren txosten osagarria eta Sozietatearen Auditoretza eta Betetze Batzorderako txosten gehigarria.

Prozesu hori gauzatzeko, lehenik, Auditoretza eta Betetze Batzordeak dokumentazioa jasotzen du eta Zuzendaritza Finantzariorekin batera aztertzen eta berrikusten du, indarrean dauden kontabilitate-arauak behar bezala aplikatzen direla eta finantza informazioa fidagarria dela ziurtatzeko.

Auditoretza egin bitartean, kontu-ikuskariak goi-zuzendaritzarako zuzeneko sarbidea dauka eta aldizkako bilerak egiten ditu harekin, bere lanerako beharrezkoa den informazioa eskuratzeko zein lan horretan hautemandako kontrol-ahultasunak komunikatzeko.

Gainera, eztabaida-prozesu horretan, FIBKSean identifikatu diren ahultasunak ebaluatzen dira, eta hala badagokio, baita horiek zuzentzeko proposamenak eta ezarritako ekintzen egoera ere. Era horretan, FIBKSaren esparruan, Auditoretza eta Betetze Batzordeak eta Administrazio Kontseiluak, hala badagokio, Informazio Finantzarioaren eta Ez-finantzarioaren Kontrol Unitateak eta/edo Barne-auditoretzak proposatutako ekintza-planak berrikusi eta onartzen dituzte.

F.6. Beste informazio garrantzitsu bat

Atal honetan ez dago ezer komentatzeko.

F.7. Kanpoko auditorearen txostena

Zeren txostena:

F.7.1. FIBKSari buruz merkatuei igorritako informazioa kanpoko auditoreak berrikusi badu, erakundeak horri dagokion txostena gehitu beharko luke Eranskin gisa. Bestela, arrazoiak azaldu beharko ditu.

Kutxabankek kanpo auditore bati eskatu dio 2023ko ekitaldiari dagokion IAGCren F atal honetan bildutako FIBKSari buruzko informazioa berrikusteko. Horren ondoriozko txostena eranskin gisa igorriko da Gobernu Korporatiboaren Urteko Txosten honetan.

G BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIAK

Erakundeko edo taldeko sozietateetako gobernu korporatiboaren arloan alderdi garrantzitsuren bat baldin badago txosten honetako gainerako ataletan jaso ez dena, baina erakundearen edo taldearen gobernuaren egitura eta jardunbideei buruzko informazio osatuagoa eta arrazoituagoa jasotzeko beharrezkoa bada, azaldu labur.

Atal honetan sartu ahalko da, halaber, txostenaren aurreko atalekin zerikusia duen beste edozein informazio, azalpen edo ñabardura, garrantzitsuak eta ez-errepikakorrek badira.

Are zehatzago, adierazi behar da ea erakundeak Espainiakoa ez den beste legeria bat duen gobernu korporatiboari dagokionez, eta, hala badagokio, txosten honetan eskatutakoaz bestelako nahitaezko informazioa adierazi beharko da.

Erakundeak adierazi ahalko du nazioarteko, sektorekako edo bestelako printzipio edo jardunbide etikoen kodeak bere borondatez barneratu dituen. Hala badagokio, erakundeak kodea eta atxikitze data identifikatuko ditu.

Ez dago Gobernu Korporatiboaren Urteko Txosten honetan adierazitakoari gehitu beharreko Gobernu Korporatiboaren printzipiorik edo alderdi garrantzitsurik.

Gobernu Korporatiboaren urteko txosten hau Erakundearen administrazio batzordeak edo organoak onartu du, 2024ko otsailaren 29ko saioan.

Adierazi zein kontseilarik edo administrazioko organoko kidek bozkatu duten aurka edo abstenitu diren txosten hau onartzearen inguruan.

Txosten hau onartzearen alde bozkatu ez duen kontseilariaren edo administrazio organoko kidearen izena edo sozietatearen izena	Arrazoiak (aurka azaltzeko, abstenitzeko edo ez bertaratzeko)	Azaldu arrazoiak

Jarraian, zehatz-mehatz adierazten da sozietate kotizatuen Gobernu Egokirako Kode Bateratuaren gomendioetako bakoitzaren jarraipen-maila (BMBNaren Kontseiluak 2015an onartu eta 2020ko ekainean berrikusitako bertsioa), nahiz eta aintzat hartu behar den Kutxabank ez dela sozietate kotizatua.

1. Sozietate Kotizatuen Estatutuek ez mugatzea akziodun berak eman dezakeen botoen gehienezkoa, eta beren baitan ez jasotzea merkatuan haien akzioak erositzen sozietatearen kontrola hartzea eragotziko luketen bestelako murrizketarik.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du, estatutu sozialek ez baitute adierazitako mugarik edo murrizketarik ezartzen.

2. Kotizatutako sozietatea, Merkataritza-kodearen 42. artikulua ildotik, beste erakunde kotizatu edo ez-kotizatu batek kontrolatzen duenean, eta zuzenean edo haren filialen bitartez erakunde horrekin edo haren filialen batekin (kotizatutako sozietate ez direnak) negozio-harremanak dituen, edo haiekin lotutako jarduerak gauzatzen baditu, zehaztasunez eman beharko du alderdi hauen berri:
 - a) Negozio harremanen jarduera-arloak eta aldi bateko harremanak, batetik, kotizatutako sozietatearen edo haren filialen eta, bestetik, sozietate matrizearen edo haren filialen artean.
 - b) Gerta daitezkeen behin-behineko interes-gatazkak konpontzeko aurreikusitako mekanismoak.

Kutxabankek mekanismoak ditu interes-gatazka potentzialak kudeatzeko, eta dagoeneko azaldu ditugu Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenean.

3. Osoko bilkura orokorra egiten denean, korporazio-gobernuaren urteko txostena idatziz zabaltzeaz gain, Administrazio Kontseiluaren presidentek ahoz jakinaraztea akziodunei, xehetasun nahikoarekin, sozietatearen gobernu korporatiboarentzat garrantzitsuenak diren arloak eta, are zehatzago:
 - a) Aurreko osoko bilkura orokorretik gertatu diren aldaketak.
 - b) Konpainiak Gobernu Onaren Kodearen gomendioren bat betetzen ez badu, horren arrazoi zehatzak eta, halakorik bada, gai horretan aplikatzen dituen ordezkari arauak.

Presidenteak Akziodunen Batzar Orokorraren zenbait bilkuratan (ohikoa zein berezia) erakundearen gobernu korporatiboari buruzko alderdien berri ematen du. Hala ere, kontuan izan behar da, ondorio horietarako, Kutxabank ez dela sozietate kotizatu.

4. Sozietateak komunikazioari eta kontaktuei buruzko politika bat zehaztu eta sustatzea akziodun eta inbertitzaile instituzionalekin, gizartean duten inplikazioaren esparruan, bai eta boto-aholkulariekin ere, merkatu-abusuaren aurkako arauak erabat errespetatzen dituen eta posizio berean dauden akziodunei antzeko tratua ematen diena. Eta sozietateak politika hori bere web orriaren bidez argitaratzea, politika hori gauzatzeko moduari buruzko informazioa eman eta politika gauzatzeko solaskideak edo arduradunak identifikatuz.

Eta, ezertan eragotzi gabe informazio pribilegiatua eta bestelako informazio arautua zabaltzeko legezko betebeharrak, informazio ekonomiko-finantzarioari, ez-finantzarioari eta korporatiboari buruzko komunikazioaren inguruko politika orokor bat ere izatea sozietateak, egokitzen dituen kanalen bidez (komunikabideak, sare sozialak edo beste bide batzuk), merkatuaren, inbertitzaileen eta gainerako interes-taldearen eskura dagoen informazioaren hedapena eta kalitatea maximizatzen laguntzeko.

Kutxabankek tratu bera ematen die Sozietateko akziodunei (hiru banku-fundazio), zeinak informaziorako sarbidea baitute legeak aurreikusitako gardentasun terminoetan.

Gainera, Kutxabankek jendearen eskura jartzen du bere web orriaren bitartez arauak betez eskatutako informazio ekonomiko-finantzarioa, ez-finantzarioa eta korporatiboa.

5. Administrazio Kontseiluak osoko bilkurara gaitasunak ordezkatzeko proposamena ez helaraztea, harpidetza lehenetsiko eskubidearen salbuespena duten akzio edo balio bihurtgarriak jaulkitzeko, ordezkatzeko horren unean zegoen kapitalaren % 20 baino gehiagoko balioaz.

Eta Administrazio Kontseiluak akzio edo balore bihurtgarrien jaulkipen oro onartzen duenean, lehentasunezko harpidetza-eskubidea alde batera utzita, sozietateak berehala argitaratuko dituela bere web orriaren merkataritzako legeriak baztertzeko buruz aipatzen dituen txostenak.

2023ko ekitaldian, Administrazio Kontseiluak ez dio Batzar Orokorrari inolako baimenik eman akzio edo balore bihurtgarriak jaulkitzeko.

6. Jarraian aipatutako txostenak egiten dituzten sozietate kotizatuek, nahitaezkoak zein borondatezkoak izan, beren web orriaren argitaratzea, ohiko batzar orokorra egin baino lehen, nahiz eta zabaltzea derrigorrezkoa ez izan:
 - a) Auditorearen independentziari buruzko txostena.
 - b) Auditoretza Batzordearen funtzionamenduaren eta izendapenen eta ordainsarien inguruko txostenak.
 - c) Auditoretza eta Betetze Batzordearen txostena lotutako eragiketen inguruan.

Kutxabankek jendearen eskura jartzen du informazioa, bere web orriaren korporatiboaren bitartez, lege eskatutako terminoetan. Gainera, akziodunei behar duten informazioa ematen die batzorde orokorrak egin aurretik.

7. Sozietateak zuzenean transmititzea, bere web orriaren bitartez, akziodunen Batzorde Orokorra.

Eta sozietateak botoa eskuordetzeko eta baliabide telematikoen bitartez botoa emateko mekanismoak izatea, bai eta, kapitalizazio handiko sozietateak badira eta proportzionatua bada, Batzorde Orokorrean egon eta modu aktiboan parte hartzeko aukera ematen dutenak ere.

Hiru akziodun soilik daudenez, Batzarrak unibertsalak izan ohi dira, eta gehienetan akziodun guztiak bertaraten dira, eta ez dira transmititzen web orriaren bitartez. Nolanahi ere, Kutxabankek jendearen eskura jartzen ditu Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenaren bitartez, informazio esanguratsuko prentsa oharrak eta argitaratutako informazio garrantzitsua, esaterako, zabaldu behar diren Batzorde Orokorrak onartutako akordioak.

Halaber, Kutxabanken estatutu sozialetan jasotakoaren arabera, Batzorde Orokorra urruneko edozein komunikazio-bideren bidez egin ahal izango da, behar bezala bermatzen bada botoa ematen duten subjektuen nortasuna eta botoaren zentzuaren osotasuna, eta bertaratzeko eskubidea duten akziodunei beste pertsona baten bidez

ordezkatzeko ahalmena aitortzen zaie, nahiz eta pertsona hori ez izan akzioduna. Ordezkaritza hori urrutiko komunikabideen bidez eman ahal izango da, legeak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

8. Auditoretza eta Betetze Batzordea arduratzea Administrazio Kontseiluak akziodunen Batzorde Orokorrari aurkeztuko dizkion urteko kontuak kontabilitate araudia beteaz egiten direla zaintzeaz. Eta, kontu-auditoreak bere auditoretza-txostenean salbuespenen bat sartu duen kasuetan, Auditoretza eta Betetze Batzordeko presidentek argi eta garbi azaldu behar du batzar orokorrean Auditoretza eta Betetze Batzordearen iritzia, edukiari eta irismenari buruz, eta akziodunen eskura jarri behar du batzarraren deialdia argitaratzen den unean, Kontseiluaren gainerako proposamen eta txostenekin batera, iritzi horren laburpena.

Kutxabankek betetzen du gomendio hori, eta gaur arte ez da gertatu salbuespenik edo mugatzerik eskatzen zuen egoerarik.

Auditoretza eta Betetze Batzordearen ardura izango da Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzorde Orokorrari kontuak aurkezten dizkiola zaintzea, kontabilitateko araudiarekin bat etorritik eta auditoretza txostenean mugarik eta salbuespenik gabe, baina ez da salbuespen edo muga horiek izan dituen egoerarik egon.

9. Sozietateak bere web orrian argitaratzea, modu iraunkorrean, zer betekizun eta prozedura onartuko dituen akzioen titulartasuna, akziodunen batzorde orokorrera joateko eskubidea eta botoa emateko eta delegatzeko eskubidearen erabilera egiaztatzeko. Eta betekizun eta prozedura horiek lagungarri izatea akziodunei laguntzeko eta akziodunok beren eskubideak erabiltzeko, eta bereizkeriarik gabe aplikatzea.

Hiru akziodun soilik daudenez, Batzordeak unibertsalak izan ohi dira; nolana ere, akziodunek bileren aurretik eta behar besteko aurrerapenaz jasotzen dute jorratuko diren gaien zerrendari buruzko informazioa.

Akzioen titulartasuna egiaztatzeko, Akziodunen Osoko Bilkurara bertaratzeko eskubidea izateko eta botoa emateko edo hura delegatzeko eskubideak eta haien prozedurak estatutu sozialetan daude bilduta eta, ez badaude, 1/2010 Lege Errege Dekretuan, uztailaren 2koan, Kapitaleko Sozietateen Legearen testu berretsia onartzen duenean jasotakoak izango dira. Akziodunek badakite beren izaerari aplikagarri zaizkion eskubideak zein diren.

10. Akziodun legitimituren batek, akziodunen batzar orokorra egin aurretik, gai-zerrenda osatzeko edo akordio-proposamen berriak aurkezteko eskubidea erabili badu, sozietateak:
 - a) Puntu osagarri horiek eta akordio proposamen berriak berehala zabaltzea.
 - b) Bertaratze-txartelaren edo botoa edo urruneko botoa emateko inprimakiaren eredu eta egin behar zaizkion aldaketak jakinaraztea, gai-zerrendako puntu berriak eta bestelako akordio-proposamenak bozkatzeko, Administrazio Kontseiluak proposatutakoen modu berean.
 - c) Ordezko puntu edo proposamen horiek guztiak bozketan jartzea, eta Administrazio Kontseiluak formulatu dituen aplikatzen zaizkien boto-arau berberak aplikatzea, barne hartuta, bereziki, botoaren zentzuari buruzko presuntzioak edo ondorioak.

- d) Akziodunen osoko bilkuraren ostean, boto xehatuak argitaratzea puntu osagarri horien edo beste proposamen horien inguruan.

Hiru akziodun soilik daudenez, Batzarrak unibertsalak izan ohi dira; nolana ere, akziodunei bileraren aurretik behar besteko aurrerapenaz igortzen zaie jorratuko diren gaien zerrendari buruzko informazioa eta, era berean, egiten dituzten eskakizunak artatzen dira, legez ezarritako baldintzetan.

11. Akziodunen osoko bilkurara bertaratzeagatik ordainsariak edo primak ordaintzea aurreikusita dagoenean, alde aurretik, prima horien inguruko politika orokor bat zehaztea eta politika hori egonkorra izatea.

Ez da aurreikusi laguntza-prima horien ordainketarik.

12. Administrazio Kontseiluak bere eginkizunak xede bateratuz eta irizpide-independentziaz betetzea, posizio berean dauden akziodun guztiei tratu bera ematea eta interes soziala oinarri hartzea, hau da, epe luzera negozio errentagarria eta jasangarria lortzea, enpresaren jarraitutasuna eta balio ekonomikoaren maximizazioa sustatzeko.

Eta interes soziala bilatzea, legeak eta erregelamenduak errespetatzeaz eta fedean, etikan eta oro har onartutako erabilera eta jardunbide egokiekiko errespetuan oinarritutako portaera izateaz gain, bateragarri izatea, dagokion erara, langileen, hornitzaileen, bezeroen eta eraginpean egon daitezkeen gainerako interes-taldeen bidezko interesekin, bai eta konpainiaren jarduerak beren komunitatean duten inpaktuarekin ere.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du. Kutxabankek erabiltzen duen kudeaketa ereduak modu orekatuan bateratzen dira ekonomiaren etorkizun oparoko, ekitate sozialeko eta ingurumen kalitateko helburuak. Konpromiso hirukoitz horren isla da negozio-eredu kaudimentsu bat, zeinak prozesuak eta eragiketak jasangarritasun ekonomikoaren ildoan lerrotatzen baititu; ingurumena babesteko asmoa, ingurumenaren babesarekiko jarrera proaktibo baten bidez eta bere jarduerak sortzen dituen inpaktuak minimizatzen saiatuz; eta balio ekonomikoaren eta sozialaren sorrera, lankidetzako edo babeseko ekintzen bidez.

13. Administrazio Kontseiluak behar adinako dimentsioa izatea funtzionamendu eraginkorra eta parte-hartzailea lortzeko; beraz, komenigarria da bost eta hamabost kide artean izatea.

Administrazio Kontseilua hamasei (16) kidez dago osatua, eta askotariko profil bateragarriak dituzte, Kutxabanken gobernu eraginkor bat lortzeko.

14. Administrazio Kontseiluak Administrazio Kontseiluaren osaera egokia bultzatzeko politika bat onartzea, zeina:

- a) zehatza eta egiaztagarria izango baita;
- b) izendatzeko eta berriz hautatzeko proposamenak Administrazio Kontseiluak eskatutako gaitasunen alde aurreko analisi batean oinarritzen direla ziurtatuko baitu; eta
- c) jakintza, esperientzia, adin eta genero dibertsitatea erraztuko baitu. Ondorio horietarako, genero-dibertsitatea bultzatzen dute konpainian emakumezko goi-zuzendarien kopuru handi bat egotea bultzatzen duten neurriak.

Administrazio Kontseiluak eskatutako eskumenen aldez aurreko azterketaren emaitza Izendapen Batzordearen justifikazio-txostenean jasotzea, zeina kontseilari bakoitzaren berrespena, izendapena edo berrautaketa egingo duen akziodunen batzar orokorraren deialdian argitaratuko baita.

Izendapen Batzordeak urtero egiaztatuko du politika hori betetzen dela, eta horren berri emango du gobernu korporatiboaren urteko txostenean.

Kutxabankek gomendio hau betetzen du, honako hauek dituelako: (i) Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari orokorren edo parekoen, barne-kontrolako funtzioen arduradunen, finantza-zuzendaritzako arduradunaren eta Kutxabanken beste funtsezko lanpostuen egokitasuna ebaluatzeko politika bat, hari aplikatu behar zaion araudiak zehazten duenaren arabera (10/2014 Legea, ekainaren 26koa, kreditu-entitateen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa, eta hura garatzen duen araudia), eta (ii) Administrazio Kontseiluko kideak izendatzeko hautagaiak aukeratzeko politika bat. Politika horiek ziurtatzen dute izendatzeko edo berrautatzeko proposamenak Administrazio Kontseiluaren beharrak aldez aurretik aztertzean oinarritzen direla eta ezagutza, esperientzia eta genero dibertsitatea bultzatzen dutela.

Halaber, Kutxabankek badu «Administrazio Kontseiluan ordezkari txikiak duen sexua ordezkatzeko helburuari buruzko politika» bat, zeinetan xede gisa ezartzen baita ordezkari txikiak duen sexuaren ehunekoak, 2030ean, Administrazio Kontseiluko kideen % 31,25 edo handiagoa izan behar duela.

15. Jabarizko kontseilariak eta independenteak Administrazio Kontseiluko gehiengo zabal bat izatea, eta kontseilari exekutiboek kopurua ahalik eta txikiak izatea, kontuan hartuta sozietate-taldearen konplexutasuna eta kontseilari exekutiboek sozietatearen kapitalean duten partaidetza-ehunekoak.

Kontseilari emakumeen kopurua gutxienez Administrazio Kontseiluko kideen % 40 izatea 2022 bukatu aurretik eta aurrerantzean, eta aurretik % 30 baino txikiagoa ez izatea.

Kutxabankek zati batean betetzen du gomendio hori. Estatutu sozialek ezartzen dutenez (25. artikulua), Administrazio Kontseiluak, Batzorde Nagusiari proposatzeko eta postu hutsak betetzeko kooptazioko eskubideak erabiliz, kanpoko kontseilarien edo ez-betearazleen organoa osatzeko orduan kontseilari betearazleekiko gehiengo zabalak izatea zainduko du, eta haien barruan kontseilari independenteen arrazoizko kopuru bat egotea, zeinak, gutxienez, kontseilarien guztizkoaren herena izango baitira. Kutxabankek alderdi horiek guztiak betetzen ditu, 2023ko Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenean agerian uzten den moduan.

Halaber, Kutxabankek badu «Administrazio Kontseiluan ordezkari txikiak duen sexua ordezkatzeko helburuari buruzko politika» bat, zeinetan xede gisa ezartzen baita ordezkari txikiak duen sexuaren ehunekoak, 2030ean, Administrazio Kontseiluko kideen % 31,25 edo handiagoa izan behar duela.

16. Kontseilari ez-betearazle guztiekiko jabarizko kontseilarien portzentajea ez izatea kontseilari horiek ordezkari txikiak duen sozietate-kapitalaren eta gainerako kapitalaren arteko proportzioa baino handiagoa.

Irizpide hori arindu daiteke:

- a) Kapitalizazio handiko sozietateetan, legez garrantzitsutzat jotzen diren akzio-

partaidetzak urriak direnean

- b) Administrazio Kontseiluan ordezkariak dituzten akziodunen dibertsitatea dagoenean eta haien artean loturarik ez dagoenean

Kutxabankek gomendio hori betetzen du. Kutxabankek hiru akziodun ditu, kapital sozialaren % 100aren titularrak, eta hirurak jabarizko kontseilariak ordezkatzeko dituzte, ezertan eragotzi gabe sei (6) kontseilari independente egotea.

- 17. Kontseilari independenteen kopurua, gutxienez, kontseilarien gutzizkoaren erdia izatea.

Hala ere, sozietatea ez bada kapitalizazio handikoa, edo, hala izan arren, kapital sozialaren % 30 baino gehiago kontrolatzen duten akziodun bat edo batzuk baditu, kontseilari independenteen kopurua gutxienez kontseilari guztien herena izatea.

Txosten hau onartutako egunean, Kutxabankek sei (6) kontseilari independente ditu, Kontseiluko hamasei (16) kideren artean. Beraz, txosten hau onartutako egunean, kontseilari independenteen kopurua kontseilarien % 37,5 da.

- 18. Sozietateek, beren web-orriaren bidez, kontseilariari buruzko informazio hau argitaratzea eta eguneratuta izatea:

- a) Profil profesionala eta biografikoa.
- b) Partaide diren beste administrazio kontseilu batzuk, sozietate kotizatuak izan ala ez, bai eta egiten dituen ordaindutako gainerako jarduerak ere, edozein dela ere haien izaera.
- c) Zein kontseilari kategoriatakoak diren adieraztea, eta jabarizko kontseilarien kasuan, zein akziodun ordezkatzeko duten edo zeinekin duten lotura.
- d) Zein kontseilari kategoriatakoak diren adieraztea, eta jabarizko kontseilarien kasuan, zein akziodun ordezkatzeko duten edo zeinekin duten lotura.
- e) Konpainiaren akzioak eta titulartasuna duten haien gaineko aukerak.

Kutxabankek neurri batean betetzen du gomendio hori, baina ez du jendaurrean jartzen, webgunearen bidez, gomendio honi dagokion informazio guztia, kontseilarien pribatutasuna errespetatzen duelako eta sozietate kotizatuak ez delako; gainera, gaur egun ez da legez eskatzen.

- 19. Gobernu Korporatiboaren urteko txostenean, Izendatze Batzordeak egiaztatu ondoren, azaltzea zergatik izendatu diren jabarizko kontseilariak kapitalaren % 3 baino gutxiagoko partaidetza duten akziodunek hala eskatuta, eta arrazoitzea zergatik ez diren artatu, hala badagokio, kontseiluan egoteko eskabide formalak, besteen partaidetza berdina edo handiagoa duten eta haiek eskatuta jabarizko kontseilariak izendatu diren akziodunek egindakoak.

Gaur arte ez da halako inguruabarrik gertatu.

- 20. Jabarizko kontseilariak beren dimisioa aurkeztea ordezkatzeko duten akziodunak akzioen partaidetza osoa transmititzen duenean. Eta gauza bera egitea, dagozkion kopuruan, akziodun horrek akzioen partaidetza murrizten duenean, jabarizko kontseilari kopurua murriztea eskatzen duen maila batera arte.

Gaur arte ez da halako inguruabarrik gertatu.

21. Administrazio Kontseiluak ez proposatzea kontseilari independenterik kargutik kentzea, izendatu zuten estatutu-aldia bete aurretik, Administrazio Kontseiluak bidezko arrazoia izan ezean, eta Izendapen Batzordeak txostena egin ondoren. Zehazki, bidezko arrazoi bat dagoela ulertuko da baldin eta kontseilariak bere berezko funtzioak betetzeko beharrezkoa den denbora izatea eragozten dioten kargu berriak betetzen baditu edo obligazio berriak hartzen baditu beregain, bere karguari dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu edo independente izateari uzten dioten inguruabarren batean erortzen bada, aplikatu beharreko legerian ezarritakoaren arabera. Era berean, kontseilari independenteak bereiztea proposatu ahal izango da, eskuratzeko eskaintza publikoen, bategiteen edo antzeko beste eragiketa korporatibo batzuen ondorioz, baldin eta sozietatearen kapital-egituran aldaketa eragiten badute, eta Administrazio Kontseiluaren egituran izandako aldaketa horiek 16. gomendioan adierazitako proportzionaltasun-irizpidearen ondorio badira.

Gaur arte, Kutxabankek ez du proposatu kontseilari independente bat kargutik kentzea izendatutako estatutuaren araberrako aldia bete aurretik.

22. Sozietateek zenbait arau ezartzea kontseilariak nahitaez informatu dezaten eta, hala badagokio, dimititu dezaten, sozietatean izan duten jardunarekin lotuta sozietateen kredituari eta izen onari kalte egin diezaieketen egoerak gertatzen direnean, eta, bereziki, nahitaez eman diezaioten Administrazio Kontseiluari ikertu gisa agertzen diren edozein kausa penalen eta gorabehera prozesalen berri.

Eta, Kontseiluari aurreko paragrafoan aipatutako egoerei buruz jakinarazi ondoren edo haien berri beste moduren batean jakin duenean, kasua ahal bezain laster aztertzea eta, egoera zehatzei erreparatuta, eta izendapen eta ordainsari batzordeek txostena egin ondoren, ebaztea neurriren bat hartu behar duen ala ez, esaterako, barne-ikerketak bat irekitzea, kontseilariaren dimisioa eskatzea edo kargutik kentzeko proposatzea. Eta horri buruz informatzea Gobernu Korporatiboaren urteko txostenean, arrazoizko baldintza bereziak daudenean izan ezik, zeinak aktan bildu beharko diren. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe neurri egokiak hartzeko unean sozietateak, bidezkoa bada, dagokion informazioa ematea.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du, eta gaur arte ez da egon aipatutako inguruabarrik.

Administrazio Kontseiluaren araudiaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontseilariak, beste zenbait inguruabarren artean, kargua utzi beharko dute baldin eta i) Kontseiluan jarraitzeak Kutxabankeen interesak arriskuan jarri ahal baditu, eta ii) haien kontra ahozko judizioa zabaltzeko autoa ematen bada, legez tipifikatutako delituzko edozein egintzaren ondorioz.

Halaber, Kontseiluari jakinarazi beharko dizkiote aipaturiko inguruabar horiek eta, bereziki, ikertu gisa agertzen diren kausa penalak.

23. Kontseilari guztiek beren desadostasuna argi eta garbi adieraztea, Administrazio Kontseiluari aurkeztutako erabaki-proposamenen bat interes sozialaren aurkakoa izan daitekeela uste dutenean. Eta beste horrenbeste egin dezatela, bereziki, kontseilari independenteek eta interes-gatazkaren eraginik jasaten ez duten gainerako kontseilariak, Administrazio Kontseiluan ordezkaturik ez dauden akziodunei kalte egin diezaiieketen erabakiak direnean.

Eta, baldin eta kontseilariak Administrazio Kontseiluak hartutako erabaki esanguratsuren bati edo zenbait erabakiri buruz erreparatu handiak baditu, dagozkion ondorioak ateratzea eta, dimititzea erabakitzen badu, arrazoiak azaltzea hurrengo gomendioan aipatzen den gutunean. Gomendio honek Administrazio Kontseiluaren idazkaria ere hartzen du barne, nahiz eta kontseilari izaera ez izan.

Kutxabankek gomendio hau betetzen du, eta gaur arte ez da gertatu aipatutako inguruabarrik; nolahi ere, Administrazio Kontseiluan eta haren batzorde delegatuaren eztabaidak egon daitezke.

24. Dimisioagatik edo batzar orokorrak hala erabakita, kontseilari batek bere kargua agintaldia amaitu baino lehen uzten duenean, dimisioaren arrazoiak behar bezala azaltzea edo, kontseilari ez-betearazleen kasuan, batzordeak erabakita kargu-uztearen arrazoiak buruzko iritzia azaltzea, Administrazio Kontseiluko kide guztiei bidaliko dien gutun batean.

Eta, ezertan eragotzi gabe horren berri ematea Gobernu Korporatiboaren urteko txostenean, inbertsoreentzat garrantzitsua bada, sozietateak ahalik eta azkarren ematea kargu-uztearen berri, eta behar beste aipatzea kontseilariak azaldutako arrazoiak edo inguruabarrak.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du. Kontseiluaren araudiaren 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, edozein arrazoiengatik kontseilari batek kargua agintaldia bukatu aurretik uzten badu, arrazoiak azaldu beharko dizkio zuzenean Kontseiluari berari, edo idazkariari edo idazkariordeari gutun bat bidaliz, eta Kontseiluaren hurrengo bileran emango du horren berri.

25. Izendatze Batzordeek ziurtatzea betearazleak ez diren kontseilariak denbora nahikoa dutela beren betekizunak gauzatzeko.

Eta kontseiluaren erregelamenduak adieraztea zenbat sozietateren kontseiluetan parte har dezaketen bere kontseilariak.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du. Kutxabankek, indarreko araudiak jasotzen duenari jarraikiz, politika bat du Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari nagusien edo parekoen, barne-kontrolako funtzioen arduradunek, zuzendaritza finantzarioko arduradunen eta Kutxabanken jarduera gauzatzeko funtsezkoak diren beste lanpostu batzuen egokitasuna ebaluatzeko. Politika horren helburua da adieraztea zer irizpide hartu behar dituen aintzat sozietateak Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari nagusien edo parekoen, barne-kontrolako funtzioen arduradunek, zuzendaritza finantzarioko arduradunen eta Kutxabanken jarduera gauzatzeko funtsezkoak diren beste lanpostu batzuen egokitasuna ebaluatzeko.

Kutxabankek Administrazio Kontseiluak onartutako politika hori bateragarria da estatutuetan, Administrazio Kontseiluaren araudian eta batzorde delegatuen araudietan, Kutxabankek Administrazio Kontseiluko kide izendatzeko hautagaiak aukeratzeko politikan eta Kutxabanken interes-gatazkak kudeatzeko araudian ezarritakoarekin.

Horri dagokionez, Administrazio Kontseiluko kideen egokitasuna ebaluatzeko, besteak beste, kontuan hartuko da haien ohore komertziala eta profesionala, eta haien ezagutza eta esperientzia. Administrazio Kontseiluko kideen kasuan, gobernu onari dagozkion alderdiak ere ebaluatzen dira, zenbait adierazleren bidez, esaterako, dedikaziorako gaitasuna, independentzia eta interes gatazkarik eza. Horretan guztian araudi sektoriala betetzen da, zeina, halaber, aplikatzekoa baita

sozietatearentzat, kreditu-erakundea delako. Araudi sektorialak, besteak beste, kontseilariak gehienez ere zenbat sozietate-kontseilutan parte har dezaketen ezartzen du.

26. Administrazio Kontseilua bere eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar den maiztasunaz biltzea eta, gutxienez, urtean zortzi aldiz, ekitaldiaren hasieran ezarritako data- eta gai-programari jarraituz. Kontseilari bakoitzak hasieran aurreikusi ez diren gai-zerrendako beste puntu batzuk proposatu ahal izango ditu.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du, eta Administrazio Kontseilua hamaika (11) aldiz bildu da 2023an.

27. Kontseilarien ez-agertzeak ezinbesteko kasuetara murriztea eta gobernu korporatiboaren urteko txostenean kuantifikatzea. Eta, gertatu behar direnean, jarraibidedun ordezkari ematea.

Kutxabankek zati batean betetzen du gomendio hau, ez baita existitzen adierazitako datua islatzeko atalrik Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenaren erudian.

Izan ere, kontseilarien ez-agertzeak ezinbesteko kasuetara murrizten dira, eta 2023an ez da Administrazio Kontseiluko kideen ez-agertzerik egon. Era berean, Administrazio Kontseiluaren araudiaren 21.2 artikulua zehazten du Kontseiluaren saioetara joan ezin duten Kontseilariak euren ordezkapena beste bati esleitzen saiatuko direla. Azkenik, ez-agertzeak baleude, urtean behin egindako Administrazio Kontseiluaren ebaluazio-txostenean jasoko dira.

28. Kontseilariak edo idazkariak proposamenen bati buruz edo, kontseilarien kasuan, sozietatearen martxari buruz kezka adierazten dutenean eta kezka horiek Administrazio Kontseiluan ebatzen ez direnean, aktan jasota uztea, adierazi dituenak hala eskatzen badu.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

29. Sozietateak bide egokiak ezartzea kontseilariak beren eginkizunak betetzeko behar duten aholkularitza jaso dezaten, barne hartuta, inguruabarrek hala eskatzen badute, kanpoko aholkularitza, enpresaren kontura.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

30. Kontseilariak beren betekizunak bete ahal izateko eskatuko zaizkien ezagutzak gorabehera, sozietateek kontseilariak ezagutzak eguneratzeko programak ere eskaintzea, egoeratik komeni denean.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du. Are zehatzago, Kutxabankek 2023an Prestakuntza Programa bat izan du Administrazio Kontseiluak onartutako kontseilariarentzat.

31. Bilkuretako gai-zerrendak argi eta garbi adieraztea zein puntutan hartu behar duen Administrazio Kontseiluak erabakia, kontseilariak aukera izan dezaten aztertzeko edo, alde aurretik, erabakia hartzeko behar den informazioa biltzeko.

Salbuespen gisa, presazko arrazoiak direla medio, presidentek Administrazio Kontseiluari gai-zerrendan agertzen ez diren erabakiak onartzeko aurkeztu nahi dizkionean, beharrezkoa izango da bertaratutako kontseilarien gehiengoaren alde aurreko eta berriazko baimena, eta horren berri jasoko da aktan.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du. Bilkuren gai-zerrendan argi adierazten dira Administrazio Kontseiluak erabakiak edo akordioak hartzeko puntuak. Era berean, salbuespen gisa, presazko arrazoiak direla medio, presidenteak Administrazio Kontseiluari gai-zerrendan agertzen ez diren erabakiak onartzeko aurkezten dizkionean, beharrezkoa izango da bertaratutako kontseilarien gehiengoaren alde aurreko eta berariazko baimena, eta horren berri jasoko da aktan.

32. Kontseilarietara aldi-aldi ematea akziodunen mugimenduen berri, bai eta akziodun esanguratsuek, inbertitzaileek eta sailkapen-agentziek sozietatearen eta taldearen inguruan duten iritzia berri ere.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du, eta gaur arte ez da gertatu mugimendurik akziodunen artean.

33. Presidenteak, Administrazio Kontseiluaren funtzionamendu eraginkorraren arduradun gisa, legez eta estatutuetan esleitu zaizkion betekizunak betetzeaz gain, datei eta jorratu beharreko gaietara buruzko programa bat prestatzea eta Administrazio Kontseiluari aurkeztea; kontseiluaren eta, hala badagokio, sozietatearen lehenengo betearazlearen aldizkako ebaluazioa antolatu eta koordinatzea; kontseiluaren zuzendaritzaren eta haren funtzionamenduaren eraginkortasunaren arduraduna izatea; gai estrategikoen inguruan behar beste denboraz eztabaidatzen dela egiaztatzea; eta kontseilari bakoitzaren ezagutzak eguneratzeko programak berrikustea, inguruabarrek ahalbidetzen dutenean.

Kutxabankek gomendio hau betetzen du, ezertan eragotzi gabe Erakundearen kontseilari koordinatzaile bat egotea, zeinak, besteak beste, Izendatze Batzordeak esleitutako eginkizunetaz gain, Administrazio Kontseiluaren, haren presidentearen eta kontseilari delegatuaren aldizkako ebaluazioa antolatu eta koordinatzeko ardura izango baitu.

Presidenteak, besteak beste, Kontseiluaren zuzendaritzaren eta haren funtzionamenduaren eraginkortasunaren arduraduna da, gai estrategikoei buruz eztabaidatzeko behar besteko denbora ematen dela ziurtatzen du eta, hala badagokio, kontseilarien prestakuntza-programen proposamenetan laguntzen du.

34. Kontseilari koordinatzaile bat dagoenean, Administrazio Kontseiluaren estatutuek edo araudiak, legez dagozkion ahalmenetaz gain, honako hauek ere ematea: Administrazio Kontseiluko buru izatea presidentea eta presidenteordeak ez daudenean, halakorik balego; kontseilari ez-betearazleentzako kezken berri ematea; inbertitzaileekin eta akziodunekin harremanak izatea, haien ikuspuntuak ezagutzeko, haien kezken gaineko iritzia jakiteko, bereziki, sozietatearen gobernu korporatiboari buruz pentsatzen dutena; eta presidentearen ondorengotza-plana koordinatzea.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

35. Administrazio Kontseiluko idazkariak bereziki zaintzea Administrazio Kontseiluak bere jardunean eta erabakietan kontuan har ditzan Kode honetan gobernu onari buruz jaso eta sozietateari aplikatu ahal zaizkion gomendioak.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

36. Administrazio Kontseiluak alderdi hauek urtean behin ebaluatzea eta, hala badagokio, horien inguruko gabeziak zuzentzeko ekintza-plan bat ezartzea:

- a) Administrazio Kontseiluaren funtzionamenduaren kalitatea eta efizientzia.
- b) Batzordeen funtzionamendua eta osaera.
- c) Dibertsitatea Administrazio Kontseiluaren osaeran eta eskumenetan.
- d) Administrazio Kontseiluaren presidentearen eta sozietateko lehen betearazlearen jarduna.
- e) Kontseilari bakoitzaren jarduna eta ekarpena, arreta berezia jarrita kontseiluaren batzordeetako arduradunei.

Batzordeen ebaluazioa egiteko, batzordeok Administrazio Kontseiluari igorritako txostena hartuko da abiapuntu, eta Administrazio Kontseiluaren ebaluaziorako, berriz, Izendapen Batzordeak aurkezten dion txostena.

Hiru urtean behin, kanpoko aholkulari batek ebaluazioa egiten lagunduko dio Administrazio Kontseiluari, eta Izendatze Batzordeak haren independentzia egiaztatuko du.

Aholkulariak edo taldeko edozein sozietatek sozietatearekin edo taldeko beste sozietate batekin dituen negozio-harremanak Gobernu Korporatiboaren urteko txostenean xehatuko dira.

Ebaluatutako prozesua eta eremuak Gobernu Korporatiboko urteko txostenean deskribatuko dira.

Kutxabankek partzialki betetzen du gomendio hau; izan ere, oraingoz, ez da aurrekusi 3 urtean behin kanpoko aholkulari batek parte hartzerik.

37. Batzorde betearazle bat dagoenean, horretan gutxienez bi kontseilari ez-betearazle egotea, horietako bat gutxienez independentea, eta idazkaria Administrazio Kontseilukoa izatea.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du. Batzorde Betearazle bat dago, sei (6) kontseilari ez-exekutibo dituen, zeinetan idazkaria Administrazio Kontseiluko idazkari bera baita.

38. Administrazio Kontseiluak beti ezagutzea aztertutako gaiak eta Batzorde Betearazleak hartutako erabakiak, eta Administrazio Kontseiluko kide guztiek Batzorde Betearazlearen bilkuretako akten kopia bat jasotzea.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du. Administrazio Kontseiluak beti ezagutzen ditu aztertutako gaiak eta Batzorde Betearazleak hartutako erabakiak, eta bilkuretako aktak kontseilari guztien eskura daude.

39. Auditoretza eta Betetze Batzordeko kideak oro har eta, bereziki, presidentea izendatzeko orduan, aintzat hartzea arrisku finantzario eta ez-finantzarioen kontabilitatearen, auditoretzen eta kudeaketaren arloan dituzten ezagutzak eta esperientzia.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

40. Auditoretza eta Betetze Batzordearen ikuskaritzapean barne-auditoretzaren funtzioa bere gain hartuko duen unitate bat izatea, zeinak barne-informaziorako eta

kontrolerako sistemen funtzionamendu egokia zainduko baitu, eta zeina kontseiluko presidente ez-betearazlearen edo Auditoretza eta Betetze Batzordearen mende egongo baita funtzionalki.

Kutxabankek betetzen du gomendio hori, aintzat hartuta Barne Ikuskaritzako, Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko eta Arriskuaren Kontrol Orokorreko unitateak, zeinak zuzeneko sarbidea baitute Administrazio Kontseilura.

41. Barne-auditoretzako funtzioa bere gain hartzen duen unitate-arduradunak Auditoretza eta Betetze Batzordeari bere urteko lan-plana aurkeztea, Batzordeak edo Kontseiluak onar dezaten, haren gauzatzearen berri ematea, barne hartuta haren garapenean, emaitzetan eta gomendioen jarraipenean sor daitezkeen gorabeherak eta mugak, bai eta ekitaldi bakoitzaren amaieran jardueren txostena bidaltzea ere.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

42. Legeak ezarritako funtzioez gain, Auditoretza eta Betetze Batzordeak honako eginkizun hauek izatea:

1. Barne-informazio eta -kontrolako sistemekin lotuta:

- a) Informazio finantzarioa eta ez-finantzarioaren prestaketa-prozesua eta haren osotasuna ikuskatu eta ebaluatzea, bai eta sozietateari lotutako arrisku finantzario eta ez-finantzarioak kontrolatu eta kudeatzeko sistemak ere eta, hala badagokio, taldeari lotutakoak —barne hartuta operatiboak, teknologikoak, legezkoak, sozialak, ingurumenekoak, politikoak eta osperei buruzkoak edo ustelkeriarekin lotutakoak—, araudiaren eskakizunak betetzen direla, kontsolidazio-perimetroa egoki mugatzen dela eta kontabilitate-irizpideak behar bezala betetzen direla zainduz.
- b) Barne-auditoretzaren eginkizuna bere gain hartzen duen unitatearen independentzia zaintzea; barne-auditoretzaren zerbitzuko arduradunaren hautapena, izendapena eta kargu-uztea proposatzea; barne-auditoretzaren norabidea eta urteko lan-plana onartu edo Kontseiluari proposatzea onar dezaten, haren jarduerak nagusiki arrisku esanguratsuak (osperei buruzkoak barne) hartzen dituela ardatz ziurtatuta; aldizkako informazioa jasotzea haren jardueren inguruan; eta goi-zuzendaritzak txostenetako ondorioak eta gomendioak kontuan hartzen dituela egiaztatzea.
- c) Mekanismo bat ezarri eta ikuskatzea, langileek eta sozietatearekin zerikusia duten beste pertsona batzuek, esaterako, kontseilariek, akziodunek, hornitzaileek, kontratistek eta azpikontratistek, aukera izan dezaten konpainiarekin lotuta beren enpresan edo taldean hauteman dituzten eta garrantzitsuak izan daitezkeen irregulartasunak jakinarazteko, barne hartuta finantza- eta kontabilitate-arlokoak, baita beste edozein motatakoak ere. Mekanismo horrek konfidentzialtasuna bermatu beharko du eta, betiere, jakinarazpenak modu anonimoan egin daitezkeen kasuak aurreikusi beharko ditu, salatzailearen eta salatuaren eskubideak errespetatuz.
- d) Oro har, barne-kontrolaren arloan ezarritako politikak eta sistemak praktikan eraginkortasunez aplikatzen direla zaintzea.

2. Kanpo-ikuskariekin lotuta:

- a) Kanpoko ikuskariak uko egingo balu, horren arrazoiak aztertzea.
- b) Kanpoko ikuskariaren lanaren ondoriozko ordainsariak bere kalitatea eta independentzia arriskuan jartzen ez dituela zaintzea.
- c) Ikuskatzea sozietateak BMBNaren bidez ikuskatzaile-aldaketaren berri ematen duela eta, horrekin batera, kargua uzten duen ikuskatzailearekin desadostasunik dagoen adieraztea eta, halakorik izan bada, haren edukia azaltzea.
- d) Ziurtatzea kanpoko ikuskatzaileak urtero Administrazio Kontseiluaren Osoko Bilkurarekin bilera egiten duela, egindako lanaren eta sozietatearen kontabilitate eta arrisku-egoeraren bilakaeraren berri emateko.
- e) Ziurtatzea sozietateak eta kanpoko ikuskatzaileak behar bezala betetzen dituztela auditoretzakoak ez diren zerbitzuak emateari buruz indarrean dauden arauak, ikuskatzailearen negozioaren kontzentrazio-mugak eta, oro har, ikuskatzaileen independentziari buruzko gainerako arauak.

Kutxabankek gomendio hau betetzen du aplikatzekoa zaion eta izan zaion guztian, une bakoitzean indarrean dagoen legeriak, Kutxabanken estatutuek, Administrazio Kontseiluaren erregelamenduak eta Auditoretza eta Betetze Batzordearen erregelamenduak ezartzen duenari jarraikiz.

43. Auditoretza eta Betetze Batzordeak sozietateko edozein langile edo zuzendariri deitu ahal izatea, eta beste zuzendaririk gabe ager daitezela xedatzea.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

44. Auditoretza eta Betetze Batzordeari informazioa ematea sozietateak egin nahi dituen egiturazko aldaketen eta aldaketa korporatiboen inguruan, haiek aztertu eta Administrazio Kontseiluari baldintza ekonomikoen eta haien kontabilitatearen gaineko txostena igor diezaion, proposatutako truke-ekuazioaren inguruan bereziki.

Gaur arte ez da halako inguruabarririk gertatu.

45. Arriskuen kontroleko eta kudeaketako politikak gutxienez alderdi hauek identifikatu edo zehaztea:

- a) Sozietateak aurrez aurre dituen arrisku guztiak, finantzarioak eta ez-finantzarioak (besteak beste operatiboak, teknologikoak, legezkoak, sozialak, ingurumenekoak, politikoak eta ospari buruzkoak, ustelkeriarekin lotutakoak barne), barne hartuta, finantzario edo ekonomikoen barruan, pasibo kontingenteak eta balantzetik kanpoko beste arrisku batzuk.
- b) Arriskuen kontroleko eta kudeaketako eredu bat, zenbait mailatan oinarritua, zeinetan arriskueta espezializatutako batzorde bat egongo baita, sektoreko arauak edo sozietateak egoki ikusten dutenean.
- c) Sozietateak onargarriztat jotzen duen arrisku-maila.
- d) Identifikatutako arriskuen inpaktua arintzeko aurreikusitako neurriak.
- e) Arrisku horiek kontrolatu eta kudeatzeko erabiliko diren barne-informaziorako eta -kontrolerako sistemak, pasibo kontingenteak edo balantzetik kanpoko

arriskuak barne.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

46. Auditoretza eta Betetze Batzordearen edo, hala badagokio, Administrazio Kontseiluko batzorde espezializatu baten zuzeneko ikuskaritzapean, arriskuak kontrolatu eta kudeatzeko barne-funtzio bat izatea, sozietatearen barne-unitate edo sail batek gauzatua, eta eginkizun hauek berariaz esleituak izatea:
- a) Ziurtatzea arriskuak kontrolatu eta kudeatzeko sistemek ondo funtzionatzen dutela eta, bereziki, gizarteari eragiten dioten arrisku garrantzitsu guztiak egokiro identifikatu, kudeatu eta kuantifikatzen direla.
 - b) Aktiboki parte hartzea arriskuen estrategia prestatzen eta haren kudeaketari buruzko erabaki garrantzitsuak hartzen.
 - c) Arriskuak kontrolatu eta kudeatzeko sistemek arriskuak behar bezala arintzen dituztela zaintzea, Administrazio Kontseiluak zehaztutako politikaren esparruan.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

47. Izendapenen eta Ordainketen Batzordeko kideak –edo Izendapen Batzordeko eta ordainketen Batzordeko kideak, bereizita baleude– bete behar dituzten funtzioekiko egokiak diren ezagutza, gaitasun eta esperientzia egokiak dituztela zainduta izendatzea, eta kide horien gehiengoa kontseilari independenteak izatea.

Kutxabankek zati batean betetzen du gomendio hori. Kideak izendatzeko orduan, aintzat hartu zen haien ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia bete behar zituzten funtzioen arabekoak zirela. Ordainketen Batzordean, gehiengoa kontseilari independenteak dira. Izendatze Batzordean, kideen % 50 dira.

48. Kapitalizazio handiko sozietateek izendapenen batzorde bat eta ordainsari bereizien batzorde bat izatea.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

49. Izendapen Batzordeak Administrazio Kontseiluko presidenteari eta sozietateko lehen betearazleari kontsulta egitea, batez ere kontseilari betearazleei buruzko gaietan.

Eta edozein kontseilarik eskatu ahal izatea Izendatze Batzordeari aintzat har ditzan, bere ustez egokiak direla uste badu, kontseilari postuak estaltzeko hautagai potentzialak.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du, kontseilari betearazleen funtzioen esleipenaren arabera aplikatzekoa zaion esparruan.

50. Ordainsarien Batzordeak bere eginkizunak independentziaz betetzea eta, legeak ematen dizkion eginkizunez gain, honako hauek ere egitea:

- a) Administrazio Kontseiluari proposatzea goi zuzendarien kontratuen oinarrizko baldintzak.
- b) Sozietateak ezarritako ordainketa-politika betetzen dela egiaztatzea.

- c) Aldian behin berrikustea kontseilariari eta goi zuzendariei aplikatutako ordainsarien politika, barne hartuta akziodun ordainsari-sistemak eta horien aplikazioa, eta bermatzea haien banakako ordainsaria sozietateko gainerako kontseilariari eta goi zuzendariei ordaintzen zaienarekiko proportzionala dela.
- d) Zaintzea egon daitezkeen interes-gatazkek ez dutela kaltetzen Batzordeari ematen zaion kanpoko aholkularitzaren independentzia.
- e) Kontseilarien eta goi zuzendarien ordainsariei buruzko informazioa egiaztatzea dokumentu korporatiboetan, barne hartuta kontseilarien ordainsariei buruzko urteko txostena.

Kutxabankek gomendio hau betetzen du, aplikatzekoa den guztian.

51. Ordainketen Batzordeak presidenteari eta sozietateko lehen exekutiboari kontsulta egitea, batez ere kontseilari exekutiboari buruzko gaietan.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du, kontseilari betearazleen funtzioen esleipenaren arabera aplikatzekoa zaion esparruan.

52. Ikuskapen eta kontroleko batzordeen osaera- eta funtzionamendu-arauak Administrazio Kontseiluaren araudian agertzea, eta aurreko gomendioen arabera legez nahitaezkoak diren batzordeei aplikatzen zaizkienekin bat etortzea, barne hartuta:

- a) Kontseilari ez-betearazlez soilik osatuta egotea, eta gehienak kontseilari independenteak izatea.
- b) Haien presidentek kontseilari independenteak izatea.
- c) Administrazio Kontseiluak batzorde horietako kideak izendatzea, kontuan hartuta kontseilarien ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia eta batzorde bakoitzaren eginkizunak, eta haien proposamen eta txostenei buruz eztabaidatzea; eta bileren osteko Administrazio Kontseiluaren lehenengo osoko bilkuran haien jardueren eta egindako lanaren berri ematea.
- d) Batzordeek kanpo aholkularitza jaso ahal izatea, beren eginkizunak gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dutenean.
- e) Beren bileren akta egitea, eta kontseilari guztien eskura jartzea.

Kutxabankek gomendio hau betetzen du, kontroleko funtzioak dituzten gaur egungo batzorde delegatuetan.

53. Sozietateak ingurumenaren, gizartearen eta gobernu korporatiboaren arloko politikak eta arauak eta barneko jardunbide-kodeak betetzen dituela ikuskatzeko lana Administrazio Kontseiluko batzorde bati esleitzea edo batzorde batzuen artean banatzea, esaterako, Auditoretza eta Betetze Batzordeari, Izendapenen Batzordeari, jasangarritasunean edo erantzukizun sozial korporatiboan espezializatutako batzorde bati edo Administrazio Kontseiluak bere burua antolatzeke gaitasunak erabiliz sortu duen beste batzorde espezializatu bati. Eta batzorde hori kontseilari ez-betearazleek soilik osatzea, gehiengo independentea izanik, eta hurrengo gomendioan aipatzen diren gutxieneko eginkizunak berariaz esleitzea.

Kutxabankek partzialki betetzen du gomendio hau, eta aipatutako ikuskapena

Administrazio Kontseiluak osoko bilkuran edo batzorde delegaturen batek egiten du.

54. Aurreko gomendioetan aipatutako gutxieneko eginkizunak hauek dira:

- a) Gobernu korporatiboaren arauak eta enpresaren barneko jokabide-kodeak betetzen direla ikuskatzea, eta, aldi berean, kultura korporatiboa haren helburu eta balioekin bat datorrela zaintzea.
- b) Informazio ekonomiko-finantzarioaren, ez-finantzarioaren eta korporatiboaren komunikazioari eta akziodun eta inbertitzaileekiko, boto aholkulariekiko eta bestelako interes taldeekiko komunikazioari buruzko politika orokorraren aplikazioa ikuskatzea. Halaber, erakundeak akziodun txikiekin komunikatzeko eta harremanak izateko erabiliko duen moduaren jarraipena egingo da.
- c) Sozietatearen gobernu-sistema korporatiboa eta ingurumen- eta gizarte-arloko politika aldian behin ebaluatu eta berrikustea, gizarte-interesa sustatzeko xedea bete dezaten eta aintzat har ditzaten, hala badagokio, gainerako interes-taldeen interes legitimoak.
- d) Sozietateak ingurumen- eta gizarte-arloan egiten dituen jardunbideak ezarritako estrategia eta politikarekin bat datozeala ikuskatzea.
- e) Interes-taldeekiko harreman-prozesuak ikuskatu eta ebaluatzea.

Kutxabankek partzialki betetzen du gomendio hau, eta Administrazio Kontseiluak osoko bilkuran edo batzorde delegaturen batek beteko ditu aipatutako eginkizunak.

55. Ingurumen- eta gizarte-arloetako jasangarritasun-politikek gutxienez alderdi hauek identifikatu eta jasotzea:

- a) Akziodunen, langileen, bezeroen, hornitzaileen, gizarte-gaien, ingurumenaren, dibertsitatearen, erantzukizun fiskalaren, giza eskubideen errespetuaren eta ustelkeria eta legearen kontrako beste jokabide batzuk prebenitzearen arloko printzipioak, konpromisoak, helburuak eta estrategia.
- b) Politikak, lotutako arriskuak eta horien kudeaketa betetzen diren jakiteko metodo eta sistemak.
- c) Arrisku ez-finantzarioa ikuskatzeko mekanismoak, alderdi etikoekin eta enpresa-jokabideekin lotutakoak barne.
- d) Interes-taldeekin komunikatu, parte hartu eta eztabaidatzeko bideak.
- e) Komunikazio arduratsuko jardunbideak, informazio-manipulazioa saihesteko eta osotasuna eta ohorea babesteko.

Kutxabankek betetzen ditu helburuei, estrategiei eta jardunbideei dagozkien gomendioak.

56. Kontseilarien ordainsaria kontseilariak nahi den profiltera erakartzeko eta karguak eskatzen duen dedikazioa, gaitasuna eta erantzukizuna ordaintzeko behar adinakoa izatea, baina ez kontseilari ez-betearazleen irizpideen independentzia arriskuan jartzeko bezain handia.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

57. Kontseilari betearazleetara mugatzea sozietatearen errendimenduarekin eta jarduera pertsonalarekin lotutako ordainsari aldakorak, bai eta akzioak, aukerak edo akzioen gaineko eskubideak edo akzioaren balioarekin lotutako tresnak edo epe luzeko aurrezki-sistemak entregatzearen bidezko ordainketak ere, esaterako, pentsio-planak, erretiro-sistemak edo gizarte-aurreikuspeneko beste sistema batzuk.

Kontseilari ez-betearazleei akzioak ordainsari gisa eman ahal izango zaizkie, kontseilari izateari uzten dioten arte akzioekin jarraitzeko baldintza betetzen bada. Aurrekoa ez zaie aplikatuko kontseilariak bere eskurapenarekin lotutako kostuak ordaintzeko besterendu behar dituen akzioei.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

58. Ordainsari aldakorren kasuan, ordainsari-politikek beharrezkoak diren mugak eta zuhurtzia teknikoak izatea, ordainsari horiek onuradunen errendimendu profesionalarekin zerikusia dutela ziurtatzeko, eta bermatzeko ez direla soilik merkatuen edo konpainiaren jarduera-sektorearen bilakaera orokorretik edo antzeko beste egoera batzuetatik eratorzen.

Eta, bereziki, ordainketen osagai aldakorrek alderdi hauek betetzea:

- a) Aurretik zehaztutako etekin-irizpide neurgarriekin lotuta egotea, eta irizpide horiek emaitza lortzeko hartutako arriskua kontuan hartzea.
- b) Enpresaren jasangarritasuna sustatzea eta finantzarioak ez diren irizpideak barne hartzea epe luzeko balioa sortzeko, esaterako, sozietatearen barne prozedurak, arauak eta barne-prozedurak eta arriskuen kontrolerako eta kudeaketarako politikak betetzea.
- c) Epe labur, ertain eta luzeko helburuen betetze-mailaren oreka batean oinarrituta egituratzea, eta aukera ematea balio-sorkuntza jasangarrian egin duen ekarpena nabaritzeko behar besteko denboraz egindako jardun jarraitu bateko errendimendua ordaintzeko, halako moldez non errendimendu hori neurtzeko elementuek ez baitituzte gertakari puntual, noizbehinkako edo apartekoak soilik aintzat hartuko.

Kutxabankek gomendio hori betetzen du.

59. Ordainsariaren osagai aldakorren ordainketan behar bezala egiaztatuta geratzea eraginkortasunez bete dituztela aurrez ezarritako errendimendu-baldintzak edo beste mota batekoak. Erakundeek kontseilarien ordainsarien urteko txostenean sartuko dituzte egiaztapen hori egiteko behar den denborari buruzko irizpideak eta metodoak, osagai aldakor bakoitzaren izaeraren eta ezaugarrien arabera.

Horrez gain, erakundeek murrizketako klausula bat (*malus*) ezartzeko aukera aztertzea; horren arabera, osagai aldakorren zati baten ordainketa behar beste denboraz atzeratzen da, eta guztiz edo partzialki gal daiteke, baldin eta ordaintzeko unearen aurretik komenigarri bihurtzen duen gertakariren bat badago.

Kutxabankek gomendio hau betetzen du, legeak ezarritako terminoetan.

60. Sozietatearen emaitzekin zerikusia duten ordainsariekin kontuan hartzea kanpoko ikuskatzailearen txostenean egon daitezkeen salbuespenak eta emaitza horiek txikiagotzea.

Kutxabanke gomendio hori betetzen du.

61. Kontseilari betearazleen ordainsari aldakorraren ehuneko garrantzitsu bat haien balioari dagozkion akzioen edo finantza-tresnen entregarekin lotuta egotea.

Kutxabanke gomendio hori betetzen du. Sozietatearen egituragatik, erakunde ez-kotizatu den aldetik, akzioen ordezeko tresnen bidez gauzatzen da, zeinak ordeztan dituzten jabetza-interesen ondorio berberak baitituzte galerak edo irabaziak barneratzeko ahalmenari dagokionez.

62. Ordainsari-sistemei dagozkien akzioak, aukerak edo tresna finantzarioak esleitu ondoren, kontseilari betearazleek ezin izatea beren titulartasuna transferitu edo erabili, gutxienez hiru urteko epea igaro arte.

Salbuespena egingo da baldin eta kontseilariak, eskualdaketaren unean edo ekitaldian, esposizio ekonomiko garbia badu akzioen prezioaren aldatetarekiko, bere urteko ordainsari finkoa baino gutxienez bi aldiz handiagoa den merkatu-balio batez, akzioen, aukeren edo bestelako finantza-tresnen titulartasunaren bidez.

Aurrekoa ez zaie aplikatuko kontseilariak bere eskurapenarekin lotutako kostuak ordaintzeko edo, izendapen eta ordainketa batzordeak ontzat eman ondoren, hala eskatzen duten ezusteko egoerei aurre egiteko besterendu behar dituen akzioei.

Finantza-erakundeei aplikatuko zaien zuhurtziazko araudiaren berriazko eskakizunak gorabehera, gomendio hori ez litzaioke aplikatuko Kutxabanki, kontseilari betearazleei ez baitzaie akzioekin ordaintzen.

63. Kontratuko akordioek barne hartzea klausula bat, zeinak sozietateari aukera emango baitio ordainsariaren osagai aldakorren itzulketa erreklamatzeko, ordainketa errendimenduen baldintzetara egokitu ez denean edo geroago okerrak zirela egiaztatu diren datuen arabera ordaindu denean.

Kutxabanke gomendio hori betetzen du, araudiak eskatutakoaren arabera.

64. Kontratua suntsiarazteagatik edo azkentzeagatik egindako ordainketek ez gaintitzea urteko ordainsari osoaren bi urteko zenbatekoaren baliokidea, eta ez ordaintzea sozietateak egiaztatu arte kontseilariak behar bezala bete dituela ordainketa horiek jasotzeko ezarritako irizpide edo baldintzak.

Gomendio honen ondorioetarako, kontratua suntsiarazteagatik edo azkentzeagatik egindako ordainketek barne hartzen dute kontseilaria eta sozietatea lotzen zituen kontratu-harremana amaitzearen ondorioz sortutako sortzapen edo obligazioen ordainketa oro, barne hartuta epe luzeko aurrezki-sistemen aurrez finkatu gabeko zenbatekoak eta kontratuaren ondoren lehiarik ez egiteko hitzarmenen ondorioz ordaindutako zenbatekoak.

Kutxabanke gomendio hori betetzen du, legeak eskatzen dituen terminoetan.